

DEN- DENA NAHI DUGU

**NANNI
BALESTRINI**

Hitzaurreak:

Iñigo Aranbarri

Franco Berardi «Bifo»

Itzulpena:

Fernando Rey



katakrah

liburuak

Katakarak argialetxean lizentzia askeen aldeko apustua egin dugu, horregatik kopiatu eta zabal ditzakezu gure liburu gehienak. Lizentzia hauek kultura zabaltzeko tresna onena dela uste dugun arren, tamalez, gure liburu guztiek ez daukate Creative Commons lizentzia, nahiz eta gehienek hala duten.

Gaur egun, teknologien garapenari esker fitxategi digitalen kopia pribatuak egitearen kostua doakoa da, horrek kulturaren irisbide demokratikoan aurrerapen handia ekar dezake.

Halere, liburuak digitalki doan egon daitezen kostu handia izan dute aurretik. Lagun askoren lana dago atzean eta diru inbertsioa (eskubideen erosketa, itzulpena, diseinua, maketa lanak eta edizioa). Horregatik, gure testuak libreki eskuragai egon daitezen laguntzeko emaitza bat egin dezazun nahi genuke.

Nanni Balestrini

DEN-DENA NAHI DUGU

Nanni Balestrini

DEN-DENA NAHI DUGU

Itzulpena: Fernando Rey Escalera

Hitzaurrea: Iñigo Aranbarri Alberdi

Franco Berardi «Bifo»



Jatorrizko izenburua (1971): *Vogliamo tutto*

Lehenengo edizioa: *Den-dena nahi dugu*

Egilea: **Nanni Balestrini**

Jatorrizkoaren lizentzia: © Nanni Balestrinirekin egindako hitzarmen berezi bati esker argitaratutako lan bat da hau, MalaTesta Lit Ag eta The Ella Sher Literary Agency-rekin elkarlanean.

Argitalpen honen lizentzia: **Creative Commons**

Barruko argazkiaren egilea: **Paco Marí**

Barruko argazkiaren lizentzia: **Kutxa Fototeka CC-BY-SA 3.0**

Hitzaurrea: **Iñigo Aranbarri Alberdi**

Italierazko berrargitalpenaren hitzaurrea: **Franco Berardi «Bifo»**

Itzulpena: **Fernando Rey Escalera**

Diseinua: **Koldo Atxaga Arnedo**

Lehenengo edizioa: **2019ko urria**

Edizioa eta maketazioa: **Katakarak Liburuak**

Kale Nagusia 54-56

31001 Iruñea

argitaletxea@katakarak.net

www.katakarak.net

@katakarak54



Liburu honek Creative Commons lizentzia bat dauka Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioartekoa.

Askatasuna duzu lan hau kopiatu, zabaldu eta jendartean erakusteko betiere asmo komertzialik gabe. Ezin da lan honen lan eratorririk egin.

ISBN: 978-84-16946-36-5

Lege gordailua: NA 2736-2019

Inprimaketa: **Alzate Grafikak**

AURKIBIDEA

ARGITALETXEAREN OHARRA.....	11
HITZAURREA: PINTADA BAT TURINEN: <i>FIAT NON È VITA</i> (Iñigo Aranbarri).....	15
HITZAURREA ITALIERAZKO BOSGARREN EDIZIOARI (Franco Berardi «Bifo»).....	21

LEHENBIZIKO PARTEA

1. HEGOALDEA.....	29
2. LANA	47
3. IPARRA	63
4. FIAT	83

5.	
BORROKA	101

BIGARREN PARTEA

6.	
SOLDATA	119

7.	
BORROKA-LAGUNAK	133

8.	
AUTONOMIA	151

9.	
BATZARRA	173

10.	
ALTXAMENDUA	189





ARGITALETXEAREN OHARRA: ORAINDIK ETA BETI KABIARRA NAHI DUGU

Dirua
Dirua nahi dut.
Nik ez
ez dut ezertarako nahi.
Erregeen eta presidenteen aurpegi moztuak.
Rosalía

Bi mila eta hiruan Nanni Balestrinik *Vogliamo tutori* egin zion hitzaurrean (*Oraindik eta beti den-dena nahi dugu* jarri zion izenburua¹) jada esan zuen nobela honek Italiako masa-langilearen historia izan nahi zuela. Eta «jada zaharra» zen historia bat zela hau. Hirurogeiko hamarkadan zegoelako kokatua. Ez da ohar hau autorea- ren historiaren irakurketa –zaharra da masa-langilearen unibertsoa? Ala zaharra da masa-langilearen unibertsoa Europan baina ez esaterako Asian?– zalantzan jartze- ko tokia zeren Balestriniren artisau lanak badu gutxitan bezalako kontzientzia estetiko eta politiko bat: aurrera- xeago Franco Berardi «Bifo»ren hitzaurrean irakurriko duzun bezala.

1 Nanni Balestrini, *Lo queremos todo*, Traficantes de Sueños: 2006 Madril. 13.or.

Balestrinik nahi zuen nobela baten bidez «geruza sozial oso bat pertsonaia bakarren esperientzien bidez» kontatu. Mundu bat kontatzeko pertsona arrunt bat. Idazleek pertsona bakar bat kontatzeko hiri oso bat behar zuten panorama literario batean. Hamarkada hartako jendarteak sortzen duen pertsonaia pertsona kolektibo bat, figura politiko berri bat da. Balestrinik osatu eta ibilian doala aurkezten du mundua. Hegoaldeko langilea, etorkina, «hamaika lan egiten dituen ofizio bakar bat ere ez duelako».

Bigarren Mundu Gerraren ostean Italian eta European lanean aritu ziren langile horiek «Fiatetik Renaultera eta Volkswagenera, Belgikako mehatzeetatik Ruhrera». Eta bazuten gure garaiko behin-behineko langileekin antzekotasunik: ezin zuten boterea eta aberastasuna eskatu beren gaitasun profesionalengatik. Eta horrek zartatu zuen mila bederatziehun eta hirurogeita bederatziraino Fiatek zuen eredia. Kapital horren ereduak ez zuen fabriketara iritsi berriak ziren langileekin funtzionatu. Balestriniren hitzetan: «Hegoaldeko langileak, kaikua eta ezjakina, berrogeita hamar urteko estrategia kapitalista krisian jarri zuen: muntaia katean oinarritutako fabriketako ekoizpena eta masa-langilea».

Bazuen logika bat ordura arteko munduak. Toki bat zuen langile mugimenduak, alderdi komunista-rekin eta sindikatuekin. Baina hegoaldeko lan indar horrek guztiaren krisia hasiko zuen. Langileen borroka ikasleenarekin batuko zen. Eta horrek poliziaren errepresio latza ekarriko zuen, epaileena ere bai. Eta azkar, 1973tik aurrera, energia krisiaren ondorioz, kalera-tzeak etorriko ziren. Langileen lanak gero eta gutxiago balio zuen «jauzi teknologikoa» tarteko eta behin-behineko langilea sortuko zen.

Nostalgiairen kontrako nobela bat

Bazen unibertso oso bat. Gure hirien erdiguneetan, ibai ertzeetan, lautadetan. Motor Ibérica ala Imenasa deitzen zen Iruñerrian. Eta Çeliku i Partisë Elbasanen: 12.000 lagunentzako metalgintzako fabrika bat. 22 kilometroko barne errepideen sistema bat. Ala Nowa Huta auzoa zuen izena Krakovian: 40.000 langile eta haien senideentzako auzo oso bat altzairu fabrika bati begira. Ala Unión Cerrajera Arrasaten. Ala otomandarren inperioak Albania berdean leihoz bete zuen Berat hartako Mao Ce Dun emakumeen oihal lantegia: genero askapenaren eta erlijio askapenaren tresna isurki eteneko lantegiari lotuta.

Mundu hura alde egiten ari da. Dirua beste nonbaitera doa. Lantegiak hego-ekialderantz. Eta aberastasunak gora egiten du alde. Finantziarizazioa eta teknologia eskutik. AEBetan, adibidez, ekonomiaren %6,8 ordezkatzen du «teknologiaren sektoreak» baina lan indarraren %2,5 bakarrik. Googlek 60.000 langile zuzen ditu, 12.000 Facebookek, WhatsAppek 55 zeuzkan Facebookek 19.000 milioi dolarren truke erosi zuenean eta Instagramek 13 1.000 milioiren truke erosi zutenean. Nick Srnicek-ek 1962ko AEBetako enpresa garrantzitsuekin alderatu zuen: ATT&Tk 564.000 langile zituen, Exxonek 150.000 eta General Motorsek 605.000. Hori ekarri du ekonomia digitalak: errentaren bidez munduko gehienengana gutxieneko baliabideak izateko gaitasuna eskaintzen zuen ereduaren amaiera.²

Orduko ekonomia, gizartearen antolaketa, jende xehearen antolaketa, zuztarretik aldatu badira ere, ele-

2 Nick Srnicek, *Capitalismo de plataformas*, Caja Negra: 2018 Buenos Aires. 11-12. or.

berri honek oihartzun nabarmenak ditu gaur egungo munduan. Eleberri hau ez da XX. mendearen orenaren, 1789-1989 bi-mende iraultzaileetako beste gertakizun batzuei buruzko kronika. Mundu hari buruz hitz egiten zaigu jakiteko baietz, makilek gurpilen ibilia eteten dutela. Ahotsek eta tonuek kontatzeaz gain tokiz aldatzen gaituztela. Eta beraz gertakizunen ostean, alternatibak posible ez direnean, historiak porrota ebatzi dutenean ere, badela bide bat fikzioaren bidez, nobela kasu honetan, «bira kopernikar» bat egiteko, xehetasunetik, historia berriz zabaltzeko, izan ezingo zen horretan berriro egoteko. Nostalgia gabe. Ezagutu ez ditugun tokietan. Ezagutu ez dugun jendearekin. Gure memoriari desafio egin eta kontzientzia iratzarritz, politikak, bisturiak bezala, historia berriz zabaltzeko:

Garai berri bat dator gizateriarentzat, xantaitatik eta bizitzaren denbora degradatzen eta eta lapurtzen duen lanaren sufrimendutik libre, diruaren esklabotzatik libre, gero eta gehiago gutxi batzuen eskuetan, ongizate partekatu eta orokor baten aukerak dauden garai batean. Hori da orain arteko esanahia eta hemendik aurrera izaten jarrai dezakeen antzinako garrasia *Den-dena nahi dugu!*

Ala 1976ko Viola Milaneko Zirkulu Proletario Gazteen aldizkariak aldarrikatu zuen bezala, ezinezkoa eskatuz, jende xeheari absurduki onena opatzeko:³

Guk kabiarra jateko eskubidea aldarrikatzen dugu:
harroputzak garelako.

Iruñea
2019ko urrian

3 Marcello Tari, *Un comunismo más fuerte que la metrópoli. La Autonomía italiana en la década de 1970*, Traficantes de Sueños: 2016 Madril. 166.or.

HITZAURREA: PINTADA BAT TURINEN: *FIAT NON È VITA*

Fabio Francesco Fabrizio deitzen da, zer axola dio nola duen ponte-izena narratzaileak lehen pertsonan erakusten digun langile alderraiak, ez dio horrexek munta handirik, egia esan. Irakurlea berehala ohartuko den bezala, izena edozein izanik ere, trukagarria baita gizona, hartzen duten tokian hartzen dutela. Produkzioari bost zer-nola deritzon Milanera Turinera ipar industrializatura hegoalde beti pobregotik olde gaitzean doan horri. Eta hahor Nanni Balestriniren lehenbiziko gaztigua irakurleari: historiak arrastan daramalako, ez ditut izengabearen egunerokoak neurritz gain erakutsiko. Ez dut lupa ezarriko kafe kiharari nola eusten dion azaltzeko. Langile bat da liburuko orrietan barrena, behargin bat pertsona moduan xehatu nahi duen eiherarekin dialektikan. Hor bai luzatuko naiz, garbi gera bedi: hau ez da nobela burges bat.

Ido Italo Ignazio munduaren sorreratik nekazaritzari loturiko alorretan hasten da oinari lurra kentzen, Napolitik hegorago, Capriko neguritik urrun beti. Alderdi Komunista indartsuaren kontsignak

heldu dira Campaniaraino, badu horren berririk narra-tzaileak berak ere Sele ibai ertzeko pentzetan, baina PCIren mundu-ikuskeragaitz gaitz nahi duen apustua da Balestrinik hasiera-hasieratik irakurleari erakusten diona. «Lurra lantzen duenarentzat!», oso ondo, baina jornalarietaz ez dute jabetzarik behar, «falta zitzaien dirua axola zitzaien urteko hilabete guztietan diru-sarrera segurtasuna izatea axola zitzaien eta ez besterik». Testuingurua inportantea da. Gerraostea latzetik ateratzen hasia da Italia. Industriak eraldaketa ekarri du jendartera, mundua ipurdiz gora ari da mudatzen, mendeetan ez bezalako aldea dator. Motorrak telebistak autoak, zer kontsumitu, badago. Dantzatokiak ostatuak zinema aretoak, non pasa denbora lanetik ateratakoan, bada. Baina zertarako behar du langileak begiak betetzen dizkion mundu hori guztia ez badu zerekin erosi, denbora badu ments.

Aldo Alessandro Antonio beste milaka bezala mukuru gaitzika heltzen diren tren bagoietako batean iparralde idealizatua jotzen duenerako, hasia da ikasten. Salernon jabetua da jende eskolatuak lanpostu hobeak dituela, badaki, gauzak hala dira, aurretik joandako herritarren atean jo beharra dagoela fabrikaren batean enplegatzea lortzeko. Eta han da, hiria eskola den horretan, bi munduren arteko buruz burukoaren erdian: etxeko dialektoak ez dio mundu berrirako balio, harremanak oso dira bestelakoak Italia oparoan, eta okerrena seguraski, saltzeko prest daukan lan-indarrari behin-behinekotasunetik haragoko konpromisoa eskatzen zaio.

Toni Taddeo Tomaso ez da baina, hasiera batean, kontzientzia sozial landuko langilea. Irakurleak eguneroko pasadizo txikietan batetik bestera ikusten duelarik, Mediterraneo ertzeko morroi bizkorra dator-

kio gogora, hasieran batez ere, Rossellini Visconi De Sicaren filmetatik ateratako pikaro bihurri bat, begiak zoli, burua zoliago izatera beharturiko gizaki bat ha- maika amarru gaiztoaren bidez harrapatu nahi duen munstroaren sabelean. Lan gutxiago eta dirua doan nahi duen alproja alfer bat.

Nino Nicola Nanni, behin eta birritan adieraziko zaigu, ezjakina baita. Ez du kontzientzia sozialik politikorik kulturalik ezpada bizitzak eman dion errezelo arrasto hori, gordinkiro gordetzen duen susmo atabikoa. Aditzera baduen baina ulertzen ez duen mundu batean dabil eta, grebaren garretan langile sumindua izanagatik, ez daki nor diren ez Mao Ze Dong ez Ho Chi Minh. Ikasi, ikasi, ikasi. Ikaste prozesu etengabea da nobela izengabearentzat, ezen norik erakutsi, bada. Obreroak trumilka irensten dituzten enpresek, esaterako. Hasteko, bi gauza, fabrikako atetik sartu eta batera. Bata, zein garrantzitsua den, errotak gizakia xehatzen segi dezan, antolamendu kontzeptua eta horren transmisioa. Eta bi, langileak ohitu beharra duela ekoizpen mekanikoak eskatzen duen esfortzu fisikora. Erritmoa eroa da, baina ez da hemen Chaplinen *Garai Modernoak* filmak eragindako barrearentzako tokirik.

Octavio Orfeo Ottone ez da, inondik ere, eta begiratzen den tokitik begiratzen dela, obrero eredugarri bat. Alde horretatik, Maksim Gorkik gehiegi estimatuko ez zukeen pertsonaia dirudi. Koska nabarmena dator ortodoxiarekiko izan ere. Balestrini benetan saiaturiko da aldea erakusten («Eta guri bost pito baldin eta Errusian ere langileak esplotatuak badaude kasu honetan nagusi kapitalisten esplotatuak ez baizik eta Estatuak esplotatuak»). Etika kristauak etika komunistak mendebaldeko kulturak ez bezala, ez du ikusten zertan duindu behar den lana. Lana ez da inportanteena bi-

zitza honetan. Lanak hil egiten du, zahartu egiten du jendea, erabat hondatu. Eta biziko bada joan beharra daukanez sosak ateratzera, beharginak edozein amarru du zilegi huts egiteko, jarrera berez, batere ondo-ikusia edo heroikoa ez bada ere. Lanak ez du inor libre egiten. Jendearen existentzia fisikoa bera jartzen du arriskuan. Esklaboak dira langileak fabrikako katean.

Ettore Ennio Eugenio deitzen da, baina Nikola dei zitekeen, Metxa esaten dioten agirretarra. Asko du Koldo Izagirreraren pertsonaiatik Nanni Balestriniren izengabe honek. Metxa kartzelara bere borondatez sartzen bada espetxe sistemaren zentzugabekeria ankerra salatzeko, Fiat plantara behin eta berriz itzultzen den borrokalaria da Balestrinirena, hala erakusteko irakurleari zer gordetzen den zinez lanaren ustezko ontasunaren gibelean. Eta orduan zertzen da liburuak gordetzen duen ezustekorik behinena, nola nekazari obrerotuak kapitalaren mekanika maltzurra irakurleari erakutsi ahala doan harritzen pizten eraldatzen honen kontzientzia ere.

Vito Venanzio Valerio guztiak ditu beharrezko Balestrinik 1960tik gorako Italian gertaturiko fresko soziala azaltzeko. Gerraosteko pizkunde ekonomikoak metalgintzak altzairugintzak baina bereziki autogintza enpresa erraldoiak Pirelli Fiat Alfa Romeo produkzio katean arituko ziren milaka lagunaren eskulanaren beharrean aurkitu ziren. Lan baldintzek hartaratuta, berandu baino lehen lehertu zen egoera. Leba-leba, batez ere 1968-89an hartu zuen indarra mugimenduak. Fabriketan eraturiko Oinarrizko Batzorde Bateratuek FIOM UILM FIM ohiko sindikatuak baztertu zituzten, grebalariek ez zuten inondik inora onartzen haien asmoa, alegia, lan hitzarmen handia bilatzearena enpresarien elkarteekin Intersindekin Cofindustriarekin

Angelo Costaren manupeko fabrika-jabe haiekin guztiekin. Izan ere, sindikatuak saltzen ari ziren borroka. Lanak balio desberdina izatea eta hala ordaintzea batzuei besteei baino gehiago, kapitalismoaren kontrol politikorako asmazioa da. Horrela, langileak bereiziko ez zituen tratu berdintasuna, soldaten igoera eta lanordu kopurua jaitea bihurtu ziren, ezinbestean, Batzordeen bandera.

Ivo Icaro Ireneo bete-betean inplikatuko da Batzorde Bateratuen borrokan. Hala egingo du Balestrinik kontakizunaren subjektu, tarteka eta beti erakusteko, fabrikak bulegoak etorbideak hartuko dituen oldean, Italia industrialia asaldatuco duten gertakarien kronikaren azpilduretan beti. Ibaiak dakarren legarra hondarra harria da, sedimentazio historikoaren ahots ibiltari, hala da trenera igotzen delarik eta halatsu etxeratuko da akiturik poliziaren oldarraldiaren ostean, gu kolektibo batean babesturik. Bertoluccik Novecentorekin faxismoaren sorrera erakutsi zigun bezala nahi izan zuen Balestrinik 1971ko obra honetan, artean garberotan, kapitalaren logika disezcionatu, sindikatuen estrategia ahulgarria agerian utzi eta Autonomia Operarioaren erantzuna ikusgarri egin.

Tito Terzo Trevoro hizkera baten beharrean da hau guztia kontatzeko, tresnak behar ditu lantegietako giroa zertan den iradokitzeko (baldintzen ondorioz gaxorik hil zirenak kontatu gabe, 44.000 langile hil ziren Italiako fabriketan 1947tik 1969 bitartean). Eta horretarako, Balestrinik emango dio behar duena: izenak mundua erakusteko (*katea esplotazioa greba*), aditzak jendea mugimenduan jartzeko (*blokeatu lehertu itzali*) eta adjektiboak, bakankiro, *ziztrina* deitzeko bizimoduari. Kateak ekoizpenak kapital goseak ebasten duen mundualdia, hegoaldeko alorretakoa bezain misera-

blea oparotasunaren bihotzean. Eta gertaeren harian narratzaileak berak ere maite du itzul-gordeka aritzea, hori du Balestrinik aukeraturiko teknika, gerora pos-modernitateak hain bere egingo duena. Narratzaileak protagonistarekin bat egiten duen ahotsari bolumena jaitsiz, kronika xehez beteko du kontakizuna, panfleto txatalez, aldarrikapen oihuz, despido gutunez, errepikapen estilistikoz, harian bildutako elkarrizketa ostuz... collage bat pindar zalantza galdera den munda azaltzeko.

Agnellitarrak, bitartean, (esku ezezagun batek pintada azkar bat jo du Vallette auzoko horma batean, Turinen: *Fiat non è vita*) brigada faxistez baliatuko dira literaturaz haraindiko erantzuna emateko hamaika izenen aldarriari.

Iñigo Aranbarri

Etxauri, 2019ko urria

HITZAURREA ITALIERAZKO BOSGARREN EDIZIOARI

Aldo Novek dioen bezala, esan genezake Balestrini dela Italiako XX. mendeko poeta epiko bakarra. Epika xeble e eta jauzkaria betiere, bere kantaren xede den mundua ere halakoa baita.

Italiako gerraondoko idazkeran –Italiatik kanpoan ere bai–, bi tentsio txirikordatzten dira, bi asmo, bi prospektiba. Bata edukiari dagokio, bestea formari, sinplifikazio hau egitea zilegi bazait. Eszena historikoaren muinean orain ez dago herria, baizik eta borrokan diren klase sozialak, kontzientzian eta kaleetan gorpuzten diren mugimenduak. Eta, hiri industrialaren erritmoari eusteko, adierazpideen gaineko lan berriazkoak esperimentu berriak egitera bultzatzen du ezinbestean.

Baina Italiako gerraondoko literaturan bi ikerketa-plano horiek, jeneralean, bereizirik ageri dira. Nire ustez Balestrini izan zen bakarra mugimendu iraultzailearen espiritu tragiko-epikoa eta esperimentalismo literarioaren espiritu ironiko-konbinatiboa bateratu zituen. Eta bat-egite horren fruitua da nobela hau,

Den-dena nahi dugu: segur aski Italiako literaturaren hirurogeita hamarrekota hamarkadako lan nabarmenena.

Den-dena nahi dugu indar kalkulatu eta grina menderatu tresna linguistiko bat da. Grina eta ironia dosi ezin egokiagoan ageri dira txirikordaturik, eta elkarrekin egiten dute eztanda, liburu bati bizia emateko. Liburua modu askotan irakur daiteke: metropoliko langileriaren borroka sozialen kontakizun gisa, langileen autonomiaren zabalkuntzaren kontrapuntu hertsagari eta, batzuetan, jauzkari gisa, begiratu hotzapel gisa edo bizitza xeherako mintzamoldearen aldeko keinu gisa.

Lehenbiziko aldiz 1971n argitaraturik, *Den-dena nahi dugu* Hegoaldetik Fiatera joandako langile baten historia da: Fiat borborrean ezagutuko du, eta ongi ikasiko du zer den metropolia, kapitalismoaren indarkeria eta zapalkuntza, nola gorpuztuko den langileen batasuna, eta nola piztu, garatu eta lehertuko den errebolta. Eleberrian lehenbiziko pertsona kontaktua ageri dira Hegoaldetik emigratutakoen gorabeherak eta Turingo langileen borrokarenak. Balestrinik langile bati eman dio narratzailearen papera, eta haren hizketari erritmo bizia nahasi dio, poetika mordoilo, polikromatikoa eta polifonikoaren mesedetan. Egindako lanak ez du inolako zerikusirik populismoarekin edo errealismo deskriptiboarekin. Desmuntatze eta birmuntatze lanaren metodologiaren oinarria konbinazioa da, bete-betean aplikatua hizkuntzari «prozedura» kalkulatu batekin (Viktor Xklovskik hitz hori erabiltzen du errusieraz poetak ahozko produkzioaren gainean egiten duen konbinazio jarduera izendatzeko).

Konbinazio jarduera honen emaitza mekanismo poetiko bat da, ongi funtzionatzen duena ez diskurtsuaren edukiaren mesedetan baizik eta hitz-jarioaren

emozio erritmikoa nabarmentzeko: olatuak, lelo eta errepikak, hitz-zurrunbiloak, etenak, saltoak.

Balestriniren lanaren muina erritmoa da. Zuzenean errealitatetik hartu beharreko material-bloke arruntak baizik ez dira hitzak.

Hori da idazle honek bere-bere duen ezaugarria: idazketaren aurreko ahozko materiala bildu eta gero egiten baitu lan. Horri dagokionez, esan liteke Balestrini dela sekula bere hitzik idatzi ez duen lehenbiziko poeta, hitzak, beretzat, birkonbinaziorako materialak baitira. Hauxe du poetak eginkizuna: inguruko ahozko lurralde neurtezinetik hitzak biltzea, eta haien funtzionamendua, erritmoa eta, beraz, indar emotiboa antolatzea.

Hirurogeita hamarreko hamarkadatik aurrera, Balestrinik hurbiletik erreparatu die gorabehera sozialei eta asaldura kulturei, eta, horiekin loturik, sortzeko prozesu bera duten testu narratibo eta poetikoak idatzi ditu. Haien fruitu, fresko narratibo bat ageri da margoturik, modernitate berantiarren bila-kaera historiko eta batez ere antropologikoa kontatzen diguna.

Egin ditzagun eginahalak begiratu bakar batekin Balestriniren lanaren parabola osoaz jabetzeko, ez baitzuen sekula izan nahi izan historia lantzen zuen idazle bat, nahiz eta, hizkuntzaren zainak eta arrastoak erregistratuz, azkeneko berrogeita hamar urteetako historia eraman duen liburuetara.

Hirurogeiko hamarkadan *Tristano* eta *Ma noi facciamone un'altra* («Baina guk egin dezagun beste bat») liburuek kontrapuntua jarri zioten orduko joerari, hamarkada hartan zibilizazio modernoak, ustez, bere heldutasun findua iritsi baitzuen, tarteko zirela malenkoniak eta nahigabeak, grina aurrerakoien garrak

eta errenazimenduko oinaze luzeak. Balestrinik gero, *Den-dena nahi dugu* idatziz, hirurogeiko hamarkadatik hirurogeita hamarrekorako trantsizioa kontatu zuen, hamarkada berrirako atea: langileen errebolten aldi zoriontsu eta arriskutsua, zeinean ez baita mundu berri bat iragartzen, baina, ordea, kaleetan garatzen baita, borroken eta suhartasunen komunitatean.

Hurrengo liburuetan, *Gli invisibili* («Ikusezinak») liburukoen aro (bukaezin) luzearen garaia deskribatu zuen: hasiera-hasieratik baztertuak, errefuxiatu errebeldeak gero, kartzeletan eta urruntasun klandestinoetan desagertuak azkenik. Bai eta eguneroko errito oldarkorren eta kontrapuntu terrorista beldurtuaren *Indarkeria ilustratua* ere.

Orduan, parabola historikoa noiz suntsitu zen ohartarazteko, *L'editore* («Editorea») idatzi zuen Balestrinik, hirurogeita hamarreko hamarkadako historiaren une gogoangarrietako bat deskribatzeko: tragedia azaleratzen den unea, dugun munduaren kontrako errebolta, tamalez, indarkeriaren eta heriotzaren porrot beltza bilakatzen baita.

Eta, azkenik, erbestealdia bukaturik, Italia jostun eta ile-apaintzaile batzuek menderatutako herrialde bihurtu duen laurogeiko hamarkada honetan, hemen gaude gu, ihesaren eta beldurraren tuneletik kanpo, mundu ergel ezinagoan. *I furiosi* («Suminduak») liburua gizatiarretik izpirik ere ez duen gizadi baten kontu oihukatua da, bururik gabeko energia gehiegia dela-eta asaldatzen den jendeketa bat. Telebistaren aroko ergeltasun imintzio-egileari egindako berebiziko omenaldi epikoa.

Eta parabolaren muinean, ezinbestean, indarkeria topatuko dugu. Ez ideal komunista handien indarkeria edo sumin anarkistena, ez eztanda sozial

iraultzaileen indarkeria epikoa, baizik eta Sandokan camorristaren indarkeria kriminala. Gaur egungoa bezalako degradazio zibil eta moralaren aroaren ezau-garriak biltzen dituena.

Franco Berardi «Bifo»

Bolonia, 2004ko azaroa

LEHENBIZIKO PARTEA

1

HEGOALDEA

Hegoaldean hamar edo hamabost urte lehenago hasia zen. Italiako Hegoaldeko Kutzaren esku-hartzea industria berriak nekazari-eskualdea industrializatu beharra. Eta garai hartako hauteskundeetako mitinetan aditzen zen Italiako Hegoaldeak aurrera egin zezan lan egin beharra zegoela. Giza duintasun berria iristeko produzitu beharra zegoen. Bestelako Hegoalde baten premia genuela ogia guzti-guztiontzat eta abar. Kristau Demokraziak esaten zuen Italiako Alderdi Komunistak esaten zuen denek esaten zuten.

Baina hura guztia azkenean emigraziorako ate irekia izan zen seinale bat esaten ziguna denok Iparraldeko fabriketara joan behar genuela. Italiako Iparraldean zein Europan prest zeudela jende olde hura guztia hartzeko. Orduan denok baliagarriak gintzaizkien Fiaten edo Volkswagenen muntaketa-kateetan lan egiteko. Eta hain zuzen ere langile mota hori behar zuten. Langile bat katearen edozein lan mota egin zezakeena nekazari-eskualdeetan edozein lan mota egin zezakeen bezala berdin jornalari lana egin edo erre-

pideak egin. Eta beharrezkoa zenean lasai ederrean langabearena ere egin zezakeena hala tokatzen bazen.

Lehenago ordea justu alderantziz zen. Lehenago jornalariak nekazari-lana egin behar zuten beti lurrari lotuak denak. Hegoaldeko langileek Hegoaldean gelditu behar zuten. Zeren orain dela hamabost urte Iparraldera eta Europara joan izan balira denak lanera sekulako saltsa eta kaka-nahastea sortuko zen han goian. Orduan han goian ez baitzeuden oraindik pres-tatuak ez fabrikak ez deus. Garai hartan nik oraindik ez nuen gertatutako gauza horien berri. Gero ikasi ditut lagunekin izandako solasaldiei esker. Lana betiko utzi eta gero. Mirafioriko fabrikan egun hartan sortu nuen iskanbilaren ondoren.

Baina garai hartan PCIren leloa zera zen Lurra lantzen duenarentzat. Jornalarietako ordea zer axola zitzaion lurraren jabetza. Falta zitzaion dirua axola zitzaion urteko hilabete guztietan diru-sarrera beti segurtatua izatea axola zitzaion eta ez besterik. Horregatik aldatu zuen PCIk Hegoaldean lurren okupazioari buruzko politika. Hiri administratiboetara erretiratu zen aski baitzuten han eskulangileen eta enplegatuen atsekabeei kasu egitea. Nahiz eta bitartean Battiplagian eta Reggio borroka handiak lehertu ziren baina PCIrentzat haiek azpiproletario kakaztuak besterik ez ziren.

Gainera ez da egia Hegoaldea oro har pobrea izana zela inoiz. Betidanik han lur-jabeek diruketa ederrak irabazi dituzte nekazaritzan. Eta horrela izan zen Hegoaldeko Kutxa sortu ondoren ere. Kontu bakarra zera zen lur-jabeek beti irabazten zuten eta bost hektarea baino gutxiago zutenak aldiz handik alde egitera behartuak zeuden.

Har ditzagun adibide gisa Salerno inguruko lur emankorren jabeak Sele ibaiaren bazterreko zelaieta-ko lurrenak. Ordoki hartan tomate-hazleak zeuden. Sasoa denean tomateak landatzen dituen jendea familiako guztiek parte hartzen duten lan batean. Dirua metatzen joan ziren heinean lur-jabeek industrializatu egiten zuten lan hori guztia. Horrela orain dena egiten dute lurreen landatutako tomateekin hasi eta konterba-flaskoarekin buka. Horrela jornalariak obrero bihurtu dira eta makinei esker jende gutxiago behar da baina produzitu gehiago egiten dute. Eta gainerako langileek desagertu behar dute handik.

Kutzak lur batzuk desjabetu zizkien lur-jabe aberatsek milioiak ehunka jaso zituzten lira mordoa esku-dirutan. Haiek ere nahi zuten industriak sortzea. Eta gainera milioi horiekin etxebizitzak eraikitzen zituzten hirietan etxebizitzak milaka. Eta obretan lan egitera etortzen ziren gehienak ez ziren Salernokoak baizik eta kanpotik etorriak. Apeninoetako mendialdeko herrietakoak. Jende hark guztiak etxean txerria zuen baita oiloak eta mahastiak eta olibondoak ere baina ez bizitzeko eta aurrera ateratzeko adina. Orduan den-dena saldu zuten hirian apartamentu bat erosi eta fabriketan hasi ziren lanean. Eta azkenean horregatik hirian lehenago baino are langabe gehiago zeuden.

Baina gehienbat Iparraldera joan behar zuen barnealdeko eta Apeninoetako herrietako jende horrek guztiak. Toki haietan Kutzak ez zuen eskurik sartu nekazariak bertatik desagertzekoak zirelako. Iparraldera zihoazen garapenean laguntzeko. Iparraldekoek gure azpigarapena behar baitzuten garapena lortzeko. Nork egin du lan Iparraldea Italia eta Europa garatzeko? Guk egin dugu guk Hegoaldeko jornalariok. Gauza desberdina bagina bezala Iparraldeko langileak eta Hegoaldeko

jornalariok. Batzuk zein besteak azpiproletarioak. Gu gerok baikara Iparraldeko langileok. Azken batean zer da Turin Hegoaldeko hiri bat baizik? Nork egiten du lan han? Salernon Reggion eta Battipaglian pertsona berberak egiten dute lan. Azkenean jendea ohartzen denean ezin duela gehiago jasan orduan Corso Traianon eta Battipaglian gertatu zena gertatzen da. Lanaren gorabehera horiek guztiak Iparraldean edo Hegoaldean edo lanik badagoen edo ez dagoen beti engainua da dena. Orduan hasten gara ohartzen konponbide bakarra dagoela denari su ematea alegia. Battipaglian eta besteetan bezala. Toki guztietan gertatuko den bezala prestatuak egoten garenean. Eta orduan azkenean dena aldatuko dugu. Pikutara bidaliko ditugu haiek denak eta haien lan nazkagarria.

Salernora Noceratik Cavatik San Cipriano Picentinotik Giffonitik Montecorvinotik etortzen ziren langileak. Langileak herri horietatik guztietatik etortzen ziren goizean Lambrettan edo motoetan. Lan pila zegoen fabriken eraikuntzan. Kamioilariak porlana harria eta burdina garraiatzeko. Kaleak-eta egiteko. Salerno 50eko hamarkadan boom bat izan zen eraikuntzan. Denek Lambretta bat edo moto bat erosten zuten. Ikusten hasi ziren lehenbiziko auto utilitarioak 600a langile askok erositako baitzuten. Eta telebista erosten zuten denek eta antenak agertzen ziren nonahi.

Diru mordoak mugitzen hasi zen. Gero eta gauza gehiago zeuden jantzi-dendetan janari-dendetan eta abarretan eta noiznahi denda berriak irekitzen ziren. Denek gehiago irabazten eta gastatzen zuten Salernon. Baina normalean ez ziren haiek Salernoko proletarioak edo langabeak. Baizik eta inguru-minguruko herrietako jendea. Dirua herri haietara ailegatzen zen baina jakina ez zen bertan gelditzen. Jendea nazka-nazka

eginda zegoen egunero lanera joateko motoarekin Lanbrettarekin edo 600arekin Montecorvinotik Salernora joan beharraz eta gero arratsean itzuli beharraz. Orduan jendeak pisu bat bilatu zuen hirian. Izan ere Salernon eraiki ziren etxe horietan guztietan kanpotik etorritako jendea jarri zen bizitzen.

Askok gerora bizileku izanen zituzten etxeak eraikitzen egiten zuten lan. Handik laster hiriko pisu horietara joaten ziren bizitzera lehenbizi alokairuan edo gero erosi ere egiten zituzten. Haiek ez ziren hirikoak bezalako proletarioak hau da deusik ere ez zuen jendea. Beren modura ondasun-jabeak ziren haiek ere zeria baitzuten eta oiloak mahastiak olibondoak eta olioak. Eta hirian apartamentua erosteko adina diru erdiesten zuten. Gero lana lortzen zuten fabriketan. Gomendiozko gutuna-edo behar zuten fabriketan kontratua lortzeko. Nekazari haiek urdaiazpikoa eramaten zioten gomendio-emaileari. Olioak ardoa eta halako gauzak eramaten zizkioten eta horrela lana lortzen zuten. Horrela baizik ezin zen lortu lanpostua. Eta gero hirikoak bezalako langile bihurtzen ziren nahiz eta egia esan beti izanak ziren proletario.

Nik ere han osaba bat nuelako lortu nuen lanpostua. Orain erretiratua da eta garai hartan Ogasun Publikoan aritzen zen lanean. Lehengusu bat zuen kontratazio bulegoan. Bulego hartara eraman ninduen. Esan zion lehengusuari Hau iloba dut. Lagundu behar diozu lan bat lortu behar diozu. Lehengusuak gomendiozko gutun bat egin zidan Ideal Standarderako. Elkarrizketa bat egin nuen gero INAMEko elkarrizketa. Gero psikotekniko bat egiteko itzuli nintzen hara. Azterketa psikoteknikoa enplegatuekin batera egiten zen. Kontu bakarra zen denbora ez zela berdina. Haiek minutu batean egin behar zuten eta guk hiru minutuan.

Gero esan zuten ikastaro bat egitera bidaliko gintuztela. Azterketa psikoteknikoan nota hobea izandakoak Bresciara joaten ziren ikastaroa egitera.

Galdetu genuen zertarako egin beharra zegoen ikastaro hori. Esan zuten ikastaroa Hegoaldeko Kutzak ordaintzen digula eta Hegoaldeko teknikariak prestatzeko balio zuela Hegoaldeko industrietan lan egiteko. Nik ikastaroaren afera aditu nuenean zera pentsatu nuen formalismo hutsa izanen zela. Lanbide Eskolan egon eta gero lanik gabe egona nintzen denboran ikastaro mordoa egina nuen. Matxura-konpontzaile mekanikoa tornularia etab. Gauza horiek guztiak ikasteko egiten nituen ikastaroak. Gero ordea ez zuten zipitzik ere balio. Langabezi bulegoak eskola bat izan zezan balio zuen baina ez beste deusetarako. Batek daki zer interes politiko zeuden eskola horien atzetik.

Nolanahi ere ikastaro hitza aditu nuenean uste nuen guri zenbait gauza azal ziezazkiguten gindoazela hara. Bresciara joateko tren-txartel bat eman ziguten eta bidaia-saskitxoa ere eman ziguten jana alegia. Bresciako geltokian Ideal Standardeko gizarte-langilea genuen zain. Taxia jarri ziguten eta izenez deitu eta hogeit bat ginen. Hamar alde batera bost beste batera zazpi beste batera. Lotarako tokia ere bilatua ziguten. Hauek dira aurkitu ditugun pentsioak esan zuten. Dena dela gustatzen ez bazaizkizue aldatu gero. Eta bihar munean Ideal Standardera fabrikara azaldu ginen. Eta han esan ziguten mutil jatorrak ginela mardulak sendoak eta abar. Eta galdetu zuten nahi ote genuen txangorik egin Frantziara Turinera Milanera. Enpresak txangoak antolatzen zituen astero edo hilabetero. Guri bost axola txango horiek baina halere bai bai esan genuen konforme.

Mantal bana eman ziguten mantal bat IS sigla zeramana. Fabrikara eraman gintuzten eta bero sapa egiten zuen hogeita hamar gradu berrogei gradu. Hezetasun handia zegoen han baitzegoen idortu beharreko zeramika guztia. Ura lurrunduz doa eta umel-umela dago dena. Itotzeko zorian sentitzen ginen hatsandian. Azalez beltzagoak ginen gu Bresciako Ideal Standardeko langileak baino. Zeren han arratsero dutxatu behar dute beti beroak baitaude lurrunean eta larruazala zurituz joaten zaie. Gainera kanpoan Brescian eguzkiak ez du hainbeste jotzen. Hegoaldetik gindoazenok udaren bukaeran bel-beltzak geunden. Eta haiek hori ikusita izutuxeak zeuden.

Nolanahi ere azalpenak eman zizkiguten. Komunzuloa erakutsi ziguten bideta konketa konketaren zutoina bainuontzia. Aukeratu zituzten azaldu ziguten zenbat zentimetro izan behar zuten. Zenbat minutu egon behar zuen konketak moldean zenbat minutu egon behar zuten moldean gainerako gauzek. Azaldu ziguten nolakoak ziren moldeak eta beste gauzak. Eta gero nola egiten zen lan erakutsi ziguten. Ohartu nintzen han Bresciako langileek tarraka-tarraka egiten zutela lana askorik pentsatu gabe. Nolanahi egiten zuten di-da atentzio handirik gabe. Orduan egin nuen neure artean zer arraiotarako balio ote zuen ikastaroak kabendio. Hemen zein da kontua behar den bezala lan egitea edo nagusi bihurtzea?

Ederki esan nion neure buruari helburua nagusi bihurtzea baldin bada lan gutxi egin beharra dago. Eta patxadan ikasten nuen. Nire lankideek bi komunzulo egiten zituzten nik orde bat. Eta horrela jarraitu nuen lanean. Han bizpahiru hilabete eman eta gero borrokara ere bildu ginen. Han grebak egiten baitzituzten eta guk ere bitan pentsatu gabe egiten genituen Bresciako

haiekin batera. Hegoaldeko Kutxak ordaintzen zigun asteen hamar mila lira kobratzen genuen joan-eto-rietarako berrogei milatik gora hilabetean. Bestetik hirurogei mila jasotzen genuen hilabetean eta bazkaria dohainik enpresako jantokian. Autobusa ere dohainik genuen hiri guztian linea guztietan.

Bresciara baino lehen gutako bakoitza eskualde batekoa zen herri batekoa. Eta denok Hegoaldeko ohiko bizimodua egiten genuen. Han berriz bospaseik gela berean egiten genuen lo apopilo ordu berean bazkaltzen genuen autobus berberak hartzen genituen. Eta horrela industriako lanaren abantailez jabetzen hasi ginen. Izan ere lan hartan ez genuen esplotaziorik sufritzen azken finean ikastaro bat egiten ari ginelako ez besterik. Ez genuen uste esplotazioaren biktimia ginenik bederen hori zen gure irudipena. Eta sindikalista batzuk hurbiltzen zitzaizkigun esanez behin Hegoaldera itzulita borrokatu egin behar genuela. Hegoaldea Iparraldearen maila berera eraman beharra zegoela eta halako kontuak.

Egun batean Ideal Standardeko langileak borrokan ari ziren greban eta orduan gu sindikalistekin hitz egitera gelditu ginen. Produkzio saria handitu zezatela eskatzen zuten greban eta esan zuten gu ere produzitzen ari ginela. Eta esan nuen nik Ez gu ikastaro bat egiten ari gara. Ez zuek ere produzitzen ari zarete haiek zuek egiten dituzuen piezak hartu eta saltzen dituztelako. Zuek ez zarete ikastaro bat egiten ari zuek produzitu egiten duzue. Komunzulo batek hamar hamabost mila lira balio du ez da txori kaka. Guk horri erreparatzeak mesede egin zigun uste baikenuen enpresaren bizkar enpresaren lepotik bizitzen ari ginela. Eta orduan barrenera sartu nahi ez eta kanpoan eseri ginen.

Egun haietan Salernoko Ideal Standardeko zuzendaria iritsia zen Bresciara. Han ikusi gintuen eserita lurrean eta galdetu zigun zer arraio ari ginen. E greba egiten ari gara. Baina sartuko zarete ezta? Guk ordea borrokatzea erabakia genuen. Bi egun geroago Brescia-ko haiek greba utzi zuten baina guk oraindik borrokan jarraitzea erabaki genuen. Han ginen gu eserita gu hogeiak atearen aurrean besteak sartuak ziren. Han ginen bitartean guardia bat ailegatu eta deitu zigun Zuzendariak zuekin hitz egin nahi du. Barrenera sartu ginen. Zer arrazoi esan nahi digu zuzendariak batek daki soldata igo nahi ote digun.

Barrenera sartu eta zera esan zigun Aizue mutilak Hegoaldean langabe asko daude ez zarete zuek bakarrak. Segituan botatzen ahal zaituztegu oraintxe bertan. Egia esan egin egin behar nuen. Zergatik egin duzue greba? Sindikalistak esan dizue? Afiliatu zarete sindikaturen batean? Esaten dizuet sindikaturen batean afiliaturik egon beharra dagoela greba egiteko. Bai grebak sindikatuarekin baizik ezin dira egin. Sindikaturik gabe egiten baduzue lanetik bidaltzen ahal zaituztegu. Oi baina guk ez genekien. Borrokara bildu gara besteak ere ari zirelako eta guk ere egin dugu.

Dena dela zuek soldata-igoera nahi duzue baina ba al dakizue ez duzuela zipitzik ere produzitzen? Ba al dakizue Salernoko fabrikan orain dela hilabete bat hasi zirela lanean eta hamasei pieza produzitzen dituztela eta bakarren batek hemeretzi ere bai? Eta zuek hemen hamalau egiten dituzue eta gehiago kobratzen duzue. Guk esan genion ez daitekeela egin ezinezkoa dela eta gezur bat besterik ez dela guk amore emateko. Ezetz esan zuen berak nik oraintxe berean bertan behera uzten ahal dut ikastaroa eta berriz zuek denak Salernora bidali. Lan egin nahi baduzue etorri bestela

alde hemendik. Guri bost axola. Eta izan ezazue garbi ez dizuet soldata-igoerarik eman behar.

Edo orain berean erabaki lanera itzultzea edo berehala botako zaituztet. Eta hala eginez gero zuek ikustera joanen naiz eta erabakiko dut zer egin zuekin Salernora bidali edo hemen izan lanean. Laburbilduz gure artean eztabaidan hasi ginen. Esan nuen nik tira gogor egin beharko diegu ezta? Esan dezagun ez dugula lan egin nahi eta horrela hauek bota egingen gaituzte. Denak itzuli ginen behera hogeiak eta iskanbilan hasi ginen Standarden parean eta gero beste gauza batzuk egin genituen. Baina batzuek esan zuten ezkonduak zeudela eta ahalik lasterrena bukatu nahi zutela ikastarora. Lan egin nahi zuten eta Salernon dirua irabazi eta ez zuten istilurik nahi. Eta horrela erabaki genuen lanera itzultzea deusik ere erdietsi gabe.

Beraz hilabete baten buruan ikastarora bukatu eta Salernora itzuli ginen. Han ikasi genuen Hegoaldeko Kutzaren diruarekin langile bresciarrei ordaintzen zietela hau da Bresciako Ideal Standardeko langileei aitzakia hartuta han Salernoko langileei erakutsi behar zietela. Hegoaldeko teknikari berriei alegia. Eta han langileek guk baino gehiago produzitzen zutela hots Brescian ikastarora egina genuenok baino gehiago. Brescian fabrikak hogeita hamar urte zituen eta hama sei pieza egiten zituzten egunean. Salernokoan berriz bi hilabete izanik ere ordurako hemezortzi egiten zituzten. Justifikazioa zera zen fabrika modernoa zela instalazioak efizienteagoak zirela.

Alde bakarra zera zen piezak eskuz jaso beharrean gailu bati esker denak batera altxatzen ziren. Lan batzuk automatizatuak zeuden eta bederen bizkarreko min batzuk saihesten genituen. Eta horrela osasunarentzat mesede zen gailu bati esker bi pieza gehiago

egiten genituen hau da bi komunzulo gehiago. Horrek ez ninduen asetzen buruan nerabilen-eta Brescian langile guztiek bizkarreko mina zutela. Denek gerruntzea eramaten zuten bueltan-bueltan uzkurdurak eta muskulu-urradurak izaten zituztelako. Eta hemen piezak goratzeko gailua hau da bizkarra ez bortxatzeko berrikuntza hura jendeak muskulu-urradurak zirela eta bajarik ez hartzeko paratua zuten. Dena dela gure kalterako zen hori guri bi pieza gehiago eginarazten zizkigutelako. Hau da fabrika berrietako makina berriek gauza bakar baterako balio zuten jende gutxiagok lan egiteko baina haietako bakoitzak gehiago produzituz.

Haiek ordea ez zeuden gure arrazoiak aditzeko. Esaten zuten Ez al duzu ikusten besteak lanean ari direla eta hemezortzi pieza egiten dituztela? Azkenean denek hemezortzi pieza egiten zituzten ni nintzen bakarra hamasei egiten zituena. Orduan bulegotik deitu zidaten. Esan zidaten Entzun ezazu parte oneko gizona ematen duzu baina postuz aldatu behar zaitugu. Egia esan kalera bidali beharko zintuzkegu gutxi produzitzen duzulako. Baina nahiago dugu beste postu bat eman beste tailer batean jarriko zaitugu. Beste tailer batera aldatu ninduten baina bi egunez oraindik lehengoan gelditu behar izan nuen hau da isurketa-tailerrean. Bi pieza lehor bainituen bukatu beharrak. Piezak moldeetatik atera behar nituen eta bukatu gabe nituen pieza txuri lehorrak bukatu.

Bulegotik behera jaitsi eta piezako kobratzen zena igo zezatela eskatzera joana zen sindikalista batekin egin nuen topo. Zuzendaritzak ezezko borobila eman zion huts eta hauts eta orduan sindikalistak zera zioen greba egin beharra zegoela. Hori aditu eta segituan esan nuen Zoragarri! Eta sindikalistarekin batera hasi nintzen oihuka Greba! Greba! Orduan isurketa-

tailerrera abiatu eta lankideak kanpora aterarazten hasi nintzen. Nagusi bat ailegatu eta esan zidan Zer ari zara zu hemen hau ez da-eta zure tailerra. Eta nik esan Bai nire tailerra da oraindik bi pieza bukatu behar ditut-eta. Eta zergatik ez dituzu bukatzen? Ba greban gaudelako. Eta isildu zen nagusia.

Berrogeita hamar inguru hasi ginen greban. Eta kontrolean hasi ziren nor ari zen oraindik lanean. Orduan gu lanean ari zirenengana joan eta isurketa-tailerretik kanpora aterarazi genituen. Nagusiak sutan jarri ziren eta haietako bat mehatxuka hasi zitzaidan. Bazkaltzen ari nintzenez ogia bota nion aurpegira. Harengana oldartu nintzen eta nire lankideek heldu zidaten. Esan zuten Ongi egin duzu baina aski da. Gero beste tailerretara jo genuen eta lana uztera behartu. Patiora atera eta batzarrean bildu ginen. Hamabost eguneko greba eginen dugu pikete eta guzti gau eta egun. Eta beti poliziaren patruila-autoek inguraturik. Gero Salernora joanen gara manifestazioan Gobernu Ordezkaritzaren aurrean elkarretaratzea egin eta gauza horiek guztiak.

Handik bueltan nire postu berrian hasi nintzen. Han pieza bukatuak dabilen zinta batean paratu behar nituen. Beste batek kontrolatu egiten zituen eta beste bik orgatxoetan jartzen zituzten. Baina greban galdutako produkzioa berreskuratzeko bi lerro jartzea erabaki zuten. Bi ikuskatzaile eta beste bi langile piezak kartoian biltzen. Lehenago piezak lerro bakar batean jartzen zituenak orain bi lerrotan jarri behar zituen. Hau da nik egin behar nuen lan bikoitz hori. Hori lortzearren ikuskatzaileei esana zieten pieza bukatuen kalitatea lasterrago kontrolatzeko. Hau da langileek berehala pieza kartoian biltzen ez bazuten ikuskatzaileak lurrean uzteko baimena zuen. Nahiz eta

normalean pieza ezin den lurrean utzi hausteko arriskua dagoelako.

Eta niri esana zidaten zintan pieza berriak jartzeko etengabeen. Piezei bultza egiteko elkarrekin jartzeko. Nahiz eta ezin diren elkarrekin jarri hausteko arriskua dagoelako. Portzelanazkoak direnez ezin dute elkar ukitu. Hala ere baimena emana zidaten piezei bultza egiteko ere. Esaten nien nik Baina zuek erotu zarete pieza hauek hautsi egin daitezke. Erantzuten zidaten Eta hiri zer inporta zaik hik egin gauzak esan zaian bezala. Produkzioa handitzea besterik ez zuten buruan. Lankide batek sindikalista batek deitu eta esan zidan Aizak hauek gehiago produziarazi nahi zigutek. Bi lerro jarri nahi ditiztek bakar baten ordeztu eta gero hik eroen pare ibili behar duk biak kargatu behar dituk.

Lankideei esan nien eta orduan haiek Aluak! Orduan mantso ibiliko gaituk. Eta ikuskatzailearengana jo eta esan zioten Baina zer arraio habil hain laster hila lasai! Esan zien hark Ez niri hola gustatzen zaidak lan egitea. Orduan nik hari listua bota aurpegira eta gero komunera joan nintzen pixa egitera. Egosketa-tailerreko nagusia labeetako nagusia aparejadore bat ailegatu zen. Esan zuen Zu hemen denei adarra jotzen ari zara kasu eman bestela pikutara bidaliko zaitugu. Aizu esan nion hain adar delikaturik baldin baduzu gelditu etxean eta ez dizut ukituko. Dena dela nire postura itzuli nintzen eta han ikuskatzaileak eroen pare segitzen zuen lanean.

Biharamunean lanera ailegatu nintzen eta gurdiek deitu eta gutun bat eman zidaten eskura. Ireki eta zera zegoen idatzia kanporatua nintzen. Fabrikako iskanbilengatik sabotajeagatik eta ez dakit zer arraio gehiagorengatik. Eta hori zela-eta ez nuen eskubiderik zortzi egun lehenagoko aurreabisua izateko eta ez bes-

te hainbat gauzatarako. Esan nuen Baina sartzen ahal naiz barrenera? Ez ezin haiz berriz sartu. Ezagutzen nituen guardiak bata lagun baten aita zen eta bestearen laguna egina nintzen. Ez nuen istilurik izan nahi haiekin ez nuen horretarako kemenik. Orduko hartan erabaki nuen berriz ere noizbait fabrikaren batera joaten banintzen ez nuela adiskide traturik izanen sekula guardiekin.

Kanpoan geldituko nintzen ingeniaria noiz sartuko zain nire dirua eskatzeko. Han nintzen bitartean ordea kakagalea sartu zitzaidan libratzera joan eta ingeniaria pasatu zen. Laburbilduz berandu ailegatu nintzen hura harrapatzeko. Orduan Lan Auzitegira joan nintzen eta esan nuen afera haiengatik bidali nindutela lanetik. A! Ez larritu arduratuko gara gu. Salaketa ederra jarriko diegu. Dena lortuko duzu. Bitartean galde egin zidaten sindikatuan afiliatua ote nengoen. Esan nien greban egin nuela karneta eta mila lira kostatu zitzaidala. Konforme eta Ideal Standardentzako gutun bat idatzarazi zidaten. Presazko bidalketa behar omen zen sinestamendu eta guzti eta horretarako beste hirurehun lira gastatu nuen. Hamabost egunez esperoan egon nintzen hamabost egun baino gehiago zerbait gertatzeko zain. Haiengana jo eta esan nien Adizue ez dut erantzunik jaso eta diru premian nago.

Pazientzia izan behar duzu ordea ez kezkatu. Ordaintzen ez badute juiziora joan eta dena emanen dizute. Nardatua nago beti esperoan. Goiz batez ingeniaria fabrikara noiz sartuko zain egon nintzen. Ingeniaria ailegatu eta haren autoaren aurrean plantatu nintzen. Hark frenatu nik atea ireki eta barrenera sartu nintzen. Ateko aseguruja jaisten saiatua zen nik hari eskua sorbaldan jarri eta aurpegira bota nion gutuna. Esan nion Zergatik ez dagozkit niri aurreabisu-

ko zortzi egunak? Zuek bota nauzue eta zor didazuena pagatzea nahi dut. Bai aurreabisuko zortzi egunak bai lanik gabe egon naizen hilabetea.

Zor didaten guztia nahi dut. Ez gehiago ez gutxiago nirekin broma gutxi. Esan zuen Aizak ni ez nengoan hemen hi bidali hindutenean. Niregatik balitz ez hinduket botako. Mutil jatorra haiz nik postuz aldutuko hinduket. Lanera itzuli nahi baduk postu hobean sartuko haut. Postu bat besteekin batera egon beharrik ez izateko postu bat hire kasa ibiltzeko. Nik esan nion ordurako ez zitzaizkidala interesatzen Ideal Standardeko lanpostuak. Nazkatu naiz nire dirua nahi dut oraintxe agudo. Zor didatena ez zentimo bat gutxiago ez gehiago. Esan zuen Konforme ez kezkatu. Bulegora eraman ninduen eta esan zien bulegariei Egiezue kontua. Nola kontua? Bai dena den-dena. Baina... Esan zuen Bai dena.

Kalkuluak egin eta ehun eta hoge mila lira zegozkidan. Hark niri deitu eta esan zidan Konforme ehun eta hoge mila lirarekin? Eta nik Ez. Orduan hark Adizak nik kontu hauekin hau ematen ahal diat. Egin dezagun gauza bat orain nagusiaren zigilua jarriko zioat hire azaroko txartelari. Zigilua jarriko zioat horrela heldu den hilabetean hi etor hadi soldata jasotzera lanik egin gabe. Ederki esan nion konforme. Baina bromarik ez ziririk ez sartu. Ni heldu den hilabetean hona itzuliko naiz. Egunero ikusten zaitut Fuornitik pasatzen badakit non bizi zaren. Beraz broma gutxi. Esan zuen ingeniariak Jakina baina gauza bat esan nahi diat. Zentzatu pixka bat nik beste lan bat aurkitzen ahal diat.

Bresciakoa zen baina Salernora ekarria lanera. Jakina ez zuen etsairik izan nahi. Ez zuen bere burua arriskuan jarri nahi bereak ez zituen hogeita hamar berrogei edo ehun mila lirarengatik. Zer arraio inpor-

ta zitzaion? Eta esan zuen lagundu nahi zidala beste lan bat bilatuko diat esan zuen. Ez zuk ez duzu uler-tu nik ez dut gehiago lan egin nahi. Deus ez egitea da nire lana. Eta horrela gero hurrengo hilabetean nire dirua jasotzera joan nintzen eta horrela bukatu zen Ideal Standarden izan nuen historia. Denbora puska bat eman nuen lanik gabe baina zapata dotoreak erosi nituen zira bat jantziak. Diru guztia xahutu nuen. Hamabost egun gabe xahutua nuen dirua guztia. Irabazi nuen guztia. Bat ere sosik gabe gelditu nintzen.

Ez nuen langabeziaren prestaziorik jasotzen urte pare bat kotizatua izan beharra baitzen horretarako. Baina Hegoaldean langabeentzako bulegoak enplegu-obrak antolatu zituen. Azken batean jendeari dirua banatzeko modu bat. Seiehun lira ematen dizute egunean. Zu obrara joaten zara baina egia esan ez da obra bat ere. Zelai bat zen deus ere gabe han morroi bat dago zerrendan dituen izenak irakurtzen dituen. Zuk esaten duzu baietz han zaudela hark eguna sinatzen dizu eta ospa. Gero larunbatean dirua kobratzera joan behar duzu lau mila eta berrehun lira. Eta diru horrekin tabakoa erosten nuen zinemara joaten nintzen moldatzen nintzen nola edo hala. Lo familiaren etxean egiten nuen eta kitto.

Egun batean erabaki nuen horrela ez nindoala inora. Azkeneko aldiz udako denboraldia egin nuen Florion. Han kontserba fabrika asko daude gehienbat tomaterako. Urtaroko lana. Lehenago urtaroko lanaldia lau hilabetekoa izaten zen hiru hilabetekoa bi hilabetekoa. Orain hilabete bakar batekoa da tomate gutxiago dagoelako. Nolanahi ere hilabete bat egin nuen Florion hamabi lan ordu egunean igande eta guzti. Ehun eta berrogeita hamar ehun eta hirurogei mila lira irabazi nituen. Bajarik ere ez nuen hartu gero erabakia bai-

nuen Milanera joatea. Normalean udako lan hori egiten dutenek baja hartzen dute gero bizpahiru hilabete lau hilabete baita sei ere. Horrela bi mila edo mila eta bos-tehun lira kobratzen dute egunean. Horrela egiten dute lanik ez dagoenean. Gaixotasun-baja hartzen dute.

2

LANA

Ni Fuornin nintzen hau da Salernoko auzo batean. Baziren beste auzo batzuk ere Giovi eta Caserosse eta Mariconda eta Pastena eta Mercatello eta abar. Lehen hezkuntza bukatu nuenean gure aitak eta gure amak ikasten jarraitu behar nuela pentsatu zuten eta maisu-maistren aholku eske jo zuten haiengana. Eta haiek gure aita-amak gorai patu zituzten hori egi-tegatik. Guraso guztiek berdin egin beharko lukete esan zieten. Hala ere aholku bat eman zieten. Hobe bigarren hezkuntzako institutura ez bidaltzea semea. Batik bat sarrera-azterketa bat egin behar duelako han. Eta gainera bigarren hezkuntzako institutuan lan gehiago egin beharra dago gogorragoa da ikasketak zailagoak dira. Liburu gehiago behar dira diru gehiago. Eta gero beharbada ezin izanen du bukatu gogorregia egiten zaiolako.

Zuen semea ordea lanbide eskolara joan daiteke horrela gero lanpostu bat lor dezake fabrika batean. Eta kontramaisua izan langileburu izan. Guri kontramaisu langileburu hitzak beste mundu batekoak iruditzen

zitzaizkigun. Zer arraio ote ziren ere arrastorik ere ez. Nolatan jakin genezakeen zer ziren gurean oraindik fabrikarik ez bazegoen? Gure aita beste asko bezala hamaika ofiziotan ibilitakoa zen. Nekazarien semea baina denetik egindakoa zen hasi kontrabandoan gerraondoan eta eraikuntzako peoi-lanean buka garai hartan ari zen bezala. Eta horrela erabaki zuten nik ikasten jarraitu behar nuela. Ni ikaratu egiten ninduen goi mailako eskolara joateak hala esaten baitzen goi mailako eskola. Zorionez Fuorniko beste lagun batzuk ere joatekoak ziren.

Fuornitik hirira zihoan tranbiarako bonu bat egin behar izan genuen. Eskolan hasi eta lehenbiziko egunetan ere sortu ziren liskarrak gure artean. Hirikoen eta kanpotik gindoazenen artean. Gu Pontecagnanotik heldu ginen Battipaglatik Baronissitik Giffonitik Noceratik. Probintziatik heldu zirenak zokor-mazo deitutakoak ziren besteak hirikoak ziren. Lehenbiziko egunetan batzuek zokor-mazoan behe-mailan etsitzen zuten. Eginahalak egiten zituzten hirikoen artean Salernokoen artean lagunak egiteko alegia haien estimua irabazten saiatzen ziren. Izozkiak eta goxokiak emanez idazluma edo koadernoak utziz.

Pontecagnanoko adiskide batek eta biok nahiago izan genuen problemari zuzen-zuzenean heldu. Bitan pentsatu gabe joka hasi ginen Salernokoen kontra. Eta joka borrokan hain xuxen irabazi genuen mutil haien errespetua. Maiz eskolatik ateratzean liskar eta borrokaldi izugarriak izaten ziren. Hala izan zen lanbide eskolako lehenbiziko urte guzti-guztian. Gero bigarren urtean eta hirugarrenean bestelakoa izan zen kontua. Ika-mikak ez ziren zakor-mazo edo artaburuaren eta hirikoen artekoak baizik eta argi-itturrien eta ergelen

artekoak. Ergelei adarra jotzen genien merienda eta dirua kentzen genien.

Orduan ohartu ginen zer zen hiria. Zer egiten den nolako aldea dagoen herriaren bizimoduaren eta hiriko bizimoduaren artean. Salgaiz betetako erakusleihu haiek guztiak ikusten nituen. Galtzak poltsak zapatak altzariak irriatiak. Jateko gauza gehiago ikusten nituen elikagaien dendetan. Kioskoetan aldizkariak ikusten nituen eta haien azalean emakumeak. Herrira itzultzen nintzenean berriz oinetarainoko gonak janzten zituzten emakumeak. Hain emakume desberdinak eta haien adierazpenak ikusten nituen hirian aldizkariaren azalean. Halako emakumeak kalean ere ikusten nituen zinemara bidean ikusten nituen. Gauza berriak ziren denak eta nire fantasia pizten zuten. Zerbait uleretzen hasia nintzen hala iruditzen zitzaidan. Eta orduan segituan gauza funtsezko batez jabetu nintzen. Ongi janzteko ongi jateko ongi bizitzeko dirua behar zela.

Hirian ikusten nituen gauza horiek guztiak prezio bat zuten jarria. Egunkaria izan edo haragia izan edo zapatak izan den-denak prezio bat zuen jarria. Ez zen arboletan zegoen fruta guk herrian arratsean hartzen genuena bezala. Ez zen guk errekan harrapatzen genituen arrainak bezala. Ez zen amek ematen zizkiguten arropak bezala beraiek eginak edo batek daki nondik heldu zirenak. Galtzak edo zapatak zer koloretakoak ziren ere jakin gabe janzten genituenak bost axola baitzitzaigun. Sekulako aldea zegoen nekazari giroko herrian ordura arte familiak emandako hezkuntzaren eta hiriko giro horren artean.

Orduan jabetu nintzen diruaren garrantziaz eta igandean etxean diru gehiago eskatzen hasi. Baina gurasoek kabendio ezin zidaten eman. Ehun ehun eta berrogeita hamar lira ematen zidaten asterako. Ask

zen egia esan etxean ez zegoen dirurik. Gero beste gauza bati erreparatu nion. Ikasten jarraitu ez zuten nire adiskide guztiak ikusten nituen. Ez ziren joaten alorrera tomateak landatzera. Nik txikitatik ohitura hori ikusia bainuen beti. Ikusten nuen ni eskolara joanez ohiturak hautsi nituen bezala haiek ere hautsi zituztela beste modu batean. Alorretara joan beharrean obretan egiten zuten lan. Eta bi hilabetea gehiago irabazten zuten beren gurasoek urte guztiko uztarekin baino.

Gurasoek baino diru gehiago irabazten zuten eta galtza jeanak janzten zituzten. Orduan galtza jeanak zeuden puri-purian. *Pobreak baina ederrak* eta halako filmak ikusten ziren garaia zen. Gu ordea eskolara joaten ginenok ez genuen mila edo hiru mila lira galtza jeanak erosteko. Ikusten nuen haiek jeanak zituztela ikusten nuen jertseak zituztela. Baina ez Irpiniako artzainen jertse haiek eskuz eginak baizik eta dendako jertse bat kolore guztietakoak zeuden. Gainera diskoak erosten zituzten disko-jogailuak. *Rock and rolla rhythm and bluesa* hori guztia. Orduan gauza horiek dantzatzen hasiak ziren Amerikako estiloan.

Gero eta diru gehiago behar zen ordea. Bakarren batek Lambretta bat erosteko asmoa zuen. Ohiz kanpoko gauzak ziren erabat hausten zituzten herrietako ohiturak. Han lur-jabeek zalgurdia zuten kalesa zuten igandean ateratzeko edo hirira joateko. Edo bizikleta bat beti beltza eskuleku altukoa. Eta orain tomate-biltzaileen semeek Lambretta bat eta halako gauzak erosten zituzten.

Ni orduan hasi nintzaion amari esaka Aizu nik ez dut berriz joan nahi eskolara. Galtza jeanak nahi baititut zinemara joan nahi dut pizza jan nahi dut etxetik kanpora. Atera nahi dut eta dirua behar da horretarako. Zer egingen dut bestela. Ikasi bai baina gero etxetik

atera gabe gelditu behar dut gauza guztien inbidiatan. Eta ez da batere polita guztiaren irrikaz bizitzea. Orduantxe nahi nuen dena berehala. Neskatan hasten den adina nuen eta igandero dantzaldia antolatzen genuen. Eskaera horri amak honela erantzun zion Aizak gauza bat esanen diat. Hi gehiago haiz eskolara joaten haizelako ikasten ari haizelako. Baina nik ez nuen sentitzen gehiago izate hori sekula ez nuen sentitu.

Gehiago izate hori nik gauzen arabera neurtzen nuen. Galtza jeanak jertsea disko-jogailua eta kitto. Ez nuen neurtzen eskolan erakusten zizkidaten ergelkerien arabera. Zeren begira ergelkeria horiek ez zidaten inola ere balio dantza egiteko ateratzeko pizza jateko. Horregatik ez nuen ulertzen amak esaten zidana ni gehiago nintzelako kontua. Iruditzen zitzaidan ez zela egia inondik inora.

Eta gero behin berriz mintzatu ginen hartaz aita ere bertan zela. Gure aitak duda pixka bat egin zuen. Hark uste zuen ni eskolara bidalita berea baino bizi-modu hobea izanen nuela. Baina ikusita ordurako ni ez nintzela mutiko bat gazte bat bihurtzen ari nintzela premia batzuk nituela ba zalantzan zen ulertzen zituen gauza horiek. Baina ohartu hadi lana gauza makurra duk esan zidan. Goizean goiz jaiki behar duk kasu egin behar diok beti nagusiari. Lanik ez baduk ez duk zer janik lana baduk lehertu egiten haiz. Lana ez duk sekula ona. Hiri lana gauza ederra iruditzen zaik hari esker pizza jaten ahal dualako dantzara joaten ahal haizelako zinemara joaten haizelako. Baina familia bat izaten dualarik lan horrekin ez duk modurik izanen pizza jateko ez duk modurik izanen dantzara joateko. Familiari jatera eman beharko diok eta orduan ikusiko duk lana gauza makurra dela txarra.

Horregatik bitan pentsatu behar duk. Nik ez diat esaten eskolara joateko edo lanera joateko. Gauza bakarra esaten diat. Lana txarra duk saiatu lanik ez egitera. Lanik ez egiteko modu bat dela uste dudalakoz bidaltzen haut eskolara. Lana txarra zelako arrazoibidea gehiago sinesten nuen amak esandakoa baino hau da ni gehiago nintzelakoa. Eta pentsatzen hasia naiz ez zela egia nire lagunek pentsatutakoa ere hau da obretara lanera joandakoek uste zutena. Hau da lanak dirua zekarrela. Eta beraz lanak zoriona zekarrela. Eta zalantzan jartzen hasi nintzen izana nuen irudipena alegia obra batera joatea zela zorionaren iturria.

Aitaren ikuspegia lanaren gainekoa eta bere bizitzaren gainekoa honako hau esan balit bezala izan zen Ikusten duk familia hau ikusten nauk ni ikusten duk heure burua? Familia zoriontsua al da hau hi hire ama eta hire arrebak? Pobre gaixo errukarriak gaituk ez gaituk besterik. Orduan ohartu nintzen lana kaka zahar galanta zela eta ez besterik. Gure familian ez bainuen ikusten ez galtza jeanik ez jertserik ez disko-jogailurik. Aitak esaten zuen Hona hemen familia bat eta lana ere badiagu. Ez al dut nik lanik egiten? Eta ikusten duk zertarako balio didan.

Lanean hasi nahi nuen eta hara non zalantza sartu zitzaidan. Eskolara joan edo lanera joan? Lanari esker disko-jogailua eta jertsea erdietsi baina gero aitaren atarmentua izan? Edo eskolara joan ea deskuiduan gero zoriontsua naizen? Alegia bestelako bizimodua izan eta ez orain dudana eta nire aitak eta amak eta arrebek dutena. Horrek bultzatuta jarraitu nuen eskolan. Lanbide eskolara joaten nintzen merkeagoak zirelako matrikulak eta liburuak. Eta ikasi beharrekoa arinagoa zelako edo deusik ez zelako ikasi behar.

Hiru urteko modulu bat egin nuen autoen elektrizitatekoa. Erabat zentzugabea lanbide hori tailerlean ikasten baita. Ume ttikiak ikasten dute lanparatxoak jarriz eta kenduz delkoa jarriz eta. Auto mota guztiak ezagutu behar dituzu. Guk berriz den-dena liburuetatik ikasten genuen. Ez genituen sekula ikusten delkoen bateria motak. Gauza abstraktuak ikasten genituen titulua lortzeko balio zigutenak. Gero ohartzen zinen lanparatxo bat erretzen bazen autoen elektrizitateko tailer bateko hamabi urteko mutiko batek bazekiela aldatzen. Eta zuk ez zenekien.

Lanbide heziketako institutu haiek eskolazain zuzendari irakasle langabeei lanpostua emateko baizik ez zuten balio. Eskolak hartzeko baizik ez ziguten balio dirua gastatzeko liburutan, koadernotan eta otordutan. Eta eutsi ezin genien gastuak ziren guretzat. Han gauza bakar batek balio zuen jakiteak ongi hitz egiten delkoaren bateriaz dinamoaz abiarazteko motorraz. Horietaz ongi hitz egiten bazenuen buruz baldin bazenekien liburuak zioena orduan aski zen azterketak gainditzeko. Baina ordurako denak sinetsiak zeuden eskola ziztrin hark ez zuela pitorik balio. Horretaz irakasle batekin mintzatuz gero ezetz zioen jakina.

Ez ba esaten zuen tailerretako langileak ezjakinak dira. Gauza arruntak egiten besterik ez dakiten mutilak dira. Egin egiten dituzte baina ez dute ulerzen zergatik. Zuek ordea badakizue zer den korrante elektrikoa nola sortzen den nola mugitzen den. Hori gehiago da besteen gainetik zaudete. Gero zuek nagusi izanen zarete industrietan. Nagusi bihurtuko ginela esatea ere. Gu guztiak nagusiak berrogeita hamar edo hirurogei izanda? Eta gainera Italian lanbide eskola mordoia zegoen eta urtero-urtero milaka nagusi ate-

ratzen zituztenak lan merkatura. Baina zenbat nagusi behar dira ba Italiako industrian?

Noizbait ere bukatu nuen zerbaiterako balio zuen deusik ere ikasten ez zen eskola hartako garaia. Irakasleak ere ohartzen ziren horretaz pentsa azterketak ez zituen ikasle bakar batek ere suspenditu. Eskolaldia bukatu lan bila hasi ginen denak. Fiatera jotzen genuen. Tailer mekanikoa zuten Fiaterko kontzesionarioetara. Bertara joaten ginen hitz egitera. Zer zara? Autoen elektrikaria. Aritu zara inoiz lan horretan? Ez baina eskolan ikasi dut lanbidea. Ez gintuzten sekula kontratatzen. OMra joan ginen Autobianchira Alfara Lanciara. Ez ziguten lanik ematen ez gintuzten behar. Beren mutil gazteak behar zituzten alegia guztia han bertan ikasten zutenak eta dena egiten zekitenak. Hortaz gutako bakoitzak bere bidea hartu eta ez genuen beste behin elkar ikusi. Ez dut uste sekula haietako inork egin izanen duenik autoen elektrikari lanik edo tailerreko nagusi izan.

Ni uda hartan tomate fabriketara joan nintzen lanera. Egunean hamabi ordu egiten nituen baita igandean ere. Bi hilabetez aritu nintzen lanean eta ia berrehun eta berrogeita hamar mila lira irabazi nituen. Eta diru harekin beroki bat erosi nuen eta negu guztia pasatzeko arropa. Ez zen aski ordea. Baina ez nintzen joan obretara hiru urte lehenago nik pentsatu bezala. Ikusten bainuen obretara joandakoek hemezortzi hemeretzi urte zituztela orain. Lambretta lortu bai baina hortxe gelditu ziren. Gainera Lambretta aberiatu egiten zen. Eta dirua behar konpontzeko. Baita isunetarako eta gasolinarako ere. Eta ezkongaietako problemak eta ezkontzakoak hasten ziren. Diruketa behar zen.

Problema sail bat sortzen zen. Eta haiek ez zuten orain gogoan dantza egitea edo galtza jeanak. Horiek

bigarren mailako gauzak bihurtzen hasiak ziren. Eta gainera batzuetan lanetik botatzen zituzten. Lana gogorra bilakatzen hasi zen. Jendea destajuan hasten zen lanean. Eta gainera orain denak zeuden diru gosez. Ez zen salbuespen bat pribilegio bat lau edo bost urte lehenago bezala. Premia bat zen berdin bilakatua zen denontzat dirua irabazi behar hori.

Tema bat zuen jende guztiak. Nolatan zu eskolan ibili eta gero orain obrero lanean hasi? Eta horrela ezin lan egin. Ohore kontu hutsa zen zenbait lanetara ez joatea ikasle izandakoa bazinen. Orduan gurasoak niri jana eta loa eta dirua ematen saiatzen ziren nik obretara joan beharrik izan ez nezan. Eta tomate-fabriketan lan egiten nuenean eginahalak egiten zituzten nik ere eginahalak egiten nituen inork jakin ez zezan.

Eta urte haietan industrializazioa hasi zen. Hegoaldearen garapenaren garaia. Neurri handi batean ebitatu nahi baitzuten langile horiek tomate-biltzaille horiek protestan hastea bizitzeko adina irabazten ez zutelako. Orduan industria batzuk jarri zituzten. Soldata baxuak ematen ahal zituzten ez zegoen sindikaturik. Eta horrela batzuei fabriketan lan egiteko aukera eman zieten. Ez gehiegiri ordea gehientsuenek Iparraldera joan behar baitzuten emigratu behar baitzuten. Eta diru pixka bat mugitzen hasi zen.

Autoak ikusten ziren hozkailuak telebistak ikusten hasi ziren etxeetan. Ni ere fabrikara joan nintzen lanera estreinako aldiz. Ideal Standardera joan nintzen. Eta han jabetu nintzen aitak esana zidana egia zela. Hau da lana neke-iturria besterik ez zela. Nekea lana kitto. Handik laster Ideal Standardetik bidali ninduten. Eta orduan Hegoaldeko guztioi batera proposatzen ari zitzaigun irtenbidea ibili nuen buruan. Hau da emigraztea Milanera joatea. Ni ere Iparraldera joatea denak

batera hara abiatzen hasiak baitziren. Trenak bete-bete eginak Apeninoetako barnealdeko herriak oso-osoak eramaten ari zirenak.

Ez zen hura ni Iparraldera nindoan lehenbiziko aldia. Lehenago ere behin egona nintzen lanbide eskolan bukatu eta gero Bresciara Ideal Standardera joan baino lehen. Hilabete bat eman nuen Turinen. Han bizi zen nire arreba ezkondua eta urtero itzultzen zen udako oporretan autoan. Ni burutik nahasi ninduen zabaldi horrek lan horrek pentsamolde horrek. Eta arrapaladan itzuli nintzen handik itsaso ondoan egotera nire adiskideekin egonean egoteko deusik egin gabe. Nire arreba ezkonduaren etxera joana nintzen Turinera eta ikusi nuen gure Salernoko etxea baino txarragoko batean bizi zela han. Beheko solairuko etxe batean. Gela bat besterik ez zen eta han egiten zuten lo han otorduak eta dena. Baina ergelontziak autoan etortzen ziren etxera.

Ni trenean joana nintzen Iparraldera. Jendez gainezka zegoen tren bat eta hogeita hamar kilometro eskas eginda handik jaitsi nahi nuen. Zutik egin nuen bidaiia guztia. Jende mozkortua ogi puskak jaten han korridorean. Ume ttikiak negarrez eta kaka egiten. Maletak paketeak kaxak nonahi. Izugarria eta haiek denek ordurako hamar ordu zeramatzaten bidaiari. Ni orduantxe nintzen Salernotik aterea eta haiek Siziliatik heldu ziren. Goiz-goizetik zeuden han hamar ordu zeramatzaten han. Haserre bizian zihoazen. Apirila zen. Udaberrian emigratzea zen ohitura jende guztiak dakielako han lehenago Iparraldean hotz egiten duela. Horregatik jendea beti udaberrian joaten da.

Turinen metalen leuntzaile nengoen. Alegia Fiat-ek ez ditu egiten pieza guztiak osagarri guztiak. Are gehiago ez du egiten bakar bat ere. Adibidez 500aren

600aren eskulekuak aluminiozkoak eta aluminiozko gauza guztiak. Horiek galdategietan egiten dira eta gero haiek azpikontratatu egiten dute piezen leunketa eta akabera. Galdetegieta bixar batzuekin ateratzen dira piezak bixarrak inguru guztian. Bixarrak kendu behar zaizkie gero beste esmeril batekin leuntzeko. Esmeril batek bixarrak kentzen dizkie eta beste batek leundu egiten ditu. Altzairuzko sare eta hariekin. Eskulekua pasatu eta distiratsu gelditzen da leun-leun. Hura nuen lana. Metalen leuntzailearen kalifikazioa eman zidaten.

Baina egunean bi mila pieza egin behar nituen. Ez nuen astirik sudurra zintzatzeko ere. Beti zikin nengo zoldazu. Metalen leuntzailea nintzen ordea. Dena dela niri ez zitzaidan gustatzen metalen leuntzailea izatea eta handik hilabetera ospa egin nuen handik. Gero udaberrian gastatuko nuen dirua irabazi nuen. Baina Iparraldera nindoan bigarren aldi honetan beste modu batean nindoan. Garbi ohartzen nintzen ez zela egia Hegoaldean bizitzeko diru gutxiago behar zela dena merkeagoa zela. Ordurako denok erabiltzen genituen gauzak telebista edo haragi potoa berdin kostatzen ziren Salernon eta Turinen. Eta gasolina berdin kostatzen zen berdin kostatzen zen Lambretta berdin kostatzen zen trena.

Hemen Hegoaldean behar ziren gauzak ez ziren merkeagoak. Bai bost edo sei urte lehenagora arte baratxuriak tipulak oiloak fruta zuzenean hartzen ahal zenituen zuk zerorrek. Alor batera sartu eta hartu egiten zenuen fruta albahaka tipulak. Baina gero baratze eta alorrek hesitu egin zituzten zorrotz zainduak eta guardiak barrenean. Frutaren merkatariek saldu egiten zuten fruta hori. Laburbilduz kartzela-zuloan bukatzen zenuen lapurtuz gero. Eta gainera jendea lotsatu egiten zen pobrea zela erakusteagatik. Eta horrela lehena-

go inola ere erosiko ez zenuen fruta edo barazkiak erosi egin behar zenituen. Beharbada Turinen edo Milanen baino gutxiago kostatzen zen. Baina hemen ez zegoen dirurik. Askoz diru gutxiago zegoen. Eta nik Iparraldera joateko erabakia hartua nuen han dezente gehiago irabazten zelako.

Ezagutzen nituen familia batzuk bizi ziren han. Familia oso-osoak joanak ziren. Gure etxeko atearen ondo-ondoko familia bat. Denak joanak ziren. Aita tomate-biltzaile izana da. Versecara eramaten zituen tomateak hots Sele ibaiaren ordokiko eskualde batera. Seme-alabak Angelo Rocco Andrea Armando Carmine Giovanni zituen. Denak anai-arrebak denak aitarekin batera tomateetara. Denak kanaberak prestatzen denak lokarriak prestatzen. Hau da isats-adaxkak tomate-landareak kanaberetara lotzeko landareari igozen laguntzeko.

Bestalde bazegoen beste ohitura bat tomateak erditik moztea eguzkitan paratu eta idortzen uztea. Gero kobrezko zetabe batetik pasarazi eta saltsa ateratzen zen alegia kontzentratua. Saltsa egiteko modu zahar bat. Gero buztinezko ontzietan sartzen zen gainean piko-hosto bat jarrita. Horrela egiten zen tomate saltsa gero botilatu ere egiten zen. Denek botilatzen zuten tomatea. Eguerdian tomate entsalada jaten zen. Arratsean tomate entsalada. Goizean tomate entsalada. Ardoa eta ogi gogorra hemen egiten den ogia xerratan.

Gure aita berriz sasoikako langilea zen. Kanaberak egiten zituen, ordokian. Hau da bazter utzietako kanaberak moztu eta gero saldu egiten zituen. Berrehun hirurehun kanabera-sorta egiteko astebeteko lana behar zuen eta hogeita hamar mila liraren truke saltzen zizkien makarroien fabrikei. Makarroien fabrikak kanaberen gainean jartzen baitzituzten makarroiak

lehortzeko. Antzinako ogibide bat desagertu dena hori ere. Gure aitak hori ere egiten zuen tarteka. Peoi lana ere bai igeltseroentzat. Edozein lanbidetan moldatzen zen ongi. Askotan orgazain aritzen zen zaldi bat eta orga bat baitzituen. Edozertan moldatzen zen ongi baina ez zen inondik inora jornalari ibiliko ez zen tomate-biltzaile ibiliko. Parte txarreko ogibidea baitzen.

Nik noizbehinka auzokideen familia horri laguntzen nion tomateetan. Eta amak esaten zidan Ez joan haiekin. Zer dela-eta nahasi tomate-biltzaileekin? Familia hori orain dena alde egina da baina ez zuten denek batera emigratu kolpean. Lehenbizi bigarren anaia joan zen Andrea familiako ardi beltza. Lanari iskintxo egiten dioten horietakoa zen alorretara joan da beti itzalean jartzen zirenetakoa. Lana gorrotatzen zutenetakoa. Analfabetoa zen ez zuen joan nahi izan eskolara ere. Soldaduska egitera joan eta gero ez zen sekula itzuli Hegoaldera.

Noizean behin gutun bat bidaltzen zuen. Eta gero hona etorri zen herrira dotore apain-apain eta diruz josia. Loreak saltzen omen zituen han goian Iparraldean jendeak loreak erosten zituelako. Jendeak loreak erostea txoroen gauza iruditzen zitzaigun guri. Loreak saltzen omen zituen Santu Guztien Egunean hirurogeita hamar laurogei mila lirako kutxa egiten zuen. Ez sinestekoa iruditzen zitzaigun. Orain nonbait loradenda bat jartzen saiatzen ari zen. Orain gidabaimena ateratzen ari zen furgoneta bat erosi nahi zuen San Remon loreak hartu eta Milanera garraiatzeko. Eta gauza horiek atso ipuinak iruditzen zitzaizkien anai-arrebei auzokoei adiskideei.

Guri ere kontaktzen zizkigun gauza horiek arratsean etxearen pareko parrapean esertzeko ohitura baikenuen.

Orain ordea espaloia egin dute eta ez da belarrik ere hazten. Baina orduan han solasean aritzen ginen gogoetan. Eta Andreak Iparraldean zituen asmoak kontatzen zituen. Horrela bada Andrea joan eta handik hiruzpalau urtera familia ikustera bizpahiru aldiz etorri eta gero beste anaia bat joan zen Rocco. Rocco hau herriko gazte ezagunenetakoa zen. Nagusiak pikutara bidaltzen zituen horietakoa. Nagusiei ez zitzaien gustatzen arropa berria janzten zuen jende suertea. Garai hartan traje berria erosten bazenuen nagusiek lur-jabeek begitan hartzen zintuzten. Gaizki esaka ari ziren hartaz traje berria egina zuelako.

Rocco nardatua zegoen aitaren ondoan bizimodu hori egiten alorretan. Eta hortaz alde egin zuen berak ere Milanera. Hara joan zen metroa egiten ari baitziren hondeamakina batekin hasi zen lanean. Noiz edo noiz hark ere idazten zuen. Kanpoan zen baten gutunak ailegatzen zirenean garai batean gutunak familian irakurtzen ziren. Gero hura ezagutzen zuten auzokideen familia guztiei ematen zitzairen irakur zezaten. Herriko gertakari bihurtzen zen gutuna Halakok idatzi du. Zer dio. Zer berri. Gauza jakina zen postaria iritsia zela gutun bat eramatera Nork idatzi du. Zure semeak. Zer dio. Zer berri dago.

Gaur egun ez bezala ez baitzegoen telebista edo zinema edo egunkaria. Egunkaria eta berri guztiak. Antzina gutunak kontu ezin inportanteagoa ziren berriak eramateko eta jasotzeko. Eta gero astebetetz edo gehiagoz hitz egiten zen gutun hartaz. Gero beste bat ailegatzen zen eta halako bizimodua zegoen. Horrela nekien nik Rocco Milanen ari zela lanean hondeamakina batekin. Nahiz eta arrastorik ere ez nekien zer arraio izan ote zitekeen hondeamakina bat. Gauza zoragarria izan behar bai hondeamakina batekin lan egitea. Neka-

zari herri batean aitzurra eta idiak ez genuen besterik ezagutzen.

Roccok gutunean zioen egunean hamabi orduz egiten zuela lan. Baina horrek ez zuen inor harritzen nekazariak hamalau orduz edo gehiagoz aritzen zirelako lanak ez zuen ordu mugarik. Eta ez dakit zenbat irabazten zuten baina diruketa betiere. Aita nola ez poz-pozik zegoen. Roccok ondoko herri bateko andregai hartu zuen eta handik urte eta erdira ezkontzera etorri zen. Traje beltz bat jantzita etorri zen herrira atorra zuria gorbata beltza eta zapata beltzak. Ezin dotoreago ailegatu zen denak hari begira zeuden. Maleta batekin eta ez Iparraldera emigratzeko joaten ziren bezala hau da soka batez lotutako kaxa batekin. Eta bera bizi zen eta gu ere bizi ginen etxearen jabeak deitu zion. Eta esan Zer moduz dena zer berri. Zeharka begiratzon burutik hasi eta hanketaraino.

Gero arratsaldean etxejabe eta lur-jabe guztiek hartaz hitz egiten zuten bizarra egitera joaten zirenean bizartegira. Han herrian jornalari eta nekazari guztiek bizarra egiteko lehentasuna ematen zioten lur-jabe edo etxejabe bati bizartegira ailegatzen zenean. Eta bizargileak eskuoihal berri garbia hartzen zuen. Besteentzat ordea beti eskuoihal bera erabiltzen zuen egun guztirako. Biharamunean aldatzen zuen eskuoihala den-denak lurrez zikinak baitzeuden hagitz zoldazu. Lur-jabe edo etxejabeentzat ordea eskuoihal berria hartzen zuen aldiro. Eta harritzekoena zera zen lur-jabe eta etxejabeek ez zutela ordaindu ere egiten bizar-egitea eta besteek aldiz bai.

Jabeak hizketan aritzen ziren saloian Ikusi duzue Rocco itzuli duk. Itxura ona dik zergatik ez zarete zuek ere joaten. Eta jornalariak esaten zuten Bai zera han goian gaizki pasatzen da. Lainoa dago beti airea ez

da sanoa. Gu ez goaz ergelak joaten dira. Morroi horrek uste du jaun bat dela traje garbia janzte hutsagatik. Nagusien arrazoibide hori ez zuten jabeek egiten baizik eta besteek hau da bertan gelditzen zirenek. Jabeek sua kitzikatu besterik ez zuten egiten. Erne zeuden afera hori nola zegoen ikusteko. Ailegatu baitzen nekazari bat apain-apain beraiek ere ez zeukaten traje bat jantzirik. Horrek asaldatu egiten zituen pixka bat inkomodatu. Nagusi horiek gauza bat bakarra esaten zuten Mutil jatorra duk hau behar bezalako mutil bat. Horretan ez dago dudarik esaten zuten jornalariak.

Ezkontzarako Roccok traje bat eraman zuen bere aitarentzat baita amarentzat eta anai-arrebentzat ere. Den-denak arropa berriarekin eta herriko jende guztia arropa berria zeraman familiari begira. Arropa hori ez baitzen ikusten herrian ezta hirian ere. Eta ezteibazkarian zerbitzariak izan ziren. Eta postreak banatu zituzten xanpaina. Eta musika izan zen. Ezkontza gauza handia izan baita beti Hegoaldean helburu bat denentzat. Eta horregatik zorpetu ere egiten ziren ezkontzeko eta gero bitzta guztia ematen zuten zor hori kitatzen.

Gauzak okertuz joan ahala familia hark guztiak alde egin zuen banaka-banaka baita besteak ere. Anai-arreba guztiak joan ziren eta Roccok lana lortzen zien. Ongi moldatu ziren ezkondu ere bai eta hori dena. Harik eta azkenean den-denak joan ziren baita gurasoak ere. Familia askok egin zuten horrela baina nik familia hau gogoratzen dut hobekiena hurbiletik ezagutzen baintuen. Gure aldamenak ziren gure ondo-ondoan bizi baitziren. Eta orduan nik ere erabaki nuen Iparraldera joatea han dirua baitzegoen.

3

IPARRA

Nonahi ere handik Iparraldera joan nintzen Milanera. Milanen lehenbiziko gauza zera pentsatu nuen Roccoren gana joatea niretzat erreferentzia eta segurtasun puntu bat baitzen. Roccok nik baino hogeitun urte gehiago zituen. Oroitzen naiz ni oraindik ere ume bat nintzenez bera gizon bat zela ordurako. Zer esana franko ematen zuen gizon bat zen. Puta-seme galanta omen zen nagusien pare bizi nahi zuen morroi bat. Hutsaren hurrengoa izatetik gora joan eta airoso ateratakoa. Rocco etsenplu bat zen herri honetatik atera eta emigratu nahi zuten gazteentzat. Milan ondoko herri batean bizi zen Corsicon. Hark ni ikusi bezain laster galdetu zidan zer moduz zegoen gure ama nola zeuden gure arrebak. Hozkailua ireki eta bi edo hiru garagardo atera zituen. Galdera mordoa egin zidan poz-pezik zegoen ni ikusteagatik. Eta edatera gonbidatu ninduen.

Gero esan zion bere andreari Prestatu xerra batzuk. Galdetu zidan Hik asko edo gutxi jaten duk. Rocco sasoiko gizona zen eta jatea eta edatea gustatzen zitzaien. Nahi zuen guztia eduki nahi zuen eta lortua

zuen orain. Hegoaldean bizi zen garaiaz solasean hasi zen. Esan zuen Guk gorriak ikusi ditiagu Hegoaldean nagusiak ezjakin hutsak direlako denak. Uste ditek ez-dakit-zer direla lur pixka bat izate hutsagatik. Ez ditek entenditu guk langileok produzitzen dugula dena. Guregatik ez balitz gosez hilko zirela. Orain amorratuak zeudek denak miserable hutsak dituk ez baitiote herri xumeari onik egin nahi izan.

Halako arrazoibideak ematen zituen. Esaten zuen Hemen aldiz ni ailegatu nintzelarik nagusiak guri lagundu nahian ibili zituan. Lotarako etxola bat utzi zidatean loa eta lana ematen zidatean sosik pagatu gabe. Hondeamakina batekin egiten nian lan destajuan eta lan arau ordaintzen zidatean. Alegia hainbat egin hainbat kobratu. Hegoaldean berriz gehiago edo gutxiago egin beti haiek esaten zutena ematen ziaten sekula ez hekien zenbat zegokian. Mota guztietako alukeriak egin zizkigutek kabroi horiek. Hegoaldean herria inozoa duk ez dik deus entenditu. Hemen denak berdinak dituk nagusia eta langileak. Bazegok desberdintasun bat bai hark diru gehiago duela. Fabrikan bera dela buru berea duela fabrika.

Baina nik ere jaten diat eta etxea ere badiat. Begira etxe hau nirea duk badiat autoa badiat kamioia hondeamakina. Hau da azken finean ni ere nagusia nauk. Hemen denok gaituk nagusiak nor bere mailan. Gero bestetik bazegok deus ere ez duen langilea fabrikan lan egiten duena. Baina bere eskubideak ditik oporrak ditik gizarte segurantzaz eta gauza horiek guztiak. Laburbilduz hemen ez haiz gaizki egoten. Aski duk lana izatea lanpostu bat eta ongi egoten haiz. Orduan ez duk deusetaz ere kezkatu behar. Roccok Milanen eta Iparraldearen apologia hura guztia egiten zidan.

Han denbora puska batean aritu nintzen solasean Roccorekin gero Giovanniz galdetu nion hau da bere anaia gazteaz. Ni baino hiru urte gazteagoa zen adinkideak ginen ia. Hemen ondoko fabrika batean egiten dik lan oraindik ez duk atera zortziak aldean etorriko duk. Baina Giovanni alfer samarra duk zioen Roccok. Hire buru bera dik nonbait. Zuek mutil gazte guztiek buru berdina duzue. Hiru aldiz aldatu duk lanez. Ez dik ulertu hemen lanpostuan irau beharra dagoela. Hagoen lanpostuan hobera egitea bilatu behar duk. Hobera egiteko bidea ez duk inola ere lanpostuz aldatzea. Ni beti enpresa berean izan nauk eta orain neure kontura egiten diat lan. Neure kontura baina beti enpresa berarekin.

Orduan nik Nik lana behar dut edozer. Bizi ahal izateko lan bat. Orain ez dut buruan gora egitea eta hori guztia. Baina hik zer nahi huke dio berak zer gustatuko litzaiake. Langile ona izan behar duk diru asko irabazten saiatu. Eta ez ibili lanpostuz aldatzen bestela ez duk deus ere irabazten. Gero Giovanni ailegatu zen elkar agurtu genuen eta Fuorniz Salernoz Pontecagnanoz hitz egin. Ezagutzen genituen lagunez neskez-eta. Eta gero esan zidan Gaur hemen gelditu lotara. Bihar nirekin etorri lanera eta bilatuko diagu apopilo etxe bat edo zerbait.

Biharamunean Giovannik berekin eraman ninduen. Fabrika Zingoneko auzotik hurbil zegoen eta kontraxafatuak ekoizten zituen. Altzariei apaingarri gisara itsasten zaizkien xafla estanpatu horiek guztiak. Eskuz tailatuak ematen dutenak baina zur prentsatu besterik ez dena hau da zerrautsa eta kola. Zur egiazkoa ematen du baina kontraxafatua deitzen diote. Eskulan horretan hasi nintzen apopilo etxe batean nengoen beste bi etorkinekin batera. Herri hartan denak ginen

etorkinak. Herri hartan denak ziren etorkinak ez zegoen bat bakarra ere bertakoa. Han zegoen Iparraldeko jendea ere etorkina zen batzuk Bresciakoak beste batzuk Bergamokoak eta horrela.

Apopilo etxe hartan bazen gizon bat Lucakoa egunean hamabi ordu egiten zituena eraikuntzan. Gauaz berak prestatzen zuen bazkaria gehienez bostehun lira gastatzen zituen egunean eta irabazi berriz zazpi zortzi mila. Diru mordoa aurrezten zuen ez zen behin ere ateratzen arratsean edo parrandan. Hiruzpalau hilabeteren buruan morroi horrek sei edo zazpiehun mila lira zituen banketxean. Aurrezki libreta erakutsi zidan esan zidan autoa erosi behar zuela. Ni udaberria ailegaturik goizean lanera berandu joaten hasi nintzen goizero. Nazkatua nengoen Hegoaldera itzuli nahi nuen itsasoan bainatzera. Kalkulua egin nuen negu guztian lan egiteagatik hogeita hamar berrogei mila lira agian berrogeita hamar mila lira zegozkidala likidazioan. Gehi aurreabisuko zortzi egunak eta lan egindako astea guztira ehun mila lira zegozkidala lana uzten banuen. Eta horri esker Hegoaldera itzultzen ahal nintzela eta denbora puska batean han egon deus ere egin gabe.

Goizero lanera berandu ailegatzen hasi nintzen. Noizbait enpresan nitaz nazkatu eta mehatxu egin zidaten botako nindutela hurrengo egunean ere berandu ailegatzen banintzen. Ni berriz berandu joan eta bidali egin ninduten. Likidazioa ordaindu zidaten aurreabisuko zortzi egunak lan astea eta Hegoaldera joan nintzen itsasoan bainatzera. Gero uda ailegatu zen baina hila-bete bakar bat pasatu zenerako dirurik gabe nengoen. Apirilean jaitsi nintzen apiril bukaeran eta maiatzera-ko ez nuen sosik bat ere. Ekainean uztailean abuztuan eta irailean Hegoaldean gelditu nintzen oraindik. Lehe-

nago lan pixka bat egin nuen zura lantzen hilkutxak egiteko. Gero udako hilabeteak hondartzako sorosle lanetan eman nituen. Bestalde han badira bainuetxeak eta denboraldia hasi aurretik etxolak margotzen eta paratzen laguntzen ahal duzu. Gero denboraldia bukatu-rik eguzkitakoak jartzen egiten ahal duzu lan goizero hondartza garbitzen halako lanak.

Eta horrela pasatu nuen uda guztia. Gero uda bukatuta berriz Milanera joan nintzen. Oraingoan ordea ez nuen bat ere gogorik aldirietan bizitzeko. Aldirietan bizita are gastatzen nuen arratsero Milanera joaten bainintzen. Joan-etorriak zirela eta beste zenbait gauza zirela-eta askoz gehiago xahutzen nuen eta gero gainera ez nintzen batera dibertitzen aldirietan. Horregatik Milanera aldatzea erabaki nuen. Milanera ailegatu bezain laster maletak geltokian utzi eta lotarako pentsio bat bilatu nuen erdialdean. Pontaccio kalean aurkitu nuen Breran Solferino kaletik Fatebenefratelli kaletik hurbil zona horretan.

Han erdialdean nintzen. Jendea goizaldeko hirurak edo laurak arte egoten zen ostatu haietan laburbilduz arrunt dibertigarria zen. Bestalde han ostatu-etan ere bazkaltzen zen. Bazen ostatu bat Gran Bar zeritzana ongi bazkaltzen zen toki bat. Horrela nik Gran Barren pasta platerkada bat jaten nuen edo gazta freskoa edozer dirua jatetxe batean bazkaltzeko gas-tatu beharrean gero diru hori behar bainuen ostatuan gelditu ahal izateko. Zazpi zortziehun lira gastatzen nituen eta gau guztia ostatuan ematen nuen. Neska kat-xarroak joaten ziren eta han ibiltzen ziren. Maritxuak putazainak drogazaleak iruzurgileak zima-luzeak hau da sekulako giro ona.

Gero zerbait ikastea erabaki nuen. Nioen neu-re artean ikasi behar diat kabendio hemen lana zegok

eskolak zeudek. Eta ikasi nahi nuen kaskoan sartu zitzaidan ikasi nahi nuela marrazki-eskola batean ikasi nahi nuela. Castello Sforzescon gaueko arte-eskola bat zegoen. Izena ematera joan nintzen ehun eta berrogeita hamar lira kostatzen zen eskabidea. Azterketa egitera joan eta azterketak hiru egun iraun zuen. Prismak zeuden kuboak esferak eta halakoak. Marraztu egin behar zenituen eta gero haiek zure marrazkia aztertu eta nota bat jartzen zizuten.

Dena dela nota jartzeko beste gauza batzuk hartzen zituzten aintzat. Hau da galdetzen zizuten zer lan egiten ote zenuen Milanen familiarekin bizi ote zinen eta beste zenbait gauza. Eta egia esan marrazten ideiarik ere izan ez baina Milanen familiarekin bizi edo lanean ari zen jende gazte-gaztea hartu zuten. Ni berriz ez ninduten hartu lan finkorik ez bainuen uste zutelako ez nituela ikasketak bukatuko. Edo uste zutelako alferrikakoa zela nik ikastea edo halako zerbaitengatik. Alegia ez ninduten hartu baina ez arrazoi teknikoengatik marrazten ez jakiteagatik zeren ongi erakutsi nien banekiela marrazten. Beraz ikusirik ez nuela erdies ten eskolan hartzerik ere titulu bat eskuratzeko alegia prestakuntza izateko ba orduan erabaki nuen bizitzak gauza on bakar bat zuela denbora libre.

Esan nion neure buruari zer arraiotarako behar dut nik diploma bat? Ez zaidak batere interesatzen lanbide bat ikastea. Jakina diru pixka bat egiteko balio zidak bizimodu erosoagoa izateko. Baina bizimodu eroso zera duk gutxi nekatu ongi jan maiz larrutan aritu. Ederki egin nuen neure artean gauza horiek diplomarik gabe ere egiten ahal ditiat aski duk lana ahalik gutxiena edo bidea bilatuko diat dirua ahalik lasterrena eta modu errazenean irabazteko. Hortaz hori egitea erabaki nuen. Lan bat aurkitu nuen obra batean. Berandu

gabe nardatu egin nintzen mozkortu eta ez nintzen lanera joan arratsaldean. Orduan bidali egin ninduten eta denbora puska bat egon nintzen deus ere egin gabe.

Diru pixka bat nuen gorderik eta han barna ibiltzen nintzen. Ez Corsicon aurreko urtean bezala gauza zentzugabea baitzen astia Corsicon. Herrixka bat bi dantzaleku hiruzpalau zinema eta parrokiako zinema zituena. Ostatuan jendea kartetan jokatzera edo kirolaz hitz egitera elkartzen zen. Eta Hegoaldekoen alaba gazteek Hegoaldekoen ohiturari eusten zioten hau da elkarrekin paseoan ibili eta gero mutilak haien esperoan egoten ziren bazterreko tokiren batean eta beharbada larrua jotzen zieten zutik arbola baten ondoan. Baina ez zegoen bat ere harremanik jendearen artean. Dirurik baldin bazenuen ostatuan gastatzeko sekulakoa zinen tipo estimatua. Zenbat eta gehiago gastatu zenbat eta hobeki jantzi orduan eta adiskide gehiago zenituen. Gainerakoan bakar-bakarrik zeunden eta horrek sekulako nazka ematen zidan.

Herri ttar batean jaioa nintzen honentzat berriz hiria esperientzia aunitzetarako helmuga zen. Jende asko ikusten nuen ni nengoen pentsiora ailegatzen. Tabernariak ikasleak margolariak gizon aluak igeltseroak. Mota guztietako jendea arraza guztietakoa etortzen zen pentsio honetara. Gero ostatura jaitzita egunkarrietan ikusten zen jendearekin egiten nuen topo aktoreak kantariak kantari mordoak ibiltzen zen han. Gero fotoboleletakoak zeuden istorio ia pornografikoak egiten dituzten horiek Men edo Bolero aldizkarietakoak bezalakoak. Eta emakume asko eta aktore horietako asko Brera kalean ibiltzen ziren.

Pox probintziano samarra zen nirea hau da jende hori ondo-ondoan ikustea. A hemen bizi dira existitzen dira ni bezain ergelak dira. Eta nik tratua izan nahi

nuen halako jendearekin ergel haiek nolakoak ziren ikusteko. Han nintzen beti zain baina egia esan gero nahi baldin banuen larrua jo inguruan zebiltzan putengana joaten nintzen. Ez nuen sekula lortu ostatueta topatzen nituenekin larrua jotzea nahiz eta beti prest nengoen edozein motatako abentura bat izateko. Beti prest toki haietan ibiltzen nintzen harat-honat Gran Barren eta beste batean nola zuen izena a bai Giamai-ca. Eta bestalde mota guztietako ikasleak zeuden eta haiekin solasean eta eztabaidan aritzen nintzen.

Beste asko gehienbat margolariak zu izorratzen saiatzen ziren. Italiarrak izanagatik frantsesez edo ingelesez hasten ziren hizketan. Zeren ingelesa edo frantsesa ulertzen baldin bazenuen horrela erakusten zenuen munduan ibilia zinela ikasketak zenituela. Nabarmenez egiten zuten toki horietan frantsesa edo ingelesa erabiltzen zuten jendearekin ez nahasteko jakina nire moduko jendailarekin ez egoteko. Behin bai alemanez zekien nire lagun bat nirekin Alemanan¹ lan egindakoa eta biok mozkortuak ginen gau batean iskanbila pixka bat sortu genuen. Morroi bat gitarra jotzen ari zen eta gu alemanez kantatzen hasi ginen tira nire lagunak kantatzen zuen alemanez nik pixka bat izorratu besterik ez nuen egiten. Tipo bat ezagutu genuen eta proposatu zigun altzari-saltzaile ibiltzea edo tabakoaren kontrabandista. Bera arduratuko omen zen guzti-guztiz baina ergel totala zen. Tamalez nik ez nuen gidatzeko baimenik ez nekien gidatzen.

Beste gau batean emakume drogazale bat topatu nuen kaletik deika ari baitzitzaion bere lagun neska bati giltza eskatzeko lotara joan nahi baitzuen. Ni jaitsi nintzen neska drogatua zegoen ni hari musuka hasi

1 Alemanan. Italiako elikagaien sektoreko enpresa, gozogintzan espezializatua, egoitza nagusia Milanen duena [Ohar guztiak itzultzailearenak dira].

nintzen. Esan zuen hark: Baina zer nahi duk larrua jo nik ez diat gogorik. Hura oso mundu bitxia iruditzen zitzaidan baina bizimodu hori gustatzen zitzaidan batere harremanik izan gabe fabrikarekin nekazari-tzarekin erlijioarekin. Nik ezagutzen nuenaren aldean oso bestelako mundua eta gustukoa nuen. Eta ni prest nengoen edozein abenturatarako baina azkenean zinemara joaten bukatzen nuen. Edo pixka bat oilartzen nintzen hau da saiatzten nintzen kalean emakume atzerritarrekin ligatzen edo neskaren bat neureganatzen dantzalekuetan edo ostatueta.

Eskolara joate hori ere horretarako pentsatua nuen arte-eskolara joaten zen neskaren bat ezagutu eta harekin harremana egiteko. Jaurtitze base moduko zerbait bilatzen nuen zeren hirian bakarrik baldin bazaude ezin baituzu deus lortu ezin zara mugitu. Lagunarte bat izan behar duzu batik bat mugitzeko batez ere aberastu ahal izateko. Jende galdu asko zegoen Milanen probintziako neskak etxetik ihes egiten zutenak eta Milanera zihoazenak zima-luzeekin elkartu nahian. Behin batean neska horietako bat eramane nuen pentsiora baina etxejabeak mehatxu egin zidan bota egingen ninduela. Gero Alemagnan lortu nuen lana.

Gero neska bat ezagutu nuen fabrika batean lan egiten zuena bulegaria omen zena. Baina nik ez nuen deus nahi harekin ez baitzitzaidan gustatu ere egiten. Hegoaldean egon banintz kasu izpirik ez nion egingen. Milanen berriz neska tentel horiek gaizki ohituak zuden den-dena ordaindu behar zitzairen. Langile haiek soldatapeko haiek prostitutak balira bezala saltzen zuten beren burua. Eta garai hartan ni harekin egoten nintzen nork berea ordaintzen zuelako besteek ez bezala hark berea nik nirea ordaintzen genuelako. Ni

neska harekin ibiltzen nintzen eta bizileku nuen pentsiora eraman nuen. Baina etxejabeak biharamunean bota egin ninduen lehendik gaztigatua bainengoen ezin zela inor eraman. Ezin zen beste inor eraman bertara. Larrutan aritu nahi izatera hotel batera eraman behar zenuen ezin zenuen eraman pentsiora. Pentsioak lotarako baizik ez zuen balio. Eta horrela bota ninduten pentsiotik.

Banuen lagun bat mutil bat Alemagnan ezagututakoa eta haren etxera joan nintzen lotara. Ez nuen berriz lan egiteko gogorik nazkatua nengoen eta lagun-en etxeetara joaten nintzen bazkaltzera orain baten etxera gero beste baten etxera eta hola. Bisiten segida bat nuen antolatua. Lagun hauei grazia egiten nien lan gutxi egiten bainuen baina banuelako beti zertaz hitz egina. Eta horrela lortzen nuen zinemara joatea eta jatea. Arratsean neska horren bila joaten nintzen lanetik ateratzen zenean pizza bat jatera joaten ginen. Laburbilduz nola edo hala moldatzen nintzen aurrera ateratzeko. Eta gero ostatu horietan ibiltzen nintzen eta bilatzen nuen norbaitek proposatu ziezadan kontrabandoa egitea edo dirua irabazteko beste modu lasterren bat. Edo saiatzen nintzen emakumeren bat topatzen larrua jotzeko. Edozein abenturatarako nengoen prest.

Proposamen bakar bat ailegatu zitzaidan ingeniari batek egina Viareggion zuen yatearen zaintzailea izatea. Dena dela Milanen adiskide asko eginak nituen baita zor mordoa ere. Eta gainera orain bizi nintzen etxean nire lagun siziliarraren etxean haren emaztearen oso laguna egina nintzen. Eta amorrua ematen zidan nire laguna horretaz ohartu ahal izate hutsak eta Milanetik ospa egitea pentsatu nuen. Milanen mota guztietako lanak probatuak nituen normalean zamalanetan

aritzen nintzen. Bulego batera joan eta gero bizpahiru egunez aritzen nintzen lanean mota guztietako lanak eginarazten zizkidaten. Fiaten sartzeko eskabidea egin nuen Milandik joateko aukera izateko zeren gainera zozrez josia nengoen. Ezagutzen ninduten guztiak nitaz nekatzen hasiak ziren salbu eta Alemagnan lan egiten nuenean egin nuen adiskide hori.

Alemagnan hilabeteko kontratua egiten dizute edo bi edo lau hilabetekoa. Nik bi hilabeteko kontratua nuen eta azaroan hasia nintzen lanean. Sukaldariek janzen duten kapelu horietako bat eman ziguten bakoitzari baita mandar bat eta galtza pare bat ere. Uniforme aski higienikoa esan dezagun. Handik modu bitxi samarreen bota ninduten. Ni nintzen lanpostuan oreka egiten zen eta makina batzuek nahasten zuten. Orea ateratzen zenean plastikozko orgatxo batzuetara pasatzen zen konketa moduko ontzi handi batzuetara. Behin oreka ontzian zela guk irina botatzen genion gainetik eta harrotzen utzi. Lan arin samarra zen egia esan.

Egun batean pentsioan Diabolik irakurtzen ari nintzela ahantzi egin zitzaidan lanera joan behar nuela. Azkeneko momentuan etorri zitzaidan gogora ziztuan atera trena hartu baina berandu ailegatu nintzen. Berandu ailegatzen zarenean minutu pare bakar bat bada ere ordu erdiko isuna jartzen dizute hau da ez dizute ordaintzen ordu erdia eta orduan nik horregatik justu ordu erdia berandu sartzeari erabaki nuen. Kopatxo bat pattar hartzera joan nintzen lasai ederrean erantzi nuen arropa ongi kalkulatu ordu erdia baino minutu bat lehenago fitxatzeko. Azken batean bi minutu berandu edo ordu erdia berandu gauza bera zen.

Fitxatu behar den tokian bazen beirazko kaiola handi baten moduko zerbait eta han sekzio guztietako labeen lanparatxoak. Bizpahiru arduradun zeuden

eta Alemagnako zuzendaritzako kide bat nire sekzioko zuzendaria hain zuzen. Zuzendari horren paretik pasatzean esku-keinu bat egin zidan. Esan nion: Bai zer nahi duzu? Ongi jantzi kapela. Kapela altu hura zapal-zapal jantzia nuen artzain sardiniarren txanoen moduan. Pare pare nuen zuzendaria eta ni eskuak sakelan sartuta eta ordu erdia berandu. Horrek amorrarazi zuen pixka bat eta esan zidan: Mesedez ongi jantzi kapela. Ez eskerrik asko niretzat ongi dago horrela zergatik jantzi behar dut beste modu batean? Mesedez ongi jantzi. Eta aurrera jarraitu nuen. Gizon hura kaiola hartatik atera eta esan zidan: Zergatik etorri zara berandu? Ba ez naiz oroitzen zergatik etorri naizen berandu besterik gabe berandu etorri naiz. Arrazoi asko izan daitezke berandu etortzeko ez naiz oroitzen. Baina nola berandu etorri eta ez dakizu zergatik. Kontua da ahantzi zaidala etorri behar nuela lanera. Hara ahaztu zaizu etorri behar zenuela lanera. Hori larria da. Badakizu oraintxe bertan egun bateko zigorra jarriko dizut.

Esan nion: Adizu edo bota nazazu kalera edo lanera noa. Ordu erdi berandu joateagatik ez dagokit egun bateko zigorra eta ez dut onartzen. Horregatik edo bota nazazu ongi azalduta arrazoia edo lanera noa. Egund bateko zigor hori ez dagokit eta ez dut onartzen. Hark alde egin behar nuela esan nik hari ergela deitu eta lanera joan nintzen. Hark orduan guardiaburu bat bidali zuen izena nola nuen galdetzeraz gero bi guardiak non nintzen galdetu zuten. Esan nuen: hemen nago. Ohartarazi nien: Adizue bortxaz atera nahi banauzue hemendik hobe duzue ez saiatu ze nahiago dut kartzelan bukatu baina ni ez noa hemendik horrela. Lanetik bidali nahi banaute hilabeteko soldata ordaindu behar didate nik bi hilabeteko kontratua dut eta hilabete ba-

karra egin dut hau da beste hilabete bateko soldata dagokit.

Baina egun bakar bateko zigorra da zioten haiek. Ez dagokit egun bateko zigorra eta ez dut onartzen. Ederki esan zuten haiek segi nagusiaren bulegora hitz egitera. Ni hara joan sartu eseri nagusia ailegatu eta esan zidan: Zer ari zara hor eserita? E eserita nago zure zain nagoelako zer nahi didazu? Ospa egin behar duzu hemendik atera hemendik. Nik: Egon pixka batean. Hemen egun bateko zigorra jarri nahi didate baina ez dagokit. Ordu erdi berandu etorri naiz lehenbiziko aldiz eta ez dut uste ordu erdiko atzerapenagatik egun bateko zigorra merezi dudanik.

Ez ez esan zuen ez da horregatik zuzendariari ergela deitu diozulako da. Baina ez daiteke nik ez diot ergela deitu dudarik gabe gaizki ulertu dit. Zer kulpaa dut nik baldin eta zuzendaria gorra bada eta gaizki ulertzen badu esaten diotena. Besterik gabe esan diot lanera nindoala eta ez nuela etxera joan behar. Tira baina joan behar duzu esan zuen nagusiak. Eta joaten ez bazara poliziarri deituko diot. Ederki oso ongi deitu poliziarri. Nahiago dut kartzelara joan baina ez dizuet emanen ez dagokidan zigor bat onartzeko poza ez baitago horretarako motiborik. Botatzen banauzue hilabete bateko soldata ordaindu behar didazue gehi aurreabisuko zortzi egun. A hori ikusteko dago. Bai ikusiko da.

Hark telefonoz deitu ni beste bulego batera bidali han dokumentu batzuk prestatu zizkidaten historia laborala eta nik sinatu beharreko deklarazio bat zera zioena nik uzten nuela lana eta beste zenbait kontu. Sinatzeko esan ziaten. Nik: Ez dut deus sinatuko lehenbizi dirua ikusi nahi dut gero sinatuko dut. Haiek orduan: Begira ez egin argi-itturriarena gaizki bukatu-

ko duzu eta. Egiatan kartzelan bukatuko duzu eta lira bakar bat ere jaso gabe. Nik: Adizue nik erabakiko ditut nire gauzak. Ongi jabetua naiz zer den bizitza zer den lana eta ez zait inporta kartzela-zuloan bukatuta ere.

Nik ordea ongi aztertua nuen dena. Ezin ninduten atxilotu halako gauza batengatik. Alemagnak ezin zuen itxura penagarri hori eman eta halako gertakari batengatik egunkarietan azaltzeko arriskua hartu. Langile bat atxilotua egun bateko zigorra onartzen ez duelako. Eta ezin zietenez aurre egin saltsa eta kaka-nahaste horiei guztiei ni aski seguru nengoen ez nindutela zuloan sartuko eta jasoko nuela zegokidan diru guztia. Ergel hori esan eta esan ari zen temosotemoso noiz mehatxuka noiz aitaren plantak egiten: Baina hi nongoa haiz? Salernokoa. Hara ni ere Salernotik hurbilekoa nauk Avellinokoa. Herrikidearena egin nahi zuen aita balitz bezalako plantak egin. Tabakoa eskaintzen zidan eta gero segi eta segi. Baina hik sinatu horrela berriz aukera izanen duk berriz aurkezteko eta berriz hartuko haute Alemagnan. Bestela ez haute hemen beste inoiz berriz hartuko.

Esan nion nik: Trankil halako hainbeste lanpostu zeudek ez naik kezkatzen Alemagnan lanik ez izateak. Gainera lan egin behar diagu baina ez zioaigu inori utzi behar tontotzat har gaitzaten eta hemen tontotzat hartu nahi naitek. Edo zuzendariak esaten didana egin behar dut hemen lana izateko? Ez zaidak batere interesatzen. Oker zegok zuzendaria eta niri ez zaidak komeni zigor hau onartzea. Orain kalera bota nahi naitek. Hainbat hobe hola ordaindu diezadatela hilabetea. Nagusia bulego guztietara deitzen hasi zen zer dakit nik administraziora giza baliabideen bulegora eta abarretara. Zuzendaritzakoek tinko jokatzeko esan zion: Ez amore eman mehatxatu ikusiko da gero. Hiru-

retan ailegatua nintzen ni eta ordurako zazpiak ziren lau ordu hantxe eztabaidan ika-mikan.

Bulegariak nerbioak airean zeuden. Ni ez nintzen mugitzen bulegotik eta nagusia han libretatxoa eta gutunak prestatu eta haiek kontuak egiten jarraitzen zuten zenbat eman behar zidaten kalkulatzeko. Eta ordu erditik behin etortzen ziren orri desberdin batekin eta aldiro zifra desberdina jarrita. Laurogei mila. Eta laurogei mila zer dira nioen nik. Zera dira hilabetea egiteko falta zaizuna gehi aurreabisuko zortzi egunak. Eta zer ikusteko du horrek niri beste hilabete bat ere ordaindu behar didazue hau da beste laurogei mila aurreko hilabetekoaz aparte eta aurreabisuko zortzi egunez aparte. Horregatik askoz ere diru gehiago da ez laurogei mila lira bakarrik.

Liskar hura ez zen bukatzen bulegaria bere onetik atere zegoen: E atera ezazue hau hemendik hemen ezin da lanik egin. Esan nuen nik: Niri bost axola niregatik egizue greba ez baduzue lanik egin nahi. Niri bost nik nire dirua nahi dut. Nagusiak telefonoz deitu zuen berriz: Hemengo hau kaskagorra da ez du amore ematen bulegariak nazkatuak daude ez dute lanean segitu nahi. Dirua eman behar diogu bestela poliziar deituko diot nik ezin dut gehiago. Baina nola poliziar deitu? Bai poliziar deituko diot. Esaiozu berari erantzun zioten telefonoaren beste aldetik nik dena aditzen bainuen han pare-parean nintzelako.

Beste behin hurbildu zitzaidan: Aizak dirua hartzen ez baduk hitz ematen diat benetan hitz ematen diat gure aitaren izenean gure seme-alaben izenean nire seme-alabenganako maitasunagatik nik poliziar deituko diodala. Ederki esan nion deitu poliziar horrela akabera emanen zioagu eztabaida honi. Aski duk hi adarra jotzen ari haiz zer arraio ari gaituk hi eta biok

eztabaidan. Esan diat nik dirua nahi dudala nik ez diat eztabaidatu nahi hirekin hi ari haiz nirekin eztabaidatu nahian. Horregatik ez haut nik hi haserrearazten hik haserrearazten nauk ni. Hark berriz telefonatu eta esan zuen: Adizu nik amore emanen dut. Enplegatuei diru guztia emateko esanen diet ezin dut gehiago. Ikaragarri kaskagogorra da eta ezin da ezer egin.

Ongi da egizue nahi duzuen aditu zen telefonoaren bestaldetik hark nire aurrean telefonatzen baitzuen. Gero esan zidan: Ongi zegok irabazi duk adizak. Harria baino gogorragoa haiz buruz zorionak lortu duk garaile atera haiz. Sina ezak hemen. Esan nuen: Egon pixka batean lehenbizi dirua ikusi nahi diat. Dirua ikusi gabe ez diat deus sinatuko. Enplegatuari gutunak libretatxoa eskatu zizkion eta kutxa-bulegora eraman ninduen. Han hilabetea egiteko falta zitzaidana eman zidaten laurogei mila lira egin gabeko hilabeteagatik eta aurreabisuko zortzi egunak. Nik dena sinatu eta ospa egin nuen Alemagnatik. Zuzendariaren ergelkeria harengatik lanik egin gabe hilabete bat ordaintzea lortu nuen.

Alemagnako hura Milanen fabrika batean egingadako bigarren lana izan zen. Eraikuntzan bi hilabete eta Alemagnan hilabete bat eginda azpienplegatu bihurtua nintzen. Han ziren zamaketari taldeetan aritzen nintzen lanean. Siemensera Sipera Standara edozein tokitara bidaltzen ahal zintuzten zamalanak egiteko. Halako langileen premia zuten industriek ere halako zamaketari taldeetara jotzen zuten zenbait lanetarako dena dela azken batean legezko azpikontratazio bat besterik ez zen.

Bolada batean halako lanak egin nituen. Zenbaitetan ordea ez nuen topatzen. Sakelan bat ere sosik ez nuen arte ez nintzen hasten lan bila diru bila eta

orduan batzuetan lanik ez lortzeko arriskuan ikusten nuen neure burua. Musu-huts nengoen batean bi mila lira besterik ez nuen batean lan bila hasi nintzen. Ostirala zen ez nuen deusik ere lortu. Larunbatean ez zaituzte hartzen astelehenean joan behar duzu berriz lana eskatzera. Beraz ostirala larunbata igandea eta astelehena eta mila lira baizik ez nuen. Noizbait ere ostiralean zerbait jan nuen eta larunbatean ez nuen hondarrik ere jan egun guztian. Igande goizean odola ematera joatea erabaki nuen.

Nire lagun batek esana zidan odola ematearen truke hiru mila eta bostehun lira jaso zituela. Orduan niri ere odola ematea bururatu zitzaidan horrela hiru mila eta bostehun lira lortzeko eta zerbait jateko. Kaputxino bat hartu nuen horrela presioa igotzen baitzitzaidan. Milanen zerbait hartu behar duzu zutik irauteko. San Babilan hartu nuen kaputxino bat Motta izeneko ostatuan hau da Vittorio Emanuele etorbidean San Babilaren eta arkupeen artean beti odol-transfusioetarako egoten den unitate ibiltariaren parean. Bertara igo eta atorra erantzi nuen.

Bularraldea aztertu eta auskultatu ninduten odol pixka bat atera zidaten behatz batetik. Erradiografia bat egin zidaten baita sifilia ba ote duzun jakiteko egiten den analisisia ere. Gero presioa neurtu eta hagitx baxua nuen. Galdetu zidaten zenbat urte nituen gaixotasunen bat izana ote nuen zer lan egiten nuen. Langabea naiz esan nuen. Ergel haiek zer gaixotasun nituen galdetzen zidaten galdetu ere egin gabe zerbait jana ote nuen halakorik ez zitzaien burutik pasatzen. Ikusi zuten hogeita bost urte nituela presio baxua nuela ez nuela lanik baina ez zitzaien bururatu ere egin goseturik egon nintekeela.

Ohatilan etzanarazi ninduten orratza sartu eta arras odol gutxi ateratzen zen. Egia esan hoditxoaren erdia ere ez zen bete eta gero ez zen gehiago ateratzen gatzatu egiten zen. Izutu ziren ikusi zuten ez zela odol gehiago ateratzen zeren jeneralean orratza sartzen denean odola ziztuan atera flaskotxora eta minutu eta erdi baino lehen bete egiten du. Hiru minutu ziren han nintzela eta flaskotxoaren erdia ere bete ez eta ez zen odol gehiago ateratzen. Haiek pixka bat izutu eta orduan nik esan nion doktoreari: Adizue diru premian nago eman mila lira gutxienez. Zergatik? Ez dut deus jan eta goseak nago. A ez duzu jan sentitzen dut. Baina kafea eta Buondí Motta pasteltxo batzuk ematen ahal dizkizugu.

Nik jakin banekien AVISen² odola ematen zela baina uste nuen nahi izatera ordaindu egiten zizutela. Zeren azken finean zuk salgai bat ematen zenien zer-bait bederen bazen. Doktoreak esan zidan: Ez hemen eman egiten da ez saldu. Esajeratua iruditzen zitzaidan nahitaez dohainik eman behar hori. Esan zidan: Har ezazu kafe pixka bat. Buondí Motta pasteltxoak berri ez nituen jan Alemagnan lan egina bainintzen eta gogoan bainuen nola egiten genituen han. Laburbilduz ez nien lege handirik nik Buondí Motta haiei.

Nolanahi ere Milanen gosea ere pasatu nuen bestetik zor mordoa nuen lagunekin bertakoekin. Eta gainera logela uzten zidan nire adiskide siziliarraren emaztearekin izandako istorioa zegoen. Horregatik Milanen gelditu nahi ez eta giroz aldatzea erabaki nuen. Fiaten sartzeko eskabidea egin nuen gero bertara joateko gutuna ailegatu zitzaidan eta Turinera joan nintzen. Askok esana zidaten Fiaten gustura egoten zela opo-

2 AVIS: Associazione Volontari Italiani del Sangue. Italiako Odol-emaile Boluntarioen Elkarte.

rrak ematen zituztela gauza pila bat zegoela. Niri hura ez zitzaidan hainbeste inporta kontua da Milanen lagun guztiekikoak eginak nituela erreak nituela aukera guztiak itxiak. Buruan nuen Fiatera joanez gero soldata bat irabaziz gero moldatuko nintzela eta gero ikusiko nuela zer egin.

Gainera Turinen banuen lo egiteko toki bat nire arrebaren etxea. Zuzenean Hegoaldetik etorritako beste migrante askok lagunen eta ahaideen etxeetan egiten zuten lo edo izaten zuten apopilo etxe edo ostatutxoren baten helbidea. Baina bestalde baziren gizagaixo batzuk ere hiruzpalau egunez edo beste batzuk baita hilabete oso batez Porta Nuovako tren-geltokiko bigarren mailako itxaron-gelan lo egindakoak. Eta gainera poliziak kontrolatzen zituen eta kazetariei ez zien uzten haiengana hurbiltzen. Gaua Porta Nuovako geltokiko bigarren mailako itxaron-gelan pasatzeko Fiaten txartela erakutsi behar zenuen baldin eta ordurako Fiaten lan egiten bazenuen edo azterketarako hitzordua bazenuen hau da Fiaten gutuna esaten zizuna osasun azterketara aurkezteko. Bestela poliziak ez zizun sartzen uzten Fiategen Turineko geltokian dohai-nik duen logela horretara.

4

FIAT

Fiaten lan egin baino lehen politikak niri bost axola. Gero Fiaten parean ikasleak ikusten nituen ate aurrean panfletoak banatzen. Ikasleak langileekin hitz egin nahian. Kontu bitxi samarra iruditzen zitzaidan. Nioen neure artean baina nolatan da posible? Zer ari dira hauek hemen denbora libre badute larrua jotzeko eta ongi pasatzeko? Fabrikara etorri? Ez dago gauza nazkagarriagorik. Ez dago fabrika baino gauza nazkagarriago eta absurdoagorik. Baina zertara etortzen dira fabrikaren parera? Jakin-min pixka bat pizten zidan horrek. Dena dela nirekiko pentsatzen nuen txoratuak zeudela misiolariak zirela eta ez besterik. Eta ez zitzaidan interesatzen zer esaten zuten.

Hura udaberrian izan zen. Apirilean. Behin ere joan gabea nintzen ikasleekiko bileretara. Behin maiztaren leheneko ospakizunera joan nintzen. Behin ere ez nion zentzurik aurkitu Langileen Eguneko jaiari. Langileen jai txantxetan ari gara? Langileen jaieguna langileak jai egiten. Ez zitzaidan kaskoan sartzen funtsean zer zen langileen jaieguna edo lanaren festa.

Ez zitzaidan behin ere kaskoan sartu zergatik ospatu behar ote zen lana. Azken finean lanik egiten ez nuen ez nekien zer arraio egin. Langile bat bainintzen hau da ia-ia egun guztia fabrikan ematen nuen morroi bat. Eta gainerakoan ezin nuen deusik ere egin hurrengo egunerako atseden hartu besterik. Jaiegun hartan aldiz hitzaldia aditzeko gogoia sartu zitzaidan ez dakit norena ez bainuen ezagutzen inortxo ere.

Eta gorbata gorriko jende hura guztia ikusi nuen. Eta banderak. Nik ordurako banekizkien gauzak aditzen nituen. Mundu honetakoa bainaiz. Eta banuen haien aditzea nahiz eta ez nituen ulertzen egia esan. Eta plazako ostatu dotoreen aurrean burgesia zegoen. Burges txikiak nekazariak merkatariak apezak diru-aurrezleak ikasleak intelektualak espekulatzailak enplegatuak eta beste zenbait ipurdi-miazkatzaile. Sindikatuen hitzak aditzera. Eta han plazaren erdian zeuden sindikatuen eta inguru guztian ostatuen aurrean zeuden burgesen artean langileen masa zegoen beste arraza bat balitz bezala. Eta burgesen eta langileen artean Fiaten automobilen erakusketa handia zegoen.

Festa bat hau da feria bat. Sindikalistei adi nengoen. Burkideok gauza hauek ez dira bakar-bakarrik gaur plazan esatekoak. Bihar ere esan eta egin behar ditugu fabriketan. Eta pentsatu nuen nik bai ederki arrazoi dik horretan. Alferrikakoa duk festa egitea istilua sortzea bakar-bakarrik plazan bandera gorriarekin egoteko baimena ematen digutenean. Hau fabrikan ere egin behar diagu.

Gero handik alde egin nuen nire kontuetara eta manifestazio bat ikusi nuen Mao Ze Dong Ho Chi Minh oihukatzen zuena. Esaten nion neure buruari nor ote dira horiek. Beste bandera gorri batzuk beste

kartel batzuk. Orduan ordea ez nekien zipitzik ere horretaz. Ilunpean bizi nintzen. Handik aste batzuetara han tokatu nintzen ikasleekiko bilera batean Mirafiori ondoko ostatu batean. Egun batzuk ziren fabrika nistilua sortzen hasia nintzela. Karrozerien 54. lantegian nintzen Fiat 500aren muntaketa-katean. Hilabete bat neraman han Fiatera sartzeko egin nuen azterketaren ondoren.

Azterketan bi mila pertsona geunden gutako baikoitzari zenbaki bat ematen ziguten eta galdera batzuk egiten zizkiguten zein baino zein ergelagoa. Galdera prefabrikatuak denei galdera berberak. Eta asko ginenez enplegatuek bizi-bizi egiten zituzten galderak. Aurpegira begiratu eta ta-ta galdera pare bat egiten ziguten. Guk erantzun eta haiek esaten zuten Segi ondoko gelara. Eta denak ondoko gelara. Ondoko gelan guardia batek zerrenda bat eskuan zuela hogeinaka deitzen zigun eta beste gela batera ginderamatzan eta han osasun azterketa egiten ziguten.

Lehenbiziko azterketa ikusmenarena izan zen. Begiratu hona itxi begia gora begiratu irakurri hau eta halako gauzak. Gero entzumena ea ongi aditzen genuen. Goratu eskuineko zangoa ezkerreko zangoa. Hortzak begiratzen zizkiguten sudurra begia belarria zintzurra. Eta azterketa bat zela eta bestea zela ordu biak ailegatu ziren. Ordu bietan esan ziguten bazkaltzera joaten ahal ginela. Lehenbiziko eguneko azterketara baraurik joan behar izan genuen. Deus ere jan gabe deus edan gabe. Odol analisisia egin behar baitziguten. Batzuek ordu bietarako egina zuten. Beste batzuek ere. Arratsaldean odol analisisia egitera itzuli behar zutenek ez zuten bazkaldurik ordu bietan. Eta baraurik zeuden aurreko gauaz geroztik.

Odola ateratzeko gelan sekulako kiratsa zegoen eta atetik ere sumatzen zen. Barrenean odolez betetako milaka flaskotxo bazter guztietan. Kotoizko mataza ttikiak odoleztatuak. Bazter batean metroko edo metro eta erdiko kotoi mukurua altu bat gorria odolez bete. Odola ateratzean min egiten ziguten ez zutelako batere begiratzen non sartzen zuten orratza. Edozein tokitan sartzen zuten orratza eta handik ateratzen zuten odola. Gero alde batean jartzen zuten flaskotxoa eta beste aldera mukurura botatzen zuten kotoi mataza gorritua.

Handik beste gela batera joan ginen eta han erizainak baso bat ematen zigun eskura. Bi komun besterik ez zeuden han barrenean pixa egiteko. Zirkulu bat egin genuen eta hantxe jarri ginen den-denak nork bere basoan pixa egitera. Garagardoa egiten ari ginela esan eta irriz hasten ginen. Gero basoa han goian utzi eta erizainak izena galdetzen zigun eta gero gure izena zenbaki baten azpian idazten zuen hau da bakoitzaren basoko zenbakiaren azpian.

Biharamunean azterketa orokorra. Pisu bat altxatu behar genuen. Makina batzuk zeuden pisu batzuk erantsiak zituztenak. Nolako indarra genuen kontrolatu nahi zuten. Azterketa honetarako bi ordu inguru pasatu ziren bi mila baikinaren azterketa honetan. Ezin izan zuten denek egin egun hartan eta hurrengo egunean itzuli behar zuten sei zazpi ordu azterketa horretarako. Behin proba hori gaindituta azterketa orokorraren zain egon behar genuen. Biluztu egin behar genuen.

Han egon behar genuen larrugorrian zutik medikuaren aurrean petrikiloaren aurrean. Hura han jarririk mantal zuria jantzita eta galderak egiten zizkigun. Nola genuen izena zenbat urte genituen soldaduska egina ote genuen ezkonduak ginen edo ezkontzekotan ginen.

Gero pixka bat ibiltzeko aurrera gero itzultzeko altxa besoak jaitsi besoak makurtu eskuak erakutsi oinak erakutsi hanka-zolak. Gero potroak begiratzen zizkigun ea bagenituen eta gauza horiek halako gauzak. Esan 33 eztula egin arnasa hartu eta ergelkeria horiek. Egun oso bat azterketa hori egiteko zeren azterketa hori egiteko aski zen ordu laurden bat bakoitzarentzat baina bi mila ginen.

Gero esan zidan medikuak petrikiloak Egin dizute inoiz operazio kirurgikorik? Begi-bistakoa zen niri ez zidatela sekula egin operazio kirurgikorik zeren jainkoari eskerrak ez nuen gorputzean ebaki bakar bat ere. Bai bai esan nuen ezkerreko potroan. Nola gertatu zitzaizun? Medikua lotsatu egin zen ez baitzion erreparatu arestian. Esan nion neure buruari orain lotsagarri utziko diat nik mediku hau. Futbolearen aritzen nintzen erantzun nuen eta ostiko bat eman zidaten potroetan eta operatu behar izan ninduten.

Benetan? Konforme orduan bihar kontrol-bisita batera etorri behar duzu. Beste batek esana zuen beso bat hautsi zuela behin eta hark ere biharamunean etorri behar zuen. Nik uste dut horrek balio zuela langileoi kaskoan ongi sartzeko osasunez ongi egon behar genuela eta sano eta abar ez dakit zer arraiotarako balio zuen. Gero egia esan den-denak hartu gintuzten. Baita aditzen ez zutenak ere eta antiojodunak eta maingauk edo beso bat igeltsatua izana zutenak. Den-den-denak baita azken gizona ere beharbada bakararra paralitiko bat ez zuten hartu izanen.

Biharamunean berriz joan ginen kontrol-azterketa egin behar baikenuen. Mantal zuririk ere ez zuen petrikilo bat zegoen gela batera bidali ninduten. Han erizain ilehori eder bat zuen bai ipurdia gelan batera eta bestera mugitzen zuena. Erizainak petrikiloari

nire fitxa eman eta medikua aulkitxoan eseri zen. Galtzak eta galtzontziloak jaitsarazi eta potroak haztatu zizkidan. Zein operatu zizuten. Hau. Jantz zaitez. Galtzak-eta jantzi nituen baina ez zidan hitzik ere esan. Erizain ederrak gutun bat eman zidan esaten zuena handik bi egunera Fiatera joan behar nuela.

Fiaten handik bi egunera azterketa pasatutako guztiak geunden. Hau da den-denak. Berehalaxe ailegatu zen kontratazioen bulegokoa. Edo harreman publikoetakoa psikologoa zen edo gizarte-laguntzaila edo auskalo zer arraio zen. Hura etorri eta esan zuen Lagunak. Ongi etorri Fiatera neure izenean eta onartu zaituzten zuzendaritzaren izenean. Zoragarri. Guzti-guztiak txaloka. Langileriaren bulegoak dio Fiaten enplegatuen zerbitzura dagoela seme-alabak dituztenen zerbitzura konpondu beharreko problema pertsonalak eta halakoak dituztenen zerbitzura. Dirua behar baduzue eskatu guri. A bai esan zuten Napoliko gizon batzuek nik hamar mila lira behar ditut. Ez horrela ez lanean hasten zaretenean eskatzen ahalko duzue mailegua. Baldin eta egiazko premiarik baduzue. Oraingoz zuen kasa moldatu beharko duzue problemak konpontzeko. Gero lanean hasten zaretenean eskatzen ahalko diguzue mailegu bat.

Gero bulegoetatik Fiatera bidali gintuzten hau da fabrikara. Beste morroi batek guri zenbakia hartu eta beste batzuk ematen zizkigun. Aldagelaren zenbakia korridorearen zenbakia aldagelako armairutxoaren zenbakia lantegiaren zenbakia katearen zenbakia. Horretarako egun erdian eduki gintuzten hantxe haiekin batera. Gero karrozerien ingeniari-buruaren bulegora joan ginen. Hiruko taldeak sartzen ginen jakina denei mintzaldi bera egiten zigun hitz berberak guztiei.

Ongi etorri Fiatera. Badakizue zer den Fiat Fiat den-dena da Italian. Prentsa komunistan muntaketa-kateari buruzko gauza gaiztorik irakurri baduzue jakizue kalumniak direla guzti-guztiak. Hemen ongi ez dauden langile bakarrak alferrak dira. Lan egiteko gogorik ez dutenak. Gainerako guztiek lan egiten dute eta pozik daude eta gustura. Den-denek autoa dute eta gainera Fiategen oporlekuak ditu enplegatuen umeentzat. Eta bestalde Fiategen langilea bazara deskontuak izaten dituzu denda batzuetan. Sekulako apologia egin zigun.

Bai hark bai aurrekoek ere ez zuten inolako galdera zehatzik egin. Ez zioen deusik ere gutako bakoitza norbanakotzat hartzen zuenik. Halakoak jakina bulegariekin egiten zituzten gehienbat haiekin badutelako horretarako denbora zeren gutxiago baitira. Gu ordea masa bat ginen marea bat. Ez ginen bakarrik bi mila kontratatu berriak hogeita mila ginen. Munstroak langile nazkagarriak iritsiak ziren. Eta haiek bi hilabete zermatzaten denei galdera berberak egiten eta lan bera egiten.

Horregatik lan hori egiten zutenak ere nazkanazka eginak zeuden. Alegia Fiatera sartzen ari zen langile masa hori bulegariak eta medikuak berak ere proletarizatzen ari ziren. Azken batean helburua ez zen hautaketa bat egitea baizik eta antolamendu kontzeptu bat transmititzea menpekoizaren kontzeptua diziplinaren kontzeptua. Izan ere bestela ez zituzten kontratatu izanen ongi ikusten ez zituztenak ere hau da gaixorik zeudenak sekulako zorroa zutenak. Denak hartzen zituzten denak behar zituztelako. Denek balio zieten lan ziztrin nazkagarri horretarako.

Eta hara non esan zuen ingeniariak Ni zuen koronela naiz. Zuek nire gizonak eta elkar errespetatu

behar dugu. Nik beti defendatu ditut nire langileak. Fiateko langileak hoberenak dira gehien produzitzen dutenak eta halako ergelkeria gehiago. Orduan niri errezeloa piztu zitzaidan eta egin nuen neure artean Zainak ematen zidak gaizki bukatuko dugula koronel honekin. Gero azaldu zigun ez genuela produkzioaren kontrako sabotajerik egin behar zeren gu lanetik bota ez ezik salaketa ere jartzen ahal ziguten. Kode penalaren artikulua bat aipatu zuen salaketa jartzen ahal zigutela zioena. Terroristarena egiten hasi zen. Eta hasi nintzen pentsatzen neure artean Lezio on batek mesede egingen lioke koronel honi.

Gero gutako bakoitzari nagusiak aurkeztu zizkiguten. Banatu gintuzten. Ordura arte masa bat izanakin ginen baina gero laupabost jarri gintuzten muntaketa-kate bakoitzean. Ni Fiat 500aren katean nintzen eta nire nagusia aurkeztu zidaten. Muntaketa-kateko nagusia. Gero nire nagusiak kate-laguntzailea aurkeztu zidan. Hau da kateko lan guztiak egiten dakizkiten langileak dira kate-laguntzaileak. Pixa edo kaka egitera joan behar baduzu baimena ematen badizute horretarako baimena behar baita orduan haiek sartu eta zure ordeztaritzen dira lanean. Edo ezongi sentitzen bazara edo zerbait gaizki egiten baduzu. Kate-laguntzailea sartzen da zernahitarako langilea denetik egiten duena.

Hura aurkeztu zidaten eta katetik hurbil jarri ninduten. Beste bi ordu falta ziren lanaldia bukatzeko eta nagusiak lan errax batzuk agindu zizkidan. Muntaketa-kateari begira lan arina iruditu zitzaidan. Nola mugitzen zen katea nola egiten zuten lan langile haiek guztiak. Bazirudien nekatu beharrik ere ez zegoela ia. Biharamunean ni hartu eta nire lanpostura eraman ninduten beste lanpostu bat beste kate bat. Eta hara non lanean hasi behar nuen egunean beste nagusi bat

aurkeztu zidaten. Nagusiak kate-laguntzaile bati deitu eta esan zion Eraman ezak hara. Laburbilduz nire postuan Fiat 500ari kolpe-leungailuetarako zerrenda-eusle bat jarri behar nion. Motorrari lotu behar nion bi buloi-ekin eta traste batekin estutu.

Nik kolpe-leungailua eta zerrenda-euslea hartzen nituen nire gainean Fiat 500aren karrozeria zegoen beste nonbaitetik ailegatua eta nik kolpe-leungailua-eta jartzen nizkion gutxi gorabehera hamar kilo biak batera. Beste toki batetik hartzen nuen beste batek prestatu eta gero orduan nik motorraren gainean paratu eta bi buloi jartzen nizkion. Giltza automatikoa-ekin estutu eta kitto. Bixi-bixi trrrr trrrr bi buloi eta bazihoan dena eta beste bat ailegatzten. Hogeï segundotan egin behar nuen. Erritmoari eutsi. Lehenbiziko egunetan ez nintzen gauza eta kate-laguntzaileak laguntzen zidan. Hiru egunez lagundu zidan.

Fiateko katean kontua ez da ikastea baik eta muskulatura ohitzea. Ohitu behar baitu esfortzu horretara mugimendu horietara erritmo horretara. Traste horietako bat hogeï segundotik behin jarri beharrak esan nahi zuen bihotz-taupadak baino biziagoko mugimenduak egin behar zenituela. Alegia segundo-hamarren bakar batzuetan mugitu behar zenuen behatza begia beste edozer. Nahitaez segundo-zatietan egin beharrekoak. Bi zirrindolak aukeratzeko lana bi buloiak jartzeko lana mugimendu horiek berez eta agudo egin behar zituzten begiek eta muskuluek nik ezer ere erabaki beharrik gabe. Besterik gabe mugimendu horien guztien erritmoari eutsi behar nion berdin egiteko behin eta berriz eta behar zen ordenan. Eta ohitzen ez zaren bitartean hiruzpalau egunez ez zara hori erritmo horretan egiteko gauza.

Ohitzen hasi nintzenez laguntzen zidan horrek bakarrik utzi ninduen. Ohartu nintzen lan gehiago jarri nahi zigutela. Langile ailegatu berrietatik askok egun erdia egun bat hiru egun edo astebete egin eta ospa egiten zuten. Batez ere gazte askok nolako lan nazkagarria zela ikusi eta berehala alde egiten zuten handik. Nork arraio gelditu nahi ote du han eta ospa egiten zuten. Egunero-egunero beste askok baja hartzen zuten. Beraz langile gutxiago ari ginenez lanean katean orduan behar zuten gutako bakoitzak lan gehiago egi-tea. Zeren bestela langile asko behar zuten baina azken batean ez zieten balio ez zeudelako sekula han. Eta niri beste zeregin bat gehiago jarri zidaten. Orduan nazkatzen hasi nintzen eta gainera min pixka bat hartu nuen behatz batean.

Azazkal bat zanpatu nuen baina ez nuen min handirik hartu. Baina behatzaren gainean gantza jarri nuen gantz beltza eta horrela odol bildua zirudien beltz-beltza. Azazkala beltz behatza beltz eta kate-laguntzaileari deika hasi nintzen eta esan nion erizaindegira joan beharra nuela. Nagusia etorri eta esan zidan Erizaindegira joan nahi duzu? Bai min hartu dut behatzean. Baina ezin zara erizaindegira joan behatzeko halako kolpe ttikiagatik. Bai banoa. Ez ez zoaz. Fiat 500eko beste nagusi bat ailegatu zen. Hau da badago nagusi bat Karrozerietakoa beste nagusi bat Fiat 500ekoa beste bat 850ekoa eta beste bat 124koa. Eta 124ak 500ak eta 850ak kate bat baino gehiago ditu bakoitzak. 850ak lau edo bost kate ditu 500ak sei edo zazpi kate 124ak bi edo hiru.

Ailegatu zen 500eko nagusia eta esan zidan Adizak proposamen bat eginen diat. Erabaki ezak zer nahi duan behatza dela-eta medikuarenera joan erizaindegira joan edo hemen gelditu. Gelditzen bahaiz

lan arinago bat emanen diat. Medikuarenera joan eta medikuak deus ez dela esaten badu lanik gogorrena emanen diat are gehiago lanetik bidali ere bai behar-bada. Orduan nik mehatxua onartu eta esan nion Medikuarenera noa. Hark txartela sinatu zidan hark sinatutako txartela behar bainuen erizaindegira joateko. Gero egonen gaituk egin zidan mehatxua. Eta erizaindegira joan nintzen. Erizaindegira sartzean zera ikusi nuen langile bat ateratzen ari zela besoa bendaturik ebaki bat egina baitzuen. Etxera hoa? esan nion. Ez ez zidatek baja eman. Nolaaa besoa hola izanda ez diate baja eman? Ez.

Segituan sutan jarri eta esan nuen neure artean Orain ba behatz honekin hamar egunerako baja erdietsiko diat deus ez badut ere. Besteak berriz min hartua zuen benetan eta ezetz esana zioten Lanera joan behar duk. Baina erotu al gara gerran al gaude Vietnamen gaude ala? Odoletan den jende hau guztia lanera joan behar bortxan? Sartu nintzen erizaindegira eta orduantxe ailegatu ziren beste zauritu batzuk ere. Erizaindegia bete-betea zegoen beti gerra-ospitalea zirudien. Langile mordoak ailegatu ziren eskua zanpaturik nonahi ebakiak zituztela edo zerbait hautsirik. Izter-txokoko hernia bihurritua zuen langile bat ailegatu zen oihuka. Larrialdietara eramán zuten ambulanzitari deitu zioten.

Nire txanda ailegatu eta itxurak egiten hasi nintzen. Ongi kontrolatu eta ukitu nuen behatza zehatz jakiteko noiz oihu egin. Behatza ukitu zidatenean biraoka juramentuka hasi nintzen dialektoan napolieran. Aztertzen ari zitzaidana turindarra zen eta horrek bazuen eragin pixka bat harengan. Zeren juramentuak italieran esaten banituen ematen zuen antzerkia egiten ari nintzela juramentuak napolieran botaz gero

aldiz medikuak ez zekien antzerkia egiten ari ote nintzen. Kabendio puuuta etzakela ukitu jo'ta akatuko yaut eta halako gauzak bota nituen. Baina ikusi egin behar dizut zioen berak. Geldi egon ez ukitu. Nola geldi? Min hartu dut behatzean hautsia dago. Eta hark Ikusi nahi dut hautsia dagoen edo ez dagoen. Nik badakit nik aisa sentitzen dut hautsia dagoela. Ezin dut mugitu ere egin.

Beste mediku bat ailegatu zen besteari hernia begiratu ziona eta esan zuen Ederki emaiouzu sei egunerako baja. Sei egun esan zuen gero oraindik ere min baldin badu ospitalera bidaliko dugu. Hark baja eman eta alde egin nuen handik. Nagusiarengana joan eta esan nion Baja eman dit sei egunerako. Amorruez belztu zen eta pentsatuko zuen Ergel honek ziria sartu zidak sei egun pasatuko ditik potro jorran Fiaten bizkar. Eta gainera Malf-ek ordaindu behar zidan. Ez baitzen orain den mutualitatea hau da INAM Institutu Nazionala. Fiaten mutualitateak gehiago ordaintzen zuen. INAMEk bajaren lehenbiziko hiru egunak ez ditu pagatzen baina Malf-ekin lehenbiziko egunetik beretik ordaintzen zizuten. Alukeria ederra zen Fiatentzat mutualitate hori izatea eta egia esan gero kendu egin zuen.

Beraz etxera joan nintzen. Etxean ez nuen behin ere garbitzen behatza eta inguru guztiko gantz beltza. Ez nuen behin ere garbitzen ez mugitzen eta erne ibiltzen nintzen harekin deus ere ez ukitzeko. Handik sei egunera handitua zegoen. Behatza espres batere mugitu gabe izana nuen handitu zedin. Behatzak mugituz gero jaisten zaie hanpadura. Baina behatzean kolpe bat hartu eta ez baduzu batere mugitzen behatza hazi egiten da eta besteak baino potoloago azaltzen. Ez ikaragarri potolo baina ikusten da handitua dagoela. Eta

gainera azala leunago gelditzen da ez baituzu harekin deus ere ukitu.

Handik sei egunera itzuli eta esan nion Begiratu hemen behatza nola handitu den. Nik uste gaizki dudala oraindik. Baina ezin duzu lanik egin honela? Ez guk eskuekin egiten baitugu lan. Buloi bat hartu behar badut edo pistola hartu behar badut hau da buloia sartzen duena pistola deitzen baita eskuekin hartu behar dut. Beraz edo erne nabil zer egiten dudan hartzen ditudan buloiekin edo erne nabil behatzari deus ere ez ukitzeko eta minik ez hartzeko. Eta ni ezin naiz horrela ibili. Bestela hiru orduren buruan zerbaiten kontrako hainbeste kolpe hartuta azkenean urduritu erotu eta zerbait botako diot norbaiti burura. Horrela ezin.

Medikuak itxurak egiten ari nintzelako erreze-loa hartu eta proposamen bat egin zidan Nahiago duzu lanera joan edo nahiago duzu ospitaleratzea? Eta nik neure artean Hemen gogor jokatu behar diat ospitalizazioa garestiago ateratzen zaielako. Honek ezin dik justifikatu behatz batengatik langile bat ospitalean ingresatu duela ezin dik. Medikuak ziria sartu nahi zidan eta bere artean ariko zen Honek beste hiruzpau-lau jaiegun lortu nahi ditik mehatxatu behar diat. Eta ospitalean ingresatu beharrean nahiago izanen dik fabrikara itzuli. Ospitalean izorratua hago ezin haiz dibertitu han barrenan haiz eta kitto.

Esan nuen Ez ez ospitalera joanen naiz. Ikusten baitut behatza oraindik gaizki dagoela ez da sendatu. Orduan medikuak esan zion beste bati Egiozu honi ospitaleratzekeo papera. Kolorea mudatu zitzaidan pentsatu zuen Izorratu naik alu honek. Isilik nengoen eta esatekotan nengoen Banoa lanera. Orduan lepoa luzatu papera ikusteko eta hara non ikusten dudan beste sei egunerako baja ematen ari zitzaidala. Nik hitzik

esan ez papera hartu eta ospa. Medikua isilik ni isilik. Ez nuen esan Orduan ez dut joan behar ospitalera. Berehalaxe biok ulertu genuen izorratu nahi genuela batak bestea.

Horrela lortu nituen hamabi baja-egun ordainduak eta pozik nengoen. Gauza izan bainintzen lanari eta haren antolakuntzari ziria sartzea nire interesen probetxuan. Lanik gabeko egun haietan ordea ez nekien zer arraio egin egun guztian. Batera eta bestera nenbilen Valentinon barna han egoten baitziren putak eta marikoiak. Horrela nenbilen harat-honat asperturik eta ez nekien zer egin dirua izanagatik. Fiaten ia ehun eta hoge mila lira ordaintzen zidaten hilean. Hamabost egunetik behin aurrerakin bat ematen zuten aurrerakina hartzen nuen eta horrela berrogei mila lira ematen nizkion arrebari bere etxean bizi bainintzen.

Hamar mila lira gelditzen zitzaizkidan hamar mila lira horiek bi-hiru egunetan xahutzen nituen. Hein batean zer arraio egin ez nekienez ostatutik ostatura pasatzen nuen eguna egunkariak eta *Playmen* eta *Diabolik* erosten nituen. Zinemara joaten nintzen ez nekien zer arraio egin. Zer arraio egiten nuen jakin gabe gastatzen nuen dirua. Hala nengoen lan nazkagarri ziztrin horretatik deskantsatzen nuen. Gauza zentzugabe samarra erabat zentzugabea. Eta hamabi baja-egun ordaindu haietan ohartu nintzen ez nekiela lanaren neketik atseden hartzen ere eta ez nekiela zer arraio egin Turinen.

Fiaten bizkar izandako hamabi baja-egunen ondoren Fabrikara itzuli nintzen ez bainuen zipitzik ere. Ihes-tutuei torlojuak sartzen jarri ninduten eta hango kate-laguntzailea izorratzea erabaki nuen. Zeregin berria ikasi behar duzunean hurbileneko kate-laguntzaileak erakusten baitizu. Eta harako hura nik ederki

izorratu nahi nuen kate-laguntzaileak greba-hausleak izaten baitira han hamar urte hiru urte daramatzate-nak. Hark erakutsi egiten zidan Ikusi duk trrrr trrrr trrrr egizak hik hurrengoa. Orduan nik trrrrrrrr eta trabatu egiten nintzen. Pistolarekin trabatu egiten nintzelakoa egiten nuen buloiaren kontra ez aurrera ez aurrera gelditzen zelakoa. Laster mesedez deitzen nion kate-laguntzaileari zatoz ezin dut-eta.

Hostia puta kabendio hasten zen kate-laguntzai-le turindarra. Turin inguruko herrietatik heldu direnei *barott* esaten zaie nekazariak dira. Nekazariak izaten jarraitzen dute eusten diete lurrei eta andreak lantzen du lurra. Joan-etorrian ibiltzen dira egunero jende ezin gogorragoa da kaskagorra fantasiariak ez duena jende arriskutsua. Ez ziren inola ere faxista mozoloak ez. PCIkoak ziren Ogia eta Lana oihukatzen zuten horieta-koak. Niri bost axola zidan denak eta bederen banuen sendabidea. Baina haiek muin-muineraino zuten lana sarturik ez zegoen lana baino gauza inportanteagorik eta egunero erakusten zizuten hori. Han urteak ematen zituzten lanean hiru hiru hamar urte. Eta han denok laster zahartzen gara agudo hiltzen. Lau sos ematen dizkizute airoso bizitzeko aski ez direnak inozoa otzana behar du batek hori egiteko. Urtetan egon kartzela-zulo kakaztu horretan eta bizitza desegiten duen lan batean aritu.

Nolanahi ere susmoa hartu zuen izorratu nahi nuela eta hark orduan postua utzi eta katea geldiarazi zuen. Nagusiak ailegatu ziren. Kate bat gelditzen denean argi gorri bat pizten da katea gelditzen den tokian eta nagusi guztiak ailegatzen dira bertara. Zer gertatzen da? Morroi honek ez du lan egin nahi. Gezurretan ari zara lanean ari naiz baina ez dut asmatzen ikasten ari naizelako. Ni ez naiz zu bezain argia zuk hamar urte

dituzu hemen barrenean eta bistan da zure modukoek agudo ikasten dutela. Ziria sartu nahi nion. Zu argia zara esaten nion hamar urte dituzu hemen barrenean eta dena dakizu niretzat ez da hain erraza. Gainera baja batetik nator min hartu bainuen nola nahi duzu egitea behatz honekin.

Orduan nagusiak esan zidan Aizu uste dut aitzakia bila zabiltzala lanik ez egiteko. Sar ezazu buruan Fiaten lana egin beharra dagoela ezin zarela alferkerian ibili. Ez baduzu lanik egin nahi segi Roma kalera han daude-eta zure lagunak. Esan nion Adizu ez dakit Roma kalean ba ote dudan lagunik. Diru premian nagoelako etortzen naiz hona. Lanean ari naiz ez dut ongi ikasi oraindik eta ikasten dudanean lanean ariko naiz. Emanen didazue sei eguneko probaldia bai ala ez? Baina nola sei eguneko probaldia esan zuen nagusiak hilabete bat daramazu-eta hemen. Bai hilabete bat baina beste lanpostu batean han ez honetan. Orain sei eguneko beste probaldi bat behar dut eta kate-laguntzailea hemen behar dut nirekin sei egunez. Bestela kakarik ere ez dut egiten.

Ihes-tutuko buloiak estutu behar nituen bedertzitzi buloi. Zortzi orduz egon behar nuen pistola eskuan motorra nire parean jarri nik buloiak estutu eta aurrera egiten zuen motorrak. Langile batek motorra jarri eta buloiak jartzen zizkion nik estutu besterik ez. Aski erraza zen baina zortzi orduz egon behar nuen aire-pistola eskuan hamalau kiloko pistola eskuan nuela. Gainera niri ez zait gustatzen lan bat esku bakarra erabili behar denean edo beso bakarra eta ez bi eskuak edo besoak batera. Sorbalda bat mardulagoa egiten baitzaizu beste baina. Okertu egiten zaizu bizkarra sorbalda bat gihartsuagoa baita bestea baina. Itxuragabetu egiten zara. Gimnastikako mugimenduak egiteak berriz ez

dit kalterik egiten bi aldeak modu berean mugitzen di-
relako. Mugimendu hauek berriz izorratzen ninduten.
Motorra sorbaldan jarri eta gainera soinu hori totototo-
toto to to to jasanezina zitzaidan.

Nik dena dela erabakia nuen Fiat uztea haiei
mehatxu egitea. Nire kate-laguntzailearekin izandako
azken ika-mikan nagusi guztiak etorri ziren denak ba-
tera. Langileek lana utzi zuten nire kate-laguntzaileak
katea geldiarazia zuelako berriz. Han ziren denak niri
begira eta ni nagusiei begira. Eta mehatxatu nituen
mehatxatu nuen nagusia kate-laguntzailea eta zuzen-
dari nagusia hura ere azaldua baitzen koronela alegia.
Begira esan nien begira Fiat ez da nirea ongi sartu hori
kaskoan. Ez dut maite ez dut nik sortu ni hemen dirua
irabazteko nago eta kitto. Baina haserretzen banauzue
nazkatzen banauzue muturra hautsiko dizuet guztiei.
Langileen aurrean esan nien hori. Argi eta garbi meha-
txatu nituen baina haiek ezin zuten arriskurik hartu. Ez
baitzekiten nik zer nuen buruan serio ari nintzen edo ez.
Orduan zuzendari nagusia paternalismoaz baliatu zen.

Arrazoi duzu esan zidan langileen aurrean. Bai-
na lana gauza garrantzitsua da lan egin beharra dago.
Jakina zu aski urduri zaude gaur baina zer eginen dio-
gu guk hau ez da ospitale bat. Joan zaitez sendatzera
esan zidan nigana hurbilduz baja hartu eta nire on-
do-ondoan langileen parean esan zidan ez bazterrak
nahasi eta ez izorratu eta bakean utzi lan egin nahi
duen jende guztia. Laburbilduz nigana etorri eta bere
hitz-aspertua bukatu zuen Adarra jo nahi badiguk baja
hartu pikutura joan ez baterrak nahasi eta ez izorra-
tu lanean ari den eta egin nahi duen jendea. Hemen
ez dago tokirik alferrontzientzat eroentzat lan egiteko
gogorik ez duten erientzat. Orduan katea beste behin
abian jarri eta langileek ez zidaten berriz begiratu.

5

BORROKA

Hura dena fabrikako atean borroka-lagunak ezagutu baino lehen izan zen. Egun batean Fiatetik ateratzen ari nintzela ikasle bat ikusi nuen zera esan zidana Etorri nahi duzu bilera batera hango ostatura? Baietz esan nion konforme joanen naiz. Pentsatu nuen zergatik ez ez diat beste zereginik joanen nauk ikustera zer nahi duten zer dioten ergelak horiek. Egunero ikusten nituen ikasle horiek eta ergelak iruditzen zitzaizkidan. Ez nekien zer zioten ere ez nuen irakurtzen haien panfleto bakar bat ere.

Une hartan grebak zeuden sindikatuek deituak. Batzuek bigarren kategoria eskatzen zuten garabien eta orga jasotzaileen gidariek. Greba batzuk egiten ari ziren Fiat 124aren kate batzuk geldirik zeuden. Langileak kartetan aritzen ziren diru-jokoan apustutan. Irakurtzen zuten edo hantxe egoten ziren egonean piezak ailegatzen ez zirelako. Hiru edo lau kate zeuden geldirik. Eta fabrikatik ateratzean ikasleak ikusten nituen greba horren gaineko panfletoak banatzen. Niri ordea kontua ez zitzaidan interesatzen.

Orduan Mirafiori ondoko ostatu hartara joan nintzen bilerara. Mario eta ikasleak ezagutzen nituen eta esan nien zer sekziotan nengoen eta zer lan egiten nuen. Ezagutzen nituen beste langile batzuk ere baita Raffaele ere hau da Fiat 124aren sekzioko langile bat arratsero-arratsero bileretara joaten zena. Hark zioenez ba omen ziren laurogei bat lankide prest zeudenak berak esaten zienean greba egiteko. Kaka zaharra nioen neure artean ni denek ezagutzen naitek baina bakar bat ere ez zegok prest nik esaten dudanean greba egiteko. Orduan esan nion laurogei lankide horiek ezagutzen badituk nahi dugunean egiten ahal diagu lanuztea. Bihar berean egiten ahal diagu. Ez dezagun lan gehiago egin bihar berean has gaitezen borrokan.

Eta Mario eta beste ikasleak belarriak erne zeuden Raffaele delako horrek eta nik zer genioen. Gero biharamunerako panfleto bat egitea erabaki zen eta bertan borrokarako deia egitea lanuztea proposatzea. Ez dakit zer aipatu behar zuen panfletoak. Beharbada bigarren kategoria ez dakit. Edo agian otorduaren dirua. Fiaten ez dago bazkaririk eta agindu ziguten dirua nahi genuen hau da otordurena. Halako zer bait zen noski.

Fiaten hainbeste fabrikatan bezala bazkaltzeko-
edo janontzia eramaten genuen. Eta nik esaten nuen bazkaltzeko ordu erdia pagatu egin behar zigutela ordu erdi horretan ere lanean aritzen ginela. Zeren lan egiten ari zinen bitartean sirena-hotsa aditu uuuuluka eta orduan lasterka joan behar zenuen eskailerak jaitsi zure korridorera ailegatu zure armairutxora ailegatu hartu sardexka koilara ogia lasterka janontzia zenuen tokira joan eta beste bi milaren artean zure hartu ailegatu mahaira solasean aritu tartartartartar jan irentsi berriz sirena-hotsa uuuluka aulkitik salto egin berriz

korridorea aldagela armairutxoak gauzak han utzi berriz ordu erdia eta berriz katean. Dena ziztu bizian harakoan eta honatakoan bestela berandu ailegatzen zinen. Hori lana da ez inola ere atsedena. Produktzioaren parte bat.

Nolanahi ere aditu nuen zer zioen Raffaelek hots gauza zela laurogei lankideri greba eginarazteko. Eta nik esan nion biharamunean egiten ahal genuela hitzordua berak bere lankideekin eta nik nireekin. Nik egia esan ez nuen niri kasu egiten zidan inor baina pentsatu nuen ikusiko diagu kasu egiten didaten ala ez proba egin behar. Elkartuko gaituk denak hireak eta nireak esan nion Raffaeleri. Muntaketa-kateen bukaeran biltzen ahal gaituk eta han batzarra egin manifestazioa egin. Eta hiltzeko eta urkatzeko mehatxua egin traidore eskirol eta kate-laguntzaile guztiei. Mehatxatu eta horrela manifestazioa egin eta oihuka eta kantuan hasi. Ikusiko diagu gero nora zabaldu liskarra igual handik kanpora atera gaitzek. Laburbilduz bihar borroka eta lanik ez. Konforme konforme. Egin dezagun orain panfletoa bihar ordu batean ate aurrean banatuko diagu. Gero hitz egin barrenean lankideekin aldageletan eta aldageletara bidean.

Biharamunean panfletoa banatzen hasi ginen fabrikako atean ikasleekin batera. Mariok kartel bat egin zuen ez naiz oroitzen zer zegoen idatzia Langileen Boterea Langileria indartsua da halako gauzaren bat. Orduan ni atetik kanpora jendea sutu nahian hasi nintzen Lagunok gaur greba egin behar dugu. Lanaz nazkatuak gaude lehertuak. Ikusi duzue zeinen gogorra den lana. Zeinen nekagarria. Ikusi duzue nolako kaltea egiten digun. Sinetsarazi zizueten Fiat lur agindua zela Kalifornia zela salbatuak geundela.

Nik mota guztietako lanak egin ditut igeltsero plater-garbitzaile zamalanetako peoi. Denak egin ditut baina denetan nazkagarriena hau da Fiatekoa. Fiatera etorri nintzenean uste nuen salbatua nengoela. Fiaten mitoa Fiateko lanarena. Gezurra da ordea kaka zaharra da lan guztiak bezala are okerragoa. Hemen egunero handitzen dizkigute lan-erritmoak. Lan asko eta diru gutxi. Hemen gutxika-gutxika hiltzen ari gara ohartu ere egin gabe. Horrek esan nahi du lana kaka zaharra dela lan guztiak dira kaka zaharra. Ez dago lan onik lana kaka zaharra da berez. Gaur hemen hobera egiteko bidea ez da lan gehiago egitea. Baizik eta borrokatzea eta lanik ez egitea hola baizik ez dugu hobera eginen. deskanstu'zagun gaur in'zagun jai. Dialektoan egiten nuen denak Hegoaldekoak baitziren napolitarrak. Hala denek ulertzen zidaten han hizkuntza ofiziala napoliera baitzen.

Gero barrenera sartu ginen eta sartu bitartean gauza bat etorri zitzaidan gogora. Kartela eskatu nion Mariori ez dakit zer arraio zegoen idatzia hor zehatz-mehatz. Fantasia-piztualdi izan nuen orain kartelarekin sartuko nauk Fiatera. Esku batean kartela eta bestean txartela nuela sartu nintzen. Txartela erakutsi behar baita sartzeko eta jakiteko bertako langilea zaren ala ez. Bestela beharbada gaizkile bat sartzen ahal da bomba bat jarri nahi duen norbait. Lehenbiziko guardia harriturik gelditu zen niri begira ahoa zabalik. Lehenbiziko aldia zuen bere bizitzan halako zerbait ikusten zuela alegia Fiat barrenera kartel bat sartzeari modu legegalean Fiateko txartela eskuan izanik. Guardiaren burua niregana etorri eta esan zidan Geldi! Nirekin ari zara? Bai zer ari zara kartel horrekin?

Honekin? esan nion nik. Hemen dut jendeak ikusteko. Baina ez dakizu ezin dela kartelik sartu? Eta

non dago idatzia hori? Araudian ez du esaten ezin dela kartelik sartu barrenera beraz ni sartu eginen naiz. Ez ezin da sartu. Hori arbitrarioa da zu esaten ari zara ezin dela sartu beraz ni sartu eginen naiz. Gustatzen zait kartel hau eta harekin sartuko naiz. Ez ezin da sartu lanarekin zerikusirik ez duen gauzarik. Eta orduan hango hori zergatik sartzen da *Corriere dello Sport*ekin ba al du *Corriere dello Sport*ek zerikusirik lanarekin eta langileekin. Kartel honek bederen langileen kontuez hitz egiten du egunkari hori berriz ez zaio inori interesatzen. Niri bost zatoz nirekin. Eta esan nion nik Kartela hemen uzten badut sartzen ahal naiz? Bai utzi hor. Begira hemen utziko dut atetik kanpora. Hola ongi?

Sartu nintzen. Berriz deitu zidan guardien buroak Zu zatoz nirekin. Baina nora? Lanera joan behar dut nik. Zatoz nirekin. Orduan nik hari gorbatatik heldu eta esan nion Ez hi etorriko haiz nirekin. Hura pixka bat herrestan eraman eta gero ostiko bat nion potroetan tropa-zorroan eta lurrera bota. Esan nion Etzakela izorratu gaur borroka-eguna duk segi denek antzarak ferratzera. Sartzen ari ziren langile guztiak burrunban uhhhhh leinu arabiarren estiloan. Denak niri txalo jotzen. Gero esan zuten Sar hadi barrenera ihes egin bestela identifikatuko haute. Bizi-bizi barrenera sartu eta aldagela joan nintzen Lagunak gaur borroka-eguna da goazen denak sekulako istilua egitera.

Irina baino zurbilago gelditu ziren denak. Probokazio handiegia iruditu zitzaien. Sekula halako borrokarik egin gabeak ziren. Sindikatua ez zen behin ere azaldua hara. Uste zuten Morroi hau nondik atera da txoro honek esaten du borroka egin behar dugula. Nolanahi ere ni hain zain egon nintzen han eskaile-ren oinean Gaur borroka-eguna da. Baina nola ordea? Behera jaitsi eta lanean hasi beharrean talde handi bat

eginen dugu katearen bukaera aldean. Haiek baina ez ziren mugitu. Ez aurrera ez atzera zeuden zer egin ez zekitela ez zuten zipitzik ere entenditzen eta kateetara joan ziren denak. Neurosiak harrapatuak zeuden.

Zer da neurosia. Fiateko langile bakoitzak ate zenbaki bat du korridore zenbaki bat aldagela zenbaki bat armairutxo zenbaki bat lantegi zenbaki bat kate zenbaki bat egin beharreko lan kopuru bat auto-ko pieza kopuru bat egin beharra. Laburbilduz zenbaki mordo bat da Fiateko lanaldia hola antolatua programatua zenbaki sail batekin nahiz eta zenbaki batzuk ikusten diren eta beste batzuk ez. Nahitaez bete beharreko gauza asko zenbakiz adieraziak. Hango langilea baldin bazara atea gurutzatu eta horrela jokatu behar duzu txartel zenbakidunarekin fitxatu halako zenbakia duen eskaileratik jaitsi gero ezker edo eskuin hartu eta halako zenbakia duen korridorean aurrera egin. Eta horrela segi eta segi.

Otorduan konparaziora. Langileek behin eserlekua aukeratuta betiko gelditzen dira toki hartan. Han ez dago deus ere antolatua eta inork ez du esan denek beti toki berean jarri behar dutela. Baina gero azkenean zuk beti toki berean izanen duzu eserlekua. Hau da zerbait zientifikoa da kontu bitxia da. Nik beti bazkaldu dut aulki berean mahai berean pertsona berberekin inork ere guri sekula han jartzeko esan gabe. Hori da nire ustez neurosia ez dakit horri neurosia deitzen ahal zaion ez dakit hitz egokia den horretarako. Baina hor lanean aritzeko hori egin behar duzu hori egin ezean ezin baitzara han egon.

Esana nien borroka egiteko bai baina ez zekiten zer arraio egin. Ez zuten ez berehala harrapatzen zer nahi nuen. Proposatzen niena bidezkoa zela susmatzen zuten baina ez zekiten nola egin. Ez zuten

ulertzen denok batera istilua sortzea zela inportantea hori ez besterik. Sutan jarri nintzen. Ez nengoen sutan egindakoa egiteagatik bota behar nindutelako hori nahi bainuen aitzakia bila nenbilen. Hiru hilabete ziren Fiaten nintzela eta ezin nuen gehiago. Ezin nuen agoantatu ez nuen enplegatu izan nahi langile izan nahi. Maiatza zen beroa egiten zuen eta Hegoaldera itzuli nahi nuen etxera itsasoan bainatzera.

Ez nengoen amorratuta bota behar nindutelako. Hori kontu segurua zen eta bost pito niri. Nintzen bezalakoa izanda aise identifikatuko ninduten. Bibotea nuen zapatak zuriak eta atorra urdina galtza urdinak aise identifikatzen ahal ninduten. Eta halaxe nengoen lantegian sartu nintzen bezala mozorrotu gabe. Hau da aldagelatik zapata zaharrak galtza zaharrak jertse zaharra hartu gabe arropa aldatu gabe beti egiten zen bezala. Hala sartu nintzen kanpoan kalean nintzen bezalaxe zapata zuri garbi-garbiekin txukun-txukun. Halaxe sartua nintzen lantegira lanik ez egiteko erabakia hartuta. Eta haserre bizian nengoen ez bainuen erdietsi alerik ere konbentzitzea.

Saltzeko makinara kokakola bat hartzera joan edan eta berandu ailegatu nintzen muntaketa-katera. Garaiz ailegatu behar baita beti katera sekula ez berandu. Eta ordurako han ziren nagusia beste nagusia biak han denak niri begira. Eta kate-laguntzailea ari zen nire postuan. Ni ailegatu eta esan zidan nagusiak Begira nazka-nazka eginda gaude zutaz. Hona puntual ailegatu beharra dago oraintxe jarriko dizut ordu erdiko zehapena. Eta nik Egizak potroetatik ateratzen zaikena nazkatuak naukazue bai hik bai Fiateg. Alde hemendik bestela zerbait botako diat kaskora. Zuek egin kaka-auto ziztrin hauek niri bost pito.

Eta han inguruan zeuden langile guztiak niri begira eta nik esaten nien haiei Baina zuek ergelak zarete esklabo hutsak zarete. Guardia hauei faxista hauei egurtu ederra eman behar zaiek. Zer arraio dira xomorro hauek ttu egin behar zieagu aurpegira eta egin dezagun nahi duguna honek soldaduska ematen dik. Kanpoan gauza guztietarako ordaindu beharra zegok ostatu batean sartzeko tranbia hartzeko pentsioa pagatzeko. Eta hemen barrenean erabili egiten gaitiztek. Kaka erosteko ere ailegatzen ez zaizkigun lau sosen truke eta akabatuko gaituen lan bat eginarazi. Erotu al gara. Bizimodu hau kaka zaharra duk kartzela-zuloan daudenak libreagoak dituk gu baino. Gu makina nazkagarri hauetara kateaturik ezin mugituz guardiak inguruan ditugula. Zartailuarekin jotzea besterik ez zaiek falta.

Nolanahi ere lanean hasi nintzen gogoz kontra jakina nik borroka egin nahi nuelako. Zerbait egin nahi nuen ez nuen han egoteko bat ere gogorik. Eta han nintzela urrutiko oihu batzuk aditu nituen. Karrozerietako lantegiak nabe handi-handiak dira eta beste muturra ikusi ere ez da egiten. Han sekulako burrunba dago eta ez da aditzen giza ahotsik. Hitz egiteko elkarri oihuka aritzen dira beti. Iskanbila zegoen eta nioen nik neure artean Borrok-lagunak dituk manifestazioa hasi ditek. Ez zegoen garbi non zegoen ez baitzen ikusten. Nik postua utzi kate guztiak gurutzatu autoen artetik tartean pasatuz eta lankideengana joan nintzen. Ailegatu eta oihuka hasi nintzen besteekin batera. Baina gauza bitxi-bitxiak oihukatzen ari ginen inolako zerikusirik ez zutenak grebarekin. Egoera lehertzeko oihukatzen genituen Mao Zedong Ho Chi Minh Langileen Boterea. Eta hango deusekin ere batere ikustekorik ez zuten beste gauza batzuk baina oihukatu nahi genituenak.

Konparazioa Gora Gigi Riva³ Gora Il Cagliari⁴ Gora neska katxarroak halako oihuak. Fiatekin zerikusirik ez zuten gauzak oihukatu nahi genituen han egin behar genuenarekin zerikusirik ez zutenak. Horregatik Mao eta Ho Chi Minh nor ziren ere ez zekiten horiek guztiek Mao eta Ho Chi Minh esaten zuten oihuka. Fiatekin batere zerikusirik ez zuelako eta gogoak ematen zuelako. Eta manifestazio bat egiten hasi ginen laurogei bat langile izanen ginen. Manifestazioa kateen ondotik pasatu ahala jendea biltzen zitzaigun taldearen bukaran. Noizbait ere kartoizko kaxa batzuk zeuden toki batera ailegatu haiek desegin eta klarionarekin idatzi genuen Lagunok utzi katea elkartu gugana hau da zuen postua. Beste batean idatzi genuen Langileen Boterea. Beste batean hau Ipurdi-miazkatzaileentzat lana langileentzat borroka. Eta hiru kartel horiekin egin genuen aurrera.

Manifestazioa potolotuz joan zen eta sindikalistak ailegatu ziren. Nire denbora guztian Fiaten barrenean sindikalistak ikusten nituen lehenbiziko aldia zen Lagunok gaur ez da egun aproposa borrokarako. Udazkenean egingen dugu borroka langileria guztiarekin batera siderurgiako gainerako langileekin batera. Orain egiteak borroka ahultzea dakar orain talka eginez gero nola egingen dugu gero urrian. Eran-tzun genien Orain borrokatu behar udaberria delako eta oraindik uda ere hortxe dugulako. Urrian berokiak eta zapatak erosi beharko ditugu etxeko berokuntza ordaindu eskolako liburuak umeentzat. Horregatik langileak ezin du negurako utzi borroka udan egin behar du. Udan aire zabalean egin dezake lo baina neguan ez. Eta ederki dakizue udaberrian Fiati auto-eskaera

3 Gigi Riva. Garai bateko futbol jokalaria italiar ospetsu bat.

4 Futbol talde bat.

gehiago ailegatzen zaizkiola eta hola izorratzen dugula baina urrian ez zaio batere inporta.

Sindikalistak taldetxoak osatzen hasi ziren gu bereizten manifestazioa desegiten. Hogeit bat gelditu ginen beste manifestazio bat egin genuen eta beste lankide batzuk geureganatu genituen. Bi orduren buruan geldiaraziak genituen kate guztiak. Une horretan Karrozerietako Sekzioko burua ailegatu zen alegia koronela. 54. lantegian ginen baina kate guztiak zeuden geldirik Karrozerietako Sekzioko beste lantegietara ere joanak baikinen kate guztiak geldiarazteko. Koronela ailegatu eta bera ailegatu ahala korridore moduko zer-bait zabaldu zen langileen artean eta denak korrika eta presaka katera itzuli ziren. Han hamabost bat gelditu ginen gehienez kartelak eskuan genituela. Orduan erabaki nuen hari gogor egiteko momentua zela bestela izorratu behar gintuela-eta.

Hura guregana etorri eta ni harengana hurbildu nintzen kartela eskuan ia-ia bere muturreraino. Kartela bere sudurretik metro erdira jarri nion eta hark irakurri. Ez naiz oroitzen zer kartel zen zer zegoen idatzia niri ez zitzaidan axola. Niri gauza bakarra axola zitzaidan hau da bera pikutara bidaltzea. Hari ulertaraztea gurekin ez zuela zer eginik. Hark ikusi nuen nik ez nuela handik alde egiten han plantatua nintzela bere aurre-aurrean eta esan zidan Baina zer dira hauek? Barazkietako kartelak? Merkatuan al gaude? Ez esan nion nagusien interesen kontrako kartelak dira horregatik egin ditugu. Gero Karrozerietako ingeniaria korro batean elkartu zen gainerako langileekin. Eta haren inguruan bostehun bat langile zeuden denak buruaz baietz eta baietz egiten. Hark hitz egin eta langileek baietz esaten zuten. Sindikalistek beste korro batzuk eginak zituzten Karrozerietako beste kateetan eta gu

hamabost lankideko talde ttar bat geldituak ginen bakarrik bazterturik.

Orduan esan nuen Lagunok hemen zerbait egin beharra dago bestela baztertu eta bakarrik utziko gaituzte ederki izorratuko gaituzte. Ingeniaria hizketan ari den taldean egin behar dugu zerbait bera baita han ur handiko arraina. Ingeniaria langileen aurrean pikutara bidaltzen badugu dena berreskuratuko dugu. Talde horren kudeaketa kapitalista lehertzen badugu dena ongi egonen da irabazia izanen dugu gaurko borroka. Hurbildu ginen ingeniaria hizketan ari zen eta esan nuen nik Hitz egin nezake nik ere eztabaida honetan? Eta hark Jakina esan zer duzu esateko? Gauza bakarra. Zuk zenbat jasotzen duzu produkzio sari gisa? Kontu horiek zuri ez zaizkizu inporta esan zuen ingeniariak.

Inporta zait bai. Inporta zait zeren guk produkzio sari zenbat jasotzen dugu gehienez? Nik ez dakit zenbat jasotzen dudan ere. Nik sekula ez dut begiratzen nomina zer dagoen idatzia oinarrizko soldata destajuko lana pentsioa halako kontuak. Nomina irakurri gabe hartzen dut ez zaidalako nomina interesatzen dirua inporta zait niri. Baina egia esan gehienez ehuneko bost sei edo zazpi kobratuko dugu. Eta zuk zenbat kobratzen duzu? Ez zaizu interesatzen. Jasotzen ditugun portzentaje txikiak kontuan hartuta jarraitu nuen nik zuek milioika lirako lansariak jasotzen dituzue guri esker egiten den automobil-produkzioaren arabera. Eta horregatik behartu nahi gaituzue gero eta gehiago produktuzera. Baina guretzat lana eta dirua berdinak dira beti. Egia da bai ala ez?

Berriz esaten dizut zuk ez duzula zertan sartu gauza horietan. Nola ez dudala zertan sartu? Zuk nire lanari esker milioiak irabazten dituzu eta gero diozu ez dudala zertan sartu. Zuk dirua irabazten duzu

produkzio-sariak gora egiten baitu kategorian gora egi-
tean. Alegia kate-laguntzaile bat baldin bazara kargu
handia duen bat baldin bazara Agnelli baldin bazara.
Agnelli dudarik gabe produkzio-sari handiena berea
da. Langileengana jiratu nintzen Badakizue zenbat
diru eramaten duen etxera morroi honek produkzio-
sari gisa? Badakizue zergatik ez didan esan nahi?

Orduan koronelak hitza hartu eta esan zuen
Baina zuk badakizu nik ikasketak ditudala? Ingeniaria
naizela? Ez ez dakit erantzun nion nik. Eta gehitu nuen
Eta zuk badakizu guri bost pito inporta zaigula zuk ika-
si duzun edo ez duzun? Badakizu gure ustez ez duzula
eskubide gehiago guk baino? Esan zuen Zuri gurasoek
ez dizute erakutsi manera onik? Ez ez didate erakutsi
eta zuri erakutsi dizute? Niri bai. Eta bestetik esadazu
zuk egina duzu soldaduska? Ez ez dut egin baina zer
ikusteko dute hemen familiak eta soldaduskak? Badu
ikustekoa bai familiek hezibidea eman behar dutelako
eta pertsona jantziak errespetatzen erakutsi. Eta zuk
soldaduska egin izan bazenu ulertuko zenuen badirela
toki guztietan errespetatu behar diren instituzioak. Eta
errespetatzen ez dituen anarkista bat da gaizkile bat
txoro bat.

Baliteke ni txoro bat izatea baina egia esan niri
ez zait gustatzen lan egitea. Hori da hori da esan zuen
oihuka aditu duzue aditu duzue greba egiten duten
guztiak zera dira alferrak. Orduan esan nuen nik hauek
zergatik dute nahiago hemen zurekin aritu hizketan
kateetara itzuli baino? Bistan da hauei ere ez zaiela
gustatzen lan egitea. Edozer da aitzakia ona edozer
gauza edozeini aditzea lanik ez egiteko. Langileak ez
du lana maite lan egitera behartua dago kitto. Ni he-
men nago Fiaten ez Fiat gustatzen zaidalako ez baitzait

batere gustatzen ez egiten ditugun autoak ez nagusiak ez zu ere. Dirua behar dudalako nago hemen Fiaten.

Irudipena dut zuk gutxi iraunen duzula hemen enpresan esan zuen koronelak. Jakin dut hor kanpoan guardia bat jipoitu dutela. Nor izan den ikasten badut larrutik ordainaraziko diot. Ez da oso urrun ibiliko erruduna esan nuen nik niri ez zaizkit sekula gustatu asmakizunak. Ederki dakit larrutik ordainaraziko didazula baina bost pito niri. Nik berotu nuen guardia eta beste baten bati ere emanen diot gaur arratsean astindua. Koronelak epelak zetoziola sumatu eta ziztuan atera zen ihesi langileon artetik. Gu hamabostok haren parez pare jarriak baikinen eta atzean gainerako langileak baitzituen. Alde egin baino lehentxeago halere galdetu zidan Zuk nola duzu izena? Izena esan nion eta abizena eta nire nagusiaren izena eta Fiat 500aren kateko 54. lantegikoa nintzela eta hor ninduela nahi zuenerako. Bere beldur ez nintzela ikusarazteko esan nion hori dena. Ikusiko duzu larrutik ordainduko duzu. Hoa pikutara alde hemendik ergela baboa halakoa beste batean ikusiko duk.

Hark alde egin bezain laster langile guztiak eeeeeeeeeee hasi ziren oihu batean denak txaloka Hi haiz hi ederki izorratu duk ergel totala duk ziria sartu nahi ziguan guztioi. Ongi duk ongi duk honetatik airoso atera gaituk baina orain manifestazioa egin behar diagu. Sekulako iskanbila sortu beharra diagu ikaragarria hemen barrenean dagoen guztia txikitu behar diagu. Eta ostikoka hasi ginen materialez betetako kutxak asotsa egiteko zalaparta egiteko burrunba bortitza aditzeko burrun burrun burrun eta bi orduz horrela ibili ginen iskanbilan. Gero noizean behin batzarrak egiten genituen kateen iparraldean batzuetan eta hegoaldean beste batzuetan. Sigi-sagan eteten genituen

kateak oihuka eta builaka denak batera Diru gehiagolan gutxiago! Edo bestela Den-dena nahi dugu. Kateetan alde batera eta bestera ibili ginen eta batzarrak egiten genituen.

Horrela arratsera arte. Arratsean fitxatzeraz joan nintzen. Baina fitxa ez zegoen behar zen tokian. Hartua zuten. Joan nintzen nagusiarengana. Nagusi aizu non dago nire fitxa? Esan zuen Zergatik? Ez dago? Ez egin graziosoarena non sartu duzu? erantzun nuen nik. Nik ez dakit non dagoen esan zuen hark horrek esan nahi du esperatu behar duzula ikusiko dugu gero. Ederki esperatuko dut. Orduan alde egiten hasi ziren langile guztiak ospa egin zuten denek. Iruditu zitzaidan ni beste inor ez zela gelditzen Mirafiorin. Ni han nintzen bitartean nagusi bat atera zen gero beste bat gero beste bat. Egin nuen neure artean E hemen guardia usaina zegok. Nagusi aizu non dago nire fitxa? Bulegora joan behar duzu esan zuen hark.

Bai zera ere ni ez nauk joanen bulegora. Ni bihar berriz sartuko nauk fabrikara fitxarekin edo gabe. Baina ez noak bulegora. Koronelak niri esateko zerbait baldin badu datorrela bera hona lantegira. Nik ez dut hari deus esatekorik berak nahi dit zerbait esan. Eta ziztuan atera nintzen handik azken-azkena ez izateko. Oraindik ere langile batzuk ateratzen ari ziren aldageletatik garbitu eta arropaz aldatu eta gero. Lankideengana joan eta esan nuen Lagunak adizue harrapatu nahi naitek salatzeke. Hauek irteeran harrapatuko naitek eta sakelan edozein burdin puska zahar sartu poliziari deitu eta lapurreta aurpegiratuko zidatek horixe egiten ditek.

Dena antolatua. Ni harrapatu burdin puska bat sartu sakelan edozer buloi bat giltza bat. Poliziari telefonoz deitu eta Lapurtzen harrapatu dugu eta gaur

goizean guardia bat jo du. Eta horrela hiru urteko kartzelaldia. Hura zen haien azpijokoa jukutria. Nola edo hala harrapatu nahi ninduten. Aurrera egin nuen lankideekin batera. Erne irteeran. Han irteeran guardia batek seinalatu eta gela batera sarraraziko naitek eta bilaka hasiko zaizkidak poltsan eta soinean. Beraz ni seinalatzen banaute lankideei esanen zieat ni ez noak barrenera bestela izorratua nagok. Segi dezagun aurrera atera ailegatu eta nagusia ikusi nuen nire nagusia guardiaz inguratua bost guardia baitziren. Esan zuen nagusiak Hori da horko hori.

Guardia bat aurreratu zen itxuraz taldeko ukaldi-emailea eta esan zuen Zu aizu ez hi Fiaten beti zuka egiten baitizute zu zatoz nirekin. Nor ni? Zergatik? Zatoz nirekin. Ez dut joan nahi. Zatoz nirekin. Ez dut joan nahi zer nahi didazu? Zu ez zaituzte inoiz erregistratu? Bai baina gaur ez dut nahi gainera ez dut poltsarik begira elastikoa besterik ez dut. Elastikoa goratu eta soin biluzia erakutsi nuen. Galtza besterik ez ez daramat deus aldean ikusi duzunez. Aio. Zatoz hona esan zuen oihuka.

Astapotro hark niri lepotik heldu eta indarrez estutu zidan. Orduan istant batez aztertu nuen nola arraio jokatu. Harekin nindoalako egin nuen. Gero hanka bat aurrean jarri zangotrabatu eta sorbaldarekin bultzatu nuen. Zanza behi-gorotza bezala erori zen lurrera. Eta ostiko bat eman nion potroetan. Gainera egin zidaten salto beste bi guardiak. Lehengoak lurretik heldu zidan eta beste biak gainean nituen. Ostikoka eta ukondoka lortu nuen bi haiek gainetik kentzea. Segidan haien gainean nengoen saiheska etzanik baina burua makur astapotroak estu-estu heltzen baitzidan lepotik. Orduantxe nire lankide batek lepotik estu heltzen zidan besotik tiratu zuen. Beso hartatik askatu

eta ttu egin nion astapotroari aurpegira. Eta ihesi joan nintzen. Gero nire lankidea harrapatu eta azkenean lanetik bidali zuten niri laguntzeagatik.

Eta kanpora atera nintzen. Kanpora atera eta langile eta ikasle mordoa zegoen han. Ate aurrean zeuden borroka-lagun guztiak eta liskarraz ari ziren. Batzuek zera zioten ongi egin nuela guardiei kontra eginda eta joka. Borroka-egun ederra izan zela baita poz handia ere. Gero bilera bat egin genuen eta gauza horiek guztiak. Langile andana etorri ziren tabernara hainbeste ezen ez baikinen sartzen denak. Eta han ezagutu nituen Emilio eta Adriano ere eta beste borroka-lagun batzuk. Arrats hartan hainbeste ginen ezen handik aurrera batzarrak unibertsitatean egitea erabaki baitzen. Eta hura Fiateko borroka handien hasiera izan zen. Maiatzaren 29a zen hura osteguna.

BIGARREN PARTEA

6

SOLDATA

Bi hiru aste ziren hasia zela dena Fiaten. Borrokak hasiak ziren Battipagliako grebaren ondoren zeinean sindikatuak zehurtiaz hiru orduko lanuzteetarako deia egin baitzuten ez gehiago. Apirilaren 11n izan zen Mirafioriko Hegoaldeko Prentsetako lehenbiziko batzar politikoa 1.500 langilerena. Fiaterako langileak nagusien planaren kontra borrokatzeko lehenbiziko aukera zen hura. Plana zera baitzen langabezia sortzea eta goseak beharturik Hegoaldeko jendea ekarraraztea. Gazte-erreserba ezin handiagoa sortzea eta soldaduskara bezala abiaraztea lan bila Iparraldeko fabriketara. Lana nagusiek ematen ziguten sari bat bihurtzen zen opari bat. Gu ekarraraztea geltokietan lo egitera edo prezio eskandalagarrien truke alokatutako gela batean jende mordoak denak batera.

Hori Laguntzaileen Lantegietako enplegatu batzuk azaltzen zuten Battipagliako grebaren ondoren. Jantokiko mahai baten gainera igo eta azaldu zuten Hegoaldeko jendea zergatik zegoen Iparraldera emigratzera behartua. Orduan zuzendariak ohiko neurria

hartu zuen alegia langile hori Mirafioriko Iparraldeko fabrikara eraman eta gainerako langile guztiengandik urruntzea. Baina asteartean hilak 15 bazen beste langile talde bat horretaz eztabaidan ari zena bigarren batzar batean. Batzarra jantokian egin zuten lanuztea proposatu zuten eta barne-batzordeari eskatu zioten langile hori berehala ekartzeko berriz lehengo brigadara. Nik garai hartan oraindik ez nekizkien gauza horiek. Gero ikasi nituen lankideekin izandako solasaldietan. Lanarekin betiko moztu ondoren. Mirafioriko fabrikaren egun hartan sortu nuen iskanbilaren ondoren.

Handik 48 ordura Laguntzaileen Lantegietan kategorien eta superminimoen aldeko borroka hasi ziren 2 ordu txandan bakoitzean. Lantegi horietako hirugarren kategoria kentzea da eskaera. Eta lehenbiziko kategoriako langileek ere parte har zezaten borrokan sindikatuek superminimoak handitzea ere eskatu zuten. Langileak berehalaxe bildu ziren lanuztera. Sindikatua atzean. Baina proba-saio bat zen. Eta handik hilabete batera Mirafioriko sekzio guztiak hasiko ziren borroka biltzen.

Mirafiorik nola funtzionatzen duen? Produkzioaren bi lerro nagusietako lehenbizikoa Fundazioetatik abiatzen da eta han motor monoblokeak eta aluminiozko burualdeak egiten dira. Handik Lantegi Mekanikoetara doaz eta han motorrak muntatu eta beste pieza batzuekin osatzen dira. Gero motorrak Mihiztadura Lantegietara pasatzen dira muntaketa-kateetara. Bigarren lerroa Prentsetatik abiatzen da eta han karrozeriako piezak modelatzen dira. Handik Mihiztadurara elkarri soldatzeko eta bernizatzeke. Txasisa katean aurrera doan bitartean motorrak eta parte mekanikoak muntatzen dira. Gero autoak apain-

du eta pneumatikoak jartzen zaizkie eta azkenean zelaigunera ateratzen dira.

Maiatzaren erdialdean orga jasotzaileen gidarien grebak hasi dira. Grebak hiru txandak hartu ditu erreserbak buka daitezzen eta lanuztearen ondorioak suma daitezzen barreneko garraioak lotzen dituen sektoreetan ere. Lehenbiziko eguneko 12etan Fiatek lehenbiziko eskaintza egin du 40 lira gehiago egunean hirugarren mailako orga-gidari guztientzat betiere bigarren mailakoek baino 10 lira gutxiago kobratzen eta horrela hierarkiaren aldeari eusteko. Ipar Mirafioriko orga-gidariak ezezko borobila eman diote eskaintzari.

Maiatzaren 19a astelehena orga-gidariak grebari eutsi diote lehenbiziko txanda guztian. Langileek taldekako banaketa hautsi eta lantegiko batzarra hasi dute. Lantegiko buruen proposamena baztertu dute alegia langileen ordezkari bat bidaltzea zuzendaritzarekin hitz egiteko. Orga-gidariak erantzun dute erosoago sentituko direla baldin eta Fiatek bere ordezkariak langileen batzarretara bidaltzen baditu. Langileek batzarretan erabaki egin dute Soldata-igoerak inporta du.

Langileen soldata zer den? Nik ez nuen sekula irakurtzen nomina bost pito inporta zitzaidalako. Baina nominan hortxe ageri da nagusiak langileari ematen dion soldata nola dagoen banatua kontzeptu batzuetan. Gehienbat bitan dago banatua. Lehenbizikoa oinarrizko lansaria da hau da langileak fabrikari egin dituen orduen dagokiena. Horrek izan behar luke soldata bakarra baina oso txikia da eta ez da aski langilearen gutxieneko premiak asetzeko. Horregatik bada soldataren beste parte bat parte aldakorra deitzen zaiona. Parte aldakorrean hainbat kontzeptu egon

daitezke produkzio saria jarraikitasun saria destajuko lanaren saria kalte-ordainak eta abar.

Kontzeptu horiek guztiek gauza bakarrerako balio dute alegia langilearen soldata nagusiaren produkzioa lotzeko. Hau da destajuko lanaren saria zera da langileak egiten duen pieza kopuruaren arabera kobratzen dena. Horretarako langileak beti erne egon behar du nagusien aginduei adi eta men. Haiek ezartzen baitute soldataren parte aldakor hori langileari erabat ezinbestekoa zaiona bizitzeko. Eta horrek nagusiarri bide ematen dio langileriaren gaineko kontrol politikoa egiteko. Eta langileriak horrela bere esplotazioan eta zapalkuntzan laguntzen du. Eta horrexegatik guk oinarrizko pagaren igoerak eskatzen ditugunean nagusiak eta sindikatuek beti parte aldakorrean eman nahi dizkigute.

Zeren eta soldata-igoeran zenbat eta diru gehiago eman guri nagusiak modu horretan orduan eta lotuago gelditzen da lansaria produkzioarekin eta beraz handitu egiten da nagusiaren kontrol politikoa. Baina destajuko lanean nagusia izorratzen ahal dugu geure burua frenatuz hau da langileak pieza gutxiago eginez egin beharko lituzkeenak baino. Gehiago egiten dituenean nagusia irabazian ateratzen da langileari horren trukean ematen dion diruaren aldean. Bere burua frenatuz ordea langileak diru gutxi galtzen du nagusiak jasotzen dituen piezen aldean alegia bietan kaltetuena nagusia da.

Beraz nagusiak soldataren parte aldakor horren bidez ordaintzen ditu langileak egindako lan kantitate desberdinak. Bestalde soldataren egitura bertikala dugu hau da langile baten soldataren eta beste langile baten soldataren arteko aldea bakoitzak egiten duen lan motaren arabera. Kualifikazioen eta kategorien eta

beste tresna batzuen bidezko sistema bat da nagusiak erabiltzen duena langileen batasuna hausteko. Alegia lanpostuarekin lotutako sariak merezimendu eskalak superminimoak *job evaluation* baita metodo zaharkituenak ere hala nola dirua beltzean edo kontraturik gabeko lana. Honekin guztiarekin pagatzen dira langileak egindako lan mota desberdinak.

Baina langile batek egiten duen lanak balio desberdina izate hori alegia bati gehiago edo gutxiago ordaintzea beste langileei baino hori kapitalismoaren asmazioa da goitik hasi eta beheraino. Nagusiek asmatu dute langileriaren kontrol politikorako beste tresna bat izatearren eskura. Eta ez dezagun ahantzi alderdia eta sindikatua ere konforme daudela asmazio kapitalista horrekin. Haien ustez ere bidezkoa da langileak jasotzen duen dirua egiten den lan motaren arabera izatea.

Soldaten arteko alde horietaz baliatzen da nagusia langileari xantaia etengabea egiteko Kualifikazio bat nahi izanez gero hobera egin behar duk zintzoa izan behar duk trabarik ez egin eta bazterrak ez nahi ez duk grebarik egin behar eta beste eta beste. Eta borroketan langileen batasuna hausteko balio diete orduan denek kualifikazioen eta kategorien arabera egiten baitituzte eskakizunak eta horregatik bereizirik borrokatzen baitira. Eta nagusiak beti sindikatu otzan bat aurkitzen du beti kualifikazioen eta kategorien arabera soldata-igoera desberdinak onartzen dituenak.

Gainera lan-ordutegien afera dago. Zortzi ordu bederatzi edo hamar ez badira langilea erabat txikitzen dutenak. Horrela indar gutxi gelditzen zaio denbora libre deitzen den horretan gainerako langileekin elkartzeko eta ondorioz politikoki antolatzeko. Nagusiek zergatik nahi duten beti ordutegia hain luzea izatea?

Gehienbat fabrikatik kanpo ere kontrol politikoa izateko. Eta bigarrenik langileei gehiago produziarazteko. Baina gaur egun langileek uko egiten dio lanari lanaldi laburragoak eduki nahi dituzte politikoki antolatzeo aukera izateko.

Hondarrean araudia dago lan indarraren banaketa bi sektoretan hots nagusiak egiten duen banaketa. Alde batetik langileak bestetik enpleguak eta teknikariak. Konparazio batera gaixotasunengatik bajen araudia oso-osorik langileari lana inposatzeko egina dago. Langileak bajan badago lehenbiziko hiru egunetako soldata osoa galtzen du. Hori ez da horrela enplegatuen eta teknikarien araudian. Hori espresuki pentsatua dago langilea etxean gelditu ez dadin lan egiteko gogorik ez duenean.

Horregatik langileen helburuak beren eskakizun ekonomiko eta materialak dira eta ez besterik hau da beren bizi-premiak inolako zerikusirik ez dutenak nagusien eskakizunekin. Hau da produkzioaren eskakizunekin haiek erabakitzen baitute zer premia ase behar diren. Beraz garbi dago problema politikoa zein den denok batera eraso egin behar diegu nagusiak kontrol politikorako dituen tresnei. Nagusia tresna horietaz baliatzen baita langileria menderatzeko eta produkzioaren eta langileen beren zapalkuntzaren zerbitzura jartzeko.

Nagusien baliabide horri gogor egiteko tresna hau dute langileek alegia soldata ez onartzea soldata arbuizatzea lanaren kantitatearen eta kalitatearen ordain gisara. Alegia soldataren eta produkzioaren arteko lotura arbuizatzea. Hau da soldata ez izatea nagusien produkzioaren araberakoa baizik eta langileen premia materialen araberakoa. Hau da soldata-igoera berdinak denentzat oinarrizko lansarrietatik abiatuta.

Pizgarri materialek konparaziora destajuko soldatak eta kategoriek eta abarrek langilea bere zapalkuntzan berean laguntzea besterik ez dakarte.

Eta nork du kontrol politikorako tresna berrien trukean langilearentzako sosa batzuk gehiago negoziatzeko eginkizun negargarria? Sindikatuak. Eta horrela sindikatua bera bihurtzen da langileria politikoki kontrolatzeko tresna. Bere helburu ekonomikoen eta beraz politikoen aldeko borrokan azkenean beti sindikatua-rekin egiten du talka. Zeren eta langileek ez dutenean onartzen soldata-igoeraren trukean nagusiari kontrol politiko handiagoa ematea orduan langileek bazter uzten baitute sindikatua truke hori negoziatzeko eginkizun negargarria hartzen baitu bere gain.

Horren ondorio da beraz produktibitateari lotu gabeko soldata bermatuaren eskakizuna. Horren ondorio da oinarrizko soldataren gaineko igoera eskatzea lan hitzarmenaren esperoan egon gabe. Horren ondorio da 40 orduko lanaldia eskatzea 36 ordukoa txandakako langileentzat eta 48 balira bezala ordainduak. Horren ondorio da berehalako berdintasuna eskatzea araudia-ri dagokionez. Fabrikaren infernura sartze hutsagatik guk hilean 120.000 lirako gutxieneko soldata bermatua nahi dugu.

Diru hori behar dugulako gizarte ziztrin honetan bizitzeko. Ez dugulako bizi nahi lanak itota destajuan. Langileen batasuna hausteko nagusiak asmatu dituen desberdintasunak desagerrarazi nahi ditugulako. Bat eginik egon nahi dugulako hobeki borrokatzeko. Orduan errazagoa delako nagusiak eskatzen dituen denborei ezetz esatea. Oinarrizko soldata handiagoa izateak aukera gehiago ematen digulako borrokarako. 40 orduko lanaldia nahi dugulako 36 ordukoa txandakako langileentzat eta 48 balira bezala ordainduak.

Ez dugulako bizitzaren erdia fabrikan pasatu nahi. Lana kaltegarria delako. Denbora gehiago izan nahi dugulako politikoki antolatzeko. Langileen eta bulegarien arteko berdintasuna nahi dugu berehala araudiari dagokionez. Hilabete bat opor nahi dugulako. Langileok eta teknikariek bat eginik borrokatu nahi dugulako nagusiaren kontra. Soldata osoa galdu gabe gelditu nahi dugulako etxean lanera joateko moduan ez gaudenean.

Astelehenean hilaren 19ko 11:30 aldean Mirafioriko Iparraldeko fabrikako orga-gidariak telefonoz hitz egin ahal zuten Hegoaldeko fabrikako lankideekin. Handik ordu erdira Mirafioriko Hegoaldeko orga-gidariak lanuztea egin zuten 14:30 arte. Bigarren txandakoek beste bi orduko lanuzte bat 50 lira eskatzeko. 50 eskaintzen badigute 70 eskatzen dugu. Biharamunerako sindikatuek bi orduko lanuztea antolatu zuten orga-gidariarentzat txanda bakoitzaren hasieran. Langileek hirukoa egin zuten bai lehenbiziko txandan bai bigarrenean. Hilaren 21ean nagusiek lehenbiziko txandako seigarren orduan lortu zuten greba uztea. Baina utzi baino lehen garabilariek bi orduko greba egin zuten kualifikazioen problemagatik eta muntaketa-kateetarako piezen hornidura blokeatu zuten.

Maiatzaren 22a osteguna orga-gidarien eta garabilarien pikete ibiltaria lehenbiziko sektore finkoetara ailegatu zen. Prentsa Handietako langileak bildu ziren borrokara. Sindikatuak bi orduko lanuztea ezarri zuen txandako. Lehenbiziko txandako hamarretatik hama biak bitarteko greba barneko manifestazio batekin hasi zen eta lortu zuen oraindik ere lanean ari ziren langileek makinak uztea. Eta porrot egin zuen lehenbiziko lanuzteek sortutako ataskoak gainditzeko Fiatek egingandako azken ahaleginak. Goizean nagusiek Fiat 124aren

kateetan 600 ibilgailu izatetik 641 izatera pasatu nahi izan zuten. Langileak ez ziren hasi lanean. Buruzagiek eta barne-batzordeak lanean hasteko konbentzitu zituzten baina betiere 41 autoen gehigarri hori egin beharrik gabe.

Ostegunean berean hau da maiatzaren 22ko 14:30ean Prentsa Handietako bigarren txandakoak sartu ziren baina lan gutxi eta gaizki egin ahal izan zuten orga-gidarien greba zela-eta materialik ailegatu ez zelako. Handik ordu erdira bi orduko lanuztea hasi zen erabakia zegoen bezala. Une hartan beste proposamen bat ailegatu zen alegia bi orduko greba egitea 21:00etatik 23:00ak arte orduantxe iritsiko baitzen orga-gidarietzako materiala. Buruzagi bat azaldu eta langileei galdetu zien zer nahi zuten baina inork ez zuen deus nahi. Buruzagiak ondorioztatu zuen ez zekitela. Sindikatuaren buruzagiarekin batera barne-batzordea ailegatu zen esanez prentsetako langileek ez zutela jokatu behar orga-gidariak bezala beren kasa egiten baitzuten greba. Horrek Fiat guztiari egiten omen zion kalte eta fabrika ixteko arriskua omen zekarren.

Sindikatuak hiruretatik bostak bitarteko lanuztea proposatua zuten hirugarren txandarako. Batzarrean langileek ordea ordu bietatik seiak arte egitea erabaki zuten. Hilaren 23an ostiralean Prentsa Handietako lehenbiziko txandan sindikatuak ezarrirako bi ordukoa egin zen baina eztabaidan erabaki zen beharrezkoa zela greba 14:30 arte luzatzea. Bitartean muntaketa-kateetako langileek beren kideen gonbita jaso zuten hau da beren borrokara biltzeko gonbita. Egun hartatik aurrera Mirafioritik ez zen atera ez Fiat 124rik ez 125ik eta Fiat 600 eta 850 bakar batzuk baizik ez. Ordurako 12.000 langile zeuden greban. Larunba-

tean maiatzaren 24an alegia sindikatuak erabaki zuen ez zuela merezi greba egitea txanda bakarra zegoelako. Lan egin zen baina produkzioa murriztuz betiere. 1.300 auto atera ziren eta ez 3.500 normalean bezala.

Batzar eta eztabaidetan zera esaten zen Gure helburua ez dira 50 lira ziztrin horiek nahiz eta mesede egiten diguten gure helburua langileen antolamendu iraunkorra da nagusia edozein momentutan makurrazteko moduko antolamendua. Pikutara demokrazia 25 urte dira demokrazian gaudela eta 25 urte daramatzate gu izorratzen. Antolamendua behar dugu gu gara sindikatua eta ez dago armada indartsuagorik langileria bat egina eta antolatua baino. Borrokak jarraituko du hurrengo egunetan manifestazioekin eta sektoreka-ko batzarrekin eta berez zabalduko da Prentsa Ertain eta Txikietara. Hemen grebak modu autonomoan antolatzen dituzte langileak eta ez sindikatuak. Greba hauek aurrera jarraitzen baitute egunetik egunera eta horrela olio-orbana bezala hedatuko da. Zer nahi dute Fiateko langileak?

Fiateko langileak lehenbiziko aldiz ez ziren bildu borrokara sindikatuak proposatutako eskakizunen alde kateko delegatuak proposatutakoen alde adibidez. Aitzitik fabrikaren lan antolamendu oso-oso errefusatu zuten eta beraiek erabaki zuten eta ez sindikatuak. Hilabeteen 80 90 100 mila liraren truke edonor leherzteko moduko lan-erritmo jasanezinak dituzte eta nagusiak etengabe handitzen ditu erritmo horiek. Esaterako 124aren Karrozerien Sekzioan egunean 320 auto egiten ziren 1968aren hasieran gero urrian 360 gero Avolakoaren ondoren 380. Gaur egun nagusiak 430 egitea nahi du eta ez du gehiago eskatzen borrokak direla medio. Kopurua handitze horiek muntaketa-kateetako lan-erritmoak azkartzearen ondorio dira jakina. Baina

Fiateko langileak nazkatu dira eta ez dute gehiago aditu nahi haiek berek erabaki nahi dute zenbat lan egin.

Duintasunez bizitzeko aukera ematen dien soldata seguru bat nahi dute denentzat eta bost axola zaizkie osagarriak merituak igoera portzentualak parametroak eta abar. Alegia nagusiek sindikatuekin batera soldata gero eta gehiago esplotazioarekin lotzeko eta langileen batasuna hausteko asmatu dituzten mekanismo guztiak. Bost axola zaie kateko delegatua ere delegatua baita sindikatuaren baliabidea langileak bere intereserako erabiltzeko. Kateko delegatua ikuskatzaile moduko zerbait baita kontrolatu behar duena betetzen direla hitzarmenean lan-erritmoez erabakitakoa hau da esplotazioaren erregulartasunaz erabakitakoa. Baina hain zuen ere horixe errefusatzen dute langileek. Hain zuzen ere lan-erritmoen kontra borroka egin nahi dute langileek.

Nagusiek aldiz kateko delegatuak nahi dituzte larriuneetarako balio baitiete. Bixi-bixi egin beharreko negoziazioetarako eta hitzarmenak sinatzeko. Nahi dituzte langileen gainera eta haien mugimendu politikoaren gainera kontrol demokratiko etengabea ziurtatzen dietelako. Baina orain Fiateko langileek zera erabaki dute aurreratzea nagusiek sindikatuen adostasunarekin finkatutako hitzarmenen muga-eguna dela eta sortuko den gatazka. Hiru urtez borroka geldiarazi eta nagusiaren planei lagundu beharko lieketen hitzarmenak. Hori dena Fiateko langileek eztabaidatu eta erabakitzen dute orain sektorekako batzarretan. Langileak lehenbiziko aldiz saiatu dira lan orduetan antolamendu autonomo bat ezartzen.

Zer egin dute sindikatuek orain arte? Borroka itzaltzen ahultzen eta bakartzen saiatu. Prentsa Ertain eta Txikietan eta Mekanikako Lantegietan esan dute

greba espontaneoak legez kontrakoak direla Egiten baduzu guk ez dugu negoziatuko. Esan dute sindikatuek deitu gabeko grebak sabotajetzat hartzen direla. Esan dute soldata-igoera handirik lortzen badugu gero hitzarmen nazionalak xurgatuko duela. Hori ordea ez da egia aldi berean Nebiolon eta Olivettin sinatu diren hitzarmenetan espresuki baztertzan delako igoerak xurgatzeko aukera.

Borrokaren beraren errealitatea deformatu dute zurrumuruak zabalduz adibidez Prentsetako borroka bukatua zela nahiz eta ez zen egia. Esanez Fiatek fabrika itxi beharko zuela baldin eta borroken segida dela-eta produkzioari kalte egiten bazitzaion hau da baldin eta sektore desberdinetan modu koordinatuan bi orduko lanuzteak egiten baziren produkzioa geldiarazteko.

Zurrumurua zabaltzen zuten esanez Fiatek langabezia prestazioen kuxara bidaliko zituela langileak baldin eta hurrengo astean kateak oraindik geldirik bazeuden. Gezurretan aritzen ziren negoziazioez esanez erdietsiak zituztela akordio eta onura batzuk baina egia izan gabe. Iritzi eta hots batzuk ibilarazten zituzten esanez beharrezkoa zela ez piztea Fiaten berriz 50eko hamarkadan izandako giroa sorgin-ehiza eta langile borrokalarienen kaleratzeak.

Esan zuten arriskua zegoela Fiaten aurretiko hitzarmen bereizia izateko eta horrela kategoriaren batasuna hausteko. Baina hain zuzen ere horixe egin dute haiek beti. Langileok Sindikatuek jarraitzen baldin badute borroka ahultzen eta itzaltzen eta bakartzen alderdi bakar batek ere ez badu esaten bere komunikatuetan Fiaten zinez gertatzen ari dena orduan hauxe da gure mezu eta aldarria Fiat guztia borrokan. Kaleratzeko mehatxuei hau erantzuten diogu Mirafioriko langileok Fiat guztia borrokan.

Maiatzaren 27a asteartea 8 orduko greba. Manifestazio bat egin da fabrikaren barrenean eta 5. 7. 13. lantegitik pasatu da oihuka Langileen Boterea. Karteletan hau daramate idatzirik Lan gutxiago egin nahi dugu eta diru gehiago irabazi. Manifestazioa langileek erabaki dute batzarrean fabrikara sartu berritan. Batzarrean eskakizun hauek erabaki dira 50 lirako soldata-igoera denentzat gehi 80 lira gaueko txandagatik 5 astez. Produktio denboren kontra. Sindikatuak langileen erabakiak betearazteko tresna bilakatu izan behar du.

Barneko batzarretan langileek deitutako grebak 13. lantegian lehenbiziko eta bigarren txandan. 1. lantegian lehenbiziko txandan 4 orduz bigarren txandan 4 orduz. 3. lantegian lehenbiziko txandan 4 orduz bigarren txandan 4 orduz. Sindikatuak deitutako grebak Lantegi Laguntzaileetan lehenbiziko txandan 2 orduz bigarren txandan 2 orduz. 5. lantegian 4 orduko lehenbiziko txandan 2 ordurako deia. 8 orduko bigarren txandan 2 ordurako deia. Laneguneko produktioa gutxieneko mailan da.

Eguneko agiria Prentsetako Lantegietako 15. eta 17. ateetan Fiat gutaz trufatzen da 7 lira eskainiz. Sindikatuak gutaz trufatzen dira Fiatek 36,30 lira eskaintzen dituela esanez. Ikus dezagun zer diren 36,30 lira horiek. 21,50 aurreko hilabetean adostuak genituen bazkarirako. 9,80 destajuari lotuak daude eta beraz egunean-egunean izerdi ederrak egin beharko ditugu irabazteko. 5 lira gelditzen dira horiek dira ederki kostata Fiatek 7ra igo dituenak. Guk ez dugu geure burua saltzen 7 liraren truke. Borrokak aurrera jarraituko du. Mekanikariak eta kateetakoak gure borrokara biltzekotan daude. Eguneko agiria Lantegi Mekanikoetako 18. eta 20. ateetan Aurrera jarraitzen du Prentsetako eta Lantegi Laguntzaileetako borrokak. Zabaldu beharra

dago Lantegi Mekanikoetara eta kateetara. Bigarren kategoria eskatu behar dugu denontzat baita Lantegi Mekanikoetakoentzat. Langileok kontrolatu behar ditugu denborak baita egiten den auto kopurua ere.

Borroka-agiriak muntaketa-kateetako 1. eta 2. ateetan Prentsetako grebak aurrera jarraitzen du ez sinetsi nagusiek zabaldutako zurrumuruak. Prentsetan eta Lantegi Laguntzaileetan ezin dute bakarrik greba egin eta horregatik zuen laguntza eskatzen dute. Borrokarako arrazoi berberak baitira Produzioaren kontrola. Kategoria-igoera guztientzat. Nola egin dezakegu borroka Prentsetakoekin eta Lantegi Laguntzaileetakoekin batera? Oraindik ere martxan diren lanak geldiaraziz. Maiatzaren 28a asteazkena Karrozerietako kateetan langileek lana gelditu dute eta manifestazio bat egiten saiatu dira. Sekzioko burua ailegatu eta lanuztea eragotzi du.

Maiatzaren 29a osteguna Hegoaldeko langile gazte bat saiatu da kartel batekin sartzen. Guardiiek ez diote utzi eta liskarrean hasi dira. Bigarren txandan Karrozerietako kateetako lauorgeri bat langile fitxatu eta gero kateen bukaera aldean elkartu eta manifestazioan abiatu dira Fiat 500aren katea geldiarazteko asmotan hau da erritmo eta produkzio bete-betean aritu den kate bakarra. Une horretan nagusiek eta sindikatuek bat eginik taldea murrizteko eginahalak egin eta azkenean hamabost laguneko taldea izatea lortu dute. Langile horiei bost axola zaie eta gainerako langileen artean jarraitu dute batera eta bestera haiekin eztabaidan eta pixkanaka manifestazioa berriz osatu eta erabatean geldiarazi dute produkzioa. Fiatetik ez da ateratzen ari auto bat bera ere.

7

BORROKA-LAGUNAK

Guardien atzaparrei ihesi Fiateko atetik kanpora atera nintzenean beste borroka-lagunekin elkartzeko irrikan nengoen. Bai barreneko borroka-lagunekin bai ikasleekin hau da panfletoak egiten eta gero sarreran banatzen lagundu ziguten ikasleekin. Lagunekin elkartzearren tabernara nindoan bitartean gogoetan ari nintzen. Gogoeta haiek lehenago ere eginak nituen baina oraingoan irudipena nuen behin betiko konklusiora ailegatzen ari nintzela.

Hau da nik mota guztietako lanak eginak nituen nire bizitzan. Eraikuntzan zamalanetan platerak-eta garbitzen jatetxe batean jornalari-lanean eta ikasle ere bai hori ere lana baita. Alemagnan aritua nintzen lanean Magneti Marellin eta Ideal Standarden. Eta orain Fiaten izana nintzen alegia han irabazten omen zen diru mordoagatik mito bihurtutako enpresan. Nahiz eta juxtutik bizitzeko eman lan hark. Nahiz eta langile zapaldu gisa bizi. Han uzten baituzu eguneko denbora libre guztia indar guztia. Eta gaizki jan. Eta goiz jaiki

beharra duzu ezin goizago txanda edo lanaldi batzuetan. Ulertu nuen lana esplotazioa dela eta kitto.

Orduantxe ahitu zitzaidan nik Fiatez nuen mitoa. Hau da ikusia nuen Fiateko lana etxegintzakoa edo plater-garbitzailearena bezalakoa zela. Eta ohartua nintzen berdin-berdin zela Fiateko langilea edo siderurgiako langilea izan berdin-berdin zela siderurgiako langilea edo zamalanetako langilea izan berdin-berdin zela zamalanetako langilea edo ikaslea izan. Lanbide Heziketako eskola hartako irakasleek erabiltzen zituzten arauak edo ni egona nintzen fabriketako nagusiek erabiltzen zituzten arauak berberak ziren. Eta orduan problema larri bat sortua zitzaidan. Egiten bainuen neure artean zer egin behar ote nuen. Zer egingen dut orain zer egin behar dut orain.

Ordura arte behin ere lapurretarik egin gabea nintzen ez nuen sekula izan pistola bat. Behin ere adiskide-traturik izan gabea nintzen bizimodu makurreko jendearekin. Izan banu mesede izanen zen niretzat. Arindu bat izanen zen nire haserrerako edo nahigaberrako edo mesede izanen nuen nire premietarako edo behar materialetarako. Ez nintzen ez mediku ez abokatu ez profesional bat. Dena dela horregatik ez nuen asmorik banketxeetan lapurtzeko edo karrera profesional bat hasteko. Azken batean ez nintzen inor ezin nuen deusik ere egin.

Eta halarik ere banuen bizitzeko gogoia zerbait egiteko gogoia. Gaztea izaki eta odola pilpiraka nuen zainetan. Presio aski altua azken finean. Zerbait egin nahi nuen. Ia-ia edozertarako prest nintzen. Garbi zegoen halere niretzat ia-ia edozer ez zela obrero-lana egitea. Ordurako langile hitza aski makurra zen niretzat. Ez zuen niretzat deus ere esan nahi. Esan nahi baitzuen ordura arte egindako bizimodu alu zikina

egiten jarraitu behar nuela. Bost axola niri lana azken batean lana ez zitzaidan sekula gustatu eta sekula ez zitzaidan interesatu. Eta zertarako aritu behar nuen nik lanean baldin eta ez bazidan balio bizimodua ateratzeko ere. Orain dena ulertua nuen probatuak nituen bizitzeko modu desberdin guztiak. Lehenbizi sisteman integratu nahi izan nuen gero ohartu nintzen sisteman integraturik ere beti ordainduko nuela larrutik. Edozein bizimodu aukeraturik ere beti zegoen prezio bat ordaindu beharra.

Hau da edozer egin nahi duzula ere automobil bat edo soineko bat erosi nahi baduzu ohi baino lan gehiago egin behar duzu ordu estrak egin behar dituzu. Ezin duzu kafe bat ere hartu edo zinemara joan. Hala da helburu bakarra lan egitea eta salgaiak produzitzea duen sistema batean mundu batean. Zerbait lortu nahi duzun bakoitzean sisteman integratu behar duzu berriz ere. Baita fisikoki ere. Jabetua nintzen. Beraz nork bere burua suntsitu gabe bere premiak eta desioak asetzeko modu bakarra nagusien lan sistema suntsitzea zen funtzionatzeko modu hori desegitea. Eta batez ere hemen suntsitzea Fiaten hau da hainbeste langile zituena fabrika erraldoi honetan. Hori baita kapitalaren ahulgunea zeren Fiat geldiarazten badugu ezinbestean dena sartzen da krisian denak eztanda egiten du.

Hara ostatura ailegatu nintzenean borroka-lagun asko nituen esperoan. Elkar besarkatu genuen pozez txorutzen geunden egindakoarengatik. Mirafiori guztia geldiarazia zegoen baita Fiat 500aren kate guztiak ere. Bigarren txandakoen produkzioa erabat blokeatua zegoen. Nahiz eta sindikatuek lortua zuten Lantegi Laguntzaileetako borrokari bukaera ematea lorpen irrigarri batzuen aitzakian. Pixkana-pixkana besteak ere ailegatu ziren alegia ikasleak baita nik se-

kula ikusi gabeko beste langile batzuk ere borrokan arituak haiek ere. Denek hitz egin zuten eta grebak biharamunean ere jarraitu behar zuela erabaki zen.

Otxabutzeko makinetako langileak hau da tornu automatiko izugarri handi horietako langileak ere biharamunean greba egiten saiatuko omen ziren. Erabaki zuten bigarren txandako langileak hirugarren txandakoen zain geldituko direla fabrika eta hirugarren txandakoak lehenbiziko txandakoen zain. Esan zuten manifestazioa egin nahi zutela fabrika barrenean beste lantegi batzuk ixteko. Mekanikako kateetako langile batzuek txanda oso-osoan egin nahi zuten greba. Eztabaida luzea izan zen. Zera erabaki zen biharamuneko lehenbiziko txandan egitea greba 07:30etik 11:00ak arte. Eskakizunak Lan-erritmoen kontra kategorien kontra soldata-igoera handiak denentzat berdinak. Lan gutxiago eta diru gehiago nahi dugu idatzi genuen biharamunean fabrikako ateetan banatzeko prestatzen ari ginen panfletoan.

Eta han poz bat izan nuen ohartu bainintzen den-denek pentsatzen zituztela nik aspalditik lan egiten nuen garaitik pentsatzen nituen gauzak nik bakarrik pentsatzen nituela uste nituenak. Eta ohartu nintzen gu denak gauza bera ginela. Zer desberdintasun dago langile baten eta beste baten artean? Zer desberdintasun egon zitekeen? Beharbada harako hori lodiagoa zela edo handiagoa edo txikiagoa beste kolore batekoa zuela arropa zer dakit nik.

Baina gauza batean ez zegoen desberdintasunik gure nahia gure logika denok ikasitakoa alegia lana dela gure etsai bakarra gaitz bakarra. Den-denok lan horri genion gorrotoa eta lan egitera behartzen gintuzten nagusiei geniena. Horregatik geunden denok nazkatuak horregatik hartzen genuen baja greba egiten ez

genuenean. Kartzela hartan sartu beharrik ez izateko han gure askatasuna eta indarra kentzen baitziguten egunero. Azkenean ikusten ari nintzen nik aspalditik neure burutik ateratako pentsamendu horiek denek zituztela eta denek adierazten zituztela. Eta nire kasa inorekin kontatu gabe nik ordura arte lanaren kontra egindako borroka haiek elkarrekin egiten ahal genituela denok eta horrela irabazi eta garaile atera.

Batzuetan ez diogu elkarri ulertzen edo ez gara konforme jartzen modu desberdinetan hitz egiten dugulako desberdin hitz egitera ohituak gaudelako. Bat kristau gisa beste bat azpi proletario gisa eta beste bat burges gisa. Baina gero praktikan denak borrokan arituak ginenez gero denok modu berean hitz egiten ahal genuen. Ohartu ginen denok genituela premia berberak behar eta gabezia berberak. Eta premia eta gabezia horiek zirela-eta denok berdinak ginela borrokan eta gauza berberen alde egiten behar genuela borroka. Egin genuen bilera ezin ederragoa izan zen ezin be-rago geunden. Bakoitzak bere katean gertatutakoak kontatzen zituen. Inork ezin baitu jakin zer gertatzen den fabrikako bazter guztietan Karrozerietan bakar-bakarrak hoge mila langile baitaude.

Ezin duzu inola ere jakin gertatutako guztia. Zer esan edo egin zuten nagusiek langileek borrokak iraun zuen bitartean. Elkarri dena kontatuz hainbat gauzaren berri izan genuen. Organizazioa sortzen ari zen. Borroka-lagunek ziotenez hori besterik ez genuen behar borroka guztiak irabazteko. Eta borroka-lagun batek kontatzen zuenean edo esaten zuenean zer gertatua zen bere katean eta nola konbentzitu zituen beste lankideak manifestazioan greban edo asanblandan parte hartzeko ba orduan gauza horiek aditu eta berehala niri jatorra iruditzen zitzaidan borroka-lagun

hori nahiz eta behin ere ikusi gabea nuen. Aspaldiko adiskide bat balitz bezala zen niretzat. Anaia balitz bezala zer dakit nik. Borroka-lagun bat. Borroka-laguna hau da nik egindako gauza berberak egin dituen. Gauza berberak egitea baita denok berdin pentsatzen dugula jakiteko modu bakarra.

Bileraren bukaeran panfletoa erabaki zen eta biharamunean borrokan nola jarraitu ere bai. Borroka-lagunek fabrikari ez sartzeko aholkua eman zidaten atxilotutako nindutelakoan. Bestalde esan zidaten ez itzultzeko etxera lotara polizia joan zitekeelako nire bila. Eta lagun batek bere etxera eraman ninduen gaua pasatzeko. Eta horrek ere poztu ninduen borrokan elkarri emandako laguntza baitzen gure organizazioaren muina. Eta hain zuzen ere biharamunean arrebari deitu nion eta esan zidan aurreko gauean polizia nire bila joana zela etxera. Amak gainera idatzi egin zidan eta kontatu zidan karabineroak galdeka zebiltzala jakiteko ni Salernon ote nengoen. Eta beste lau aldiz joan omen ziren arrebaren etxera.

Fiatek salaketa bat jarria zuen guardiari egindako lesioengatik. Ni medikuarenera joan nintzen enpresaren mutualitatera osasun-ziurtagiri bat eskatu nion harramazka bat marrako bat bainuen guardiak egin. Hamar egunerako baja. Gero handik astebetara finikitoa hartzera joan nintzen ustekabezean. Oraindik ere Fiaten txartela banuenez fabrikara sartu ahal izan nintzen. Nire kateko lanpostura ailegatu bezain laster nagusia etorri zitzaidan bi guardiarekin eta esan zidan Nirekin etorri behar duzu bulegora.

Ni nengoen katera begiratu nuen. Han ez nuen lankiderik bakar bat ere ez bakarrik nintzen. Eta ez nekien zer egin zartakoka hasi edo auskalo zertan ez nekien. Bulegora joan nintzen eta itxoiteko esan zi-

daten koronela ingeniaria ailegatu arte. Han esperoan nintzen bitartean sakelatik Fiateko txartela hartu eta ingeniariaren mahaiaren erdi-erdian utzi nuen begibistan. Horixe nahi baitzuten Fiateko txartela kendu nahi baitzidaten berriz fabrikara sartzeko modurik izan ez nezan. Handik laster ingeniaria ailegatu eta esan zidan Bai hauxe nahi nuen zuk ulertu duzun bezala. Ni han nintzen besaulkian nolnahi botata baina hark ez zidan zipitzik esan.

Beste guardia bat iritsi zen gorila bat handi handia eta esan zidan Zer ari haiz hor eserita? Eserita jakina nekatua bainago. Altxa handik. Ez diat altxatzeko gogorik nahi baduk altxa nazak hik. Hik uste duk oso indartsua haizela ezta esan zidan niregana hurbildu bidenabar. Nik ez diat ezer uste besterik gabe ez zaidak gustatzen inor etortzea adarra jotzera eta bazterrak nahastera. Dena dela esan zuen hik zortea izan huen arrats hartan kanpoan ez nengoelako. Han izatera jo'ta xehatuko hindudan akabatu txikitu. Ederki zekiat hilko ninduala baina ez hintzen han arrats hartan eta orain hago lasai. Hura dena probokazio faxista bat zen ni kolpeka has nendin eta horrela niri astindu ederra emateko eta salaketa jartzeko. Horrela poliziari deitu eta kartzela-zulora sartuko ninduten.

Baina ez nintzen tranpan erori han barrenean sekulako astindua emanen zidatelako jo eta xehatuko nindutelako. Eman zizkidaten gutunak sinatu nituen: lanpostuari uko egin eta kaka-nahaste horiek guztiak. Eta kanpora atera nintzenean zenbat eta hogeitatu guardia zeuden bulegoko atetik kanpora nire esperoan istilua noiz hasiko zain. Aldagelaraino eskoltatu ninduten han nire gauzak bildu eta kanporaino eskoltatu ninduten. Hilabete bat geroago finikitoa kobratzeko papera hartuta joan nintzen bulegoak eta erizaindegia

ere dauden eraikineran nire diruaren eske. Jarri zidaten salaketaz ez dut sekula deus jakin ez dakit zer gertatu zen. Amnistia izanen zen noski halako zerbait.

Biharamun goizean lotara joana nintzen lagunaren etxean esnatu nintzen eta gero ikasle baten etxera joan ginen. Han bilera bat zegoen borroka-lagun asko. Gauean ziklostilatutako panfletoak banatu eta fabrikara jaitsi ginen. Jende mordoak zegoen eta sartzen ari ziren langileek esaten zuten haiek ere eginen zutela greba. Sartzen ari ziren langileek bazuten gure borrokaren helburuen berri. Ordura arteko borrokaren helburuen berri Berdintasuna denentzat. Langileek ez zioten inolako baliorik ematen egiten zuten lanari ez ziren sentitzen ez bigarren kategoriako ez hirugarreneko baizik eta besterik gabe berdin zapalduak. Lehenbizi aldiz langileak den-denek soldata bera izateko ari ziren borrokan. Enplegatu gisara araei dagokienez eskubide berberak izateko. Soldata-igoera bera denentzat kategoria bera denentzat gauza horiek gogoa pizten zieten batu egiten zituzten.

Eta gero egunero hala izan zen. Goizean panfletoa banatzera joaten ginen fabrikako ateetara edo borrokarako *La Classe* astekaria hala deitzen baitzen. Astekarian panfleto haiek guztiak biltzen ziren baita mobilizazioei buruzko kronikak ere. Gero lo pixka bat egin gero berriz joaten ginen ordu bat eta erdietan ordu bietan ateetara panfletoa banatzera bigarren txandakoak sartzen zirenean. Eta lehenbiziko txandakoak atera arte egoten ginen zain haiekin bilera egiteko. Arratsean berriz joaten ginen hara hamaiketara bigarren txandakoak ateratzen zirenean eta bilera egiten genuen haiekin batzarra egiten zen. Mirafioriko sarrerek egun haietan merkatu handi baten antza zuten. Jende guztia zegoen han sindikalistak PCIkoak

L'Unioneko gazte marxista leninistak gorritz jantzirik poliziak berdez jantzirik eta gehiago ere bai. Denak lehian saltzaile ibiltariekin langileak noiz aterako zain baitzeuden frutarekin barazkiekin jertseekin transistoreekin. Nor bere salgaiak saldu nahian.

Egia esan PCI beti borroketan absente gero ailegatu zen uztailaren hirua pasatuta ailegatu zen kontatzera borrokan ibilitako proletarioek arduragabekeriak jokatu zutela eta dirupeko probokatzailerik hutsak zirela. Nor eta handik laster epaitegi burgesean kondenatuko zituzten langile berberak. Etorria zen azaltzera langileek modu autonomoan erabakitako eta gidatutako borroka arriskutsuak direla hala egin ez gero nagusiak errepresioaz baliatzen ahal direlako. Aurpegiratzen zigun fabrikatik kanpoko taldetxoak ginela baina ez zen gauza azaltzeko nola moldatzen ziren halako taldetxo txikiak azken hilabeteetakoaren moduko borroka luze eta gogorra antolatzeko.

Sindikalistek PCIko burokratek marxista leninista faltsuek poliziek eta faxistek ezaugarri bat dute denek berbera. Izugarritzko beldurra diote langileen borrokari langileek nagusiak eta nagusien zerbitzariak pikutara bidaltzeko gaitasunari modu autonomoan erabakitzen eta antolatzen baitute borroka bai fabrika barrenean bai fabrikatik kanpo. Haienetzat egin genuen panfleto bat bukaera hau zuena Ez dakit nork esan zuen baleek ere badituztela beren zorriak. Klase-borroka balea bat da. Eta poliziak alderdien eta sindikatuen burokratak faxistak eta iraultzaile faltsuak dira haren zorriak.

Maiatzaren 30a ostirala. Atzo greba manifestazioa antolatu zuten langile bakar batzuek egin bazuten ere gaur ordea Fiat 500aren kateetako langileen % 90ek egin dute. Grebak txanda osoa hartu du eten egin da

produkzioa. Kateko langileek kartelak egin eta manifestazio bat antolatu dute. Lantegiko buruak langileei galdetu die noiz arte egonen diren greban. Langileek erantzun dute Gauzak konpondu arte. Barne-batzordeko kide batek kargu hartu die langileei esanez kasu gehiago egiten dietela ikasleei sindikatuari baino. 10:30etik aurrera lanera itzultzera gonbidatu ditu argudiatuz bilera bat egiten ari direla langileen eskakizunez eztabaidatzeko.

Mantentze-lanetako langileek gaueko txanda osoan egin dute greba eta goizean manifestazioan joan dira Fiat 500aren katera. Bernizatzeko kabinetan ez da lanik egin. Fiat 124aren katearen bigarren txandan langile bat aukeratu dute beren eskakizunak aurkezteko Lan-erritmoak. Kategoriaz igotzea 6 hilabete pasatu eta gero. Dirua. Gaur zaharrenek ere gogotsu egin dute greba. Nagusietako batek grebalarien izenak eskatu ditu. Barne-batzordekoak etorri dira eta esan dute Fiat prest dagoela negoziazioei eusteko baldin eta greba bertan behera uzten badute ez bestela.

Zeren egia esan greba horrek ustekabezan harrapatu zuen sindikatua eta hark aurreikusitako denborak aurreratu. Kateetan delegatu bat lortzeko bataila baitzuten helmuga. Geldialdi eta mobilizazio autonomoz beteriko bizpahiru egun pasatu arte ez du lortu sindikatuak protagonismo pixka berreskuratzea bere greba ofizialerako deia eginez.

Jakin dugu Fiata Grandi Motorin 400 langile dituen sektore oso bat geldirik dagoela. Spa Sturako proba-geletan 400 langilek geldialdi espontaneo bat egin dute. 15 egun lehenago ere izanak ziren bi geldialdi. Mirafioriko Lantegi Mekanikoetan otxabutzeko makinetak langileek astearterako greba bat erabaki dute asteartean 8etatik 10ak arte. 24. lantegian gel-

dialdi espontaneoak egin dira. Sindikatuek espres zabaldutako zurrumurruek desadostasunak eta ikamikak sortu dituzte ikasleen alde dauden langileen eta sindikatuen alde dauden langileen artean. Langile batek esan du Argentinan Córdobako Fiaten greban hasi direla eta polizia tiroka hasi eta langile batzuk hil dituela. Alimaleko iskanbilak izan omen dira.

Ekainaren 1ean igandea eta ekainaren 2an astelehena egun guztian langileen eta ikasleen asanbladak egin dira. Ekainaren 3an asteartea bi orduko greba izan da kateetan. Fiat 124aren eta 125aren kateak geldirik daude pieza falta dela-eta. Bernizatzeko kabinak zortzi orduz egon dira geldirik. Zortzi egun dira pieza falta nabari dela Fiat 124a prestatzeko lanetan. Langile batek zioenez Prentsak geldirik zeudenez kateek funtziona zezaten Fiat ordezeko piezak erabiltzen ari da Alemaniara eskatuak. 600aren eta 850aren kateetan greba. 55. lantegian greba. Ez dute delegaturik aukeratu. Prestatze-lanetako lantegietan greba egin dute hartarako deirik ez bazegoen ere. Langileek ez dute bat egin sindikatuaren grebaren arrazoiekin. Ez dute sentitzen kateko delegatua lortzeko borroka. Beren grebak erabakitzen dituzte beren intereseko helburuei buruz hitz egiteko antolatutako batzarretan. Langileak sindikatuek deitutako grebez baliatzen dira haiek luzatzeko. Eta grebarik egiten ez badute produkzioa murrizten dute.

Ateetatik borrokaren gorabeheren eta ibiliaren gainerako berriak heldu dira. Fundazioak sindikatuen kontroletik kanpo daude erabat. 2. lantegia geldirik dago 8 orduz. Helburu sentituena soldata. Langileak ez dira fidatzen kanpoko inongo indarrez. Orduko 200 lira-ko igoera eskatzen dute oinarrizko soldataren gainetik. Cuneo kaleko Fiat Grandi Motoriko lantegien sektore

bat greban da ostegunaz geroztik kategorien eta soldataren alde. Zuzendaritzak 7 lira eta bigarren kategoria eskaini ditu. Prentsetako 13. lantegian 4 orduko grebarako deia egin du sindikatuak. Delegatu bat aukeratu da. Eztabaida bortitza izan da. Delegatuari sindikatuen menpekota izatea aurpegiratu zaio. 20. atean 800 langilek bi orduko geldialdia egin dute. 13. atean arrakastaz egin da produkzioaren borondatezko murrizketa. Langileek diote produkzioaren borondatezko murrizketa dela langileriak delegatuari ematen dioten erantzuna.

Aurrera doa 8. ateko greba. Lauzpabost egunerako erreserbak daude. Sindikatuak presioa egin dute langileak lanera itzul daitezen. 53. lantegian grebari lotu zaizkio berriz. Delegatua aukeratu dute. Sindikatua langileen arteko zatiketa bultzatzen ari da kateetako lan-erritmoa hartuz eskakizun bakartzat eta soldataren eta kategorien aldeko borroka baztertuz. Nagusia denbora irabazten saiatu da. Lehenbiziko katean 1'50" zen denbora. Gero 1'40". Lanuztearen ondoren minutu batera jaitsi da. Denborak nagusiak ezartzen ditu beti. 58. lantegian lan-erritmoak eta dirua. Horiek dira lortu nahi diren helburuak. Destaju-laneko delegatuak ez du deus ere balio. Lan-erritmoak guk jaisten ditugu.

Borroka guztiak lehenbiziko eta bigarren txandatik ateratzean egiten ziren batzarretan eztabaidatzen ziren. Langile eta ikasleen lehenbiziko batzar hauetara Mirafioriko langileak etortzen ziren eta ez beste inor. Baina gero borroka zabaldu ahala beste fabrika batzuetan antolatu ahala esaterako Spa Sturan Lingotton Rivalentan eta beste zenbaitetan Fiateko beste fabrika horietatik ere hasi ziren langileak ailegatzeko batzarretara. Eta horrek borrokak aurrera eramateko aukerak handitzen eta ugaltzen zituen langile bakoitzak borroka-lagun bakoitzak bere esperientziak eta

ideiak aportatzen zituelako. Nola egin lanuzteak nola egin manifestazioak zer helburu proposatu eta abar. Fabrikan zer komeni den blokeatzea produkzioa geldiarazteko ahalik eginahal txikiena eginez.

Zera esan behar da adibidez hau eskatu behar da ehun eta berrogeita hamar lirako igoera oinarrizko soldataren gainetik eta lan-erritmoak moteltzea bigarren kategoria denentzat eta halako gauzak. Konparaziora auto bukatuak kateetatik hartu eta zabaldira eta kamioi eta trenetara guk hegazkin-ontzi deituta koetara igo behar dituzten langileek honakoa esaten zuten Guri ez digute gidariei bezala ordaintzen hau da bigarren kategoriakoei bezala. Materialen garraiatzaile gisara ordaintzen digute hau da hirugarren kategoria hamar mila lira gutxiago. Nahiz ez badugun gidabaimena barrenerako eta kanporako. Orduan guk zera egiten dugu orduan autoa gidatu beharrean lauren artean eskuz eramaten dugu bultzaka. Eta horrela kateak ataskatzen ditugu azkenean gelditu eta den-dena blokeatzen dugu.

Denek ideia mordoia esaten zuten borroka aurrera eramateko moduz. Batzarretan informazioa eskatzen zen lanuzterik egin ote zen barrenean sektore kate edo lantegi bakoitzean. Behar bezala banatu ote zen panfletoa ba ote zegoen zigorren bat jasotako lan-kiderik enpresak hartu ote zuen errepresio neuririk. Hau da borrokan parte hartutako langileren bati lanpostua aldatua ote zioten edo lanpostutik berezia ote zegoen edo halako gauzak. Eta geneukan informazioa kontuan harturik eta ikusirik ba ote zegoen animorik borrokarako ba horren arabera egiten genuen biharamunerako panfletoa. Ateratzen ziren lankide guztiek ziurtatzen bazuten biharamunean greba egiteko au-

kera zegoela orduan biharamunerako greba deialdia egiten zen helburu jakin batekin.

Bi hilabetetik gorako borroka izan da borroka zeharo espontaneo. Ez zegoen egunik sekzio bat lan-tegi bat geldiarazten ez zenik. Astean behin edo Fiat guztia blokeatzen zen. Egia esan borroka etengabeko egunak ziren. Izan ere panfletoen goiburuetan horixe jartzen genuen Borroka Etengabea eta halaxe izan zen Fiaten Turinen hilabete haietan borroka etengabea. Lana geldiarazi nahi zen kosta ahala kosta hau da ez genuen lan gehiago egin nahi. Krisian sartu nahi genuen produkzioa betiko. Nagusiak belauniko jarrarazi eta gurekin negoziatzera makurrarazi. Iraupen luzeko bataila zen hura.

Batzarretan gauza bat agerikoa zen ordura-ko. Langileok irudipena genuen gure eta nagusien arteko talkaren fase inportante batean ginela fase erabakigarrian. Nabaria zen kontzientzia hori giroan. Eta batzarretan maiz hitz bat maiz erabiltzen zen iraultza hitza. Familia zuten berrogei urteko lankideak ikusten ziren Alemanian lan egindakoak eraikuntzan lan egindakoak. Lanbide guztietan aritutako jendea. Eta orain esaten zuten lanak leherturik ailegatuko zirela hirurogei urtetara.

Ez dago eskubiderik halako bizimodu ziztrina izateko esaten zuten langileek batzarrean eztabaide-tan ateetan. Den-dena produzitzen dugun aberastasun guztia gurea da. Aski da. Ezin gara gu ere gauzak izan salgaiak. Den-dena nahi dugu. Aberastasun guztia botere guztia eta lanik ez. Zer ikusteko dugu guk lanarekin? Egoeraren jabe egiten hasiak ziren eta borroka egin nahi zuten ez nagusia gaiztoa zelako baizik ez nagusia izan bazelako. Laburbilduz boterea izan nahia azaleratzen ari zen. Hiru-lau umeko langileengan

langile ezkongabeengan umeak eskolara bidali behar zituzten langileengan etxerik ez zuten langileengan. Gure ezin konta ahala eskakizun batzarrean borroka-helburu zehatzak bihurtzen ziren. Horregatik borroka ez zen fabrika jakin bateko borroka bat. Fiatega ehun eta berrogeita hamar mila langile baititu. Izugarri handia zen borroka baina ez bakarrik langile kopuru ikaragarri handi horrekin zerikusia zuelako.

Baizik eta borroka horien edukiak langileek nahi zituzten gauzak ez zirelako sindikatuak eskatutakoan modukoak Lan-erritmoak altuak badira jaitsi ditzagun erritmoak. Lana kaltegarria bada murriztu dezagun haren arriskua eta halako ergelkeriak. Baina langileek jada ez zuten parte hartu nahi. Jabetuak ziren fabrikatik kanpoko boterea ere nahi zutela. Ederki fabriketan borroka egitea lortzen dugu nahi dugunean lortzen dugu produkzioa blokeatzea. Baina kanpoan zer egingen dugu? Kanpoan alokairua ordaindu behar dugu jan egin behar dugu. Eskakizun horiek guztiak genituen. Langileak ohartuak ziren ez zutela inolako botererik kanpoan Estatuak maila guztietan izorratzen zituen. Fabrikatik kanpo lanerako buzoa erantzten zutenean ez ziren gainerako herritarrak bezalakoak. Beste arraza batekoak izaten jarraitzen zuten. Esplotazioaren sistema honetan kanpoan ere langile ziren. Kanpoan ere langile gisa bizitzen kanpoan ere zapalduak izaten.

Egiten ziren panfleto horiek batzarretik ateratzen ziren panfleto horiek langileek etxera eramaten zituzten. Lagunei erakusten zizkieten beharbada etxegintzan edo beste zerbaitetan aritzen ziren langileei. Eta horrela nonahi zabaltzen ziren. Askotan auzoetara banatzeraz ere joaten ziren Nichelinora adibidez. Izan ere gerora Nichelinon udaletxearen okupazioa egin zen egun askoan etxearen problematikarengatik. Alo-

kairu izugarri altuak ordaintzen omen ziren ezin omen zuten halakorik ordaindu. Panfleto bat egin zen hone-la zioena Alokairua soldataren lapurreta. Eta handik aurrera ez zuten ordaindu. Okupazioa PCIn zeuden borroka-lagun batzuek ere egin zuten baina gero PCI utzi zuten alderdiak denetik egin eta gero lortu zuelako udaletxearen okupazioari bukaera ematea.

Nichelino Turin ondoko langile-hiri bat da. Han bizi diren 15.000 herritar aktiboetatik 12.000 dira langileak eta haietatik 1.700ek Nichelinson bertan egiten dute lan eta 5.500ek Fiaten zenbait fabrikatan Carmagnolan Rivaltan Mirafiorin Airasca Spa Sturan eta. Gainerakoek gehienbat Fiatekin loturiko fabriketan egiten dute lan adibidez Asperan Frigon Carellon eta inguru guztian barreiatuak dauden beste askotan.

Han langile-familia baten balantzea hauxe da Nichelinoko fabrika bateko soldata zortzi ordurengatik 60.000tik 80.000 lirara bitartekoa da hilabetean. Gela baten alokairuak 10.000 balio du eta etxe batena 20.000tik 35.000ra bitartekoa da gehi 2.000tik 4.000ra etxeko gastuengatik eta beste hainbeste berokuntzaga-tik. 30.000tik 50.000ra bitartean gelditzen dira bizitzeko beraz lan ordua 10-14 liran ateratzen da. Fiaten lan egiten duenak ez du balantze hoberik. Garraio gastuek eta garraioan emandako denborak bi ordu gutxienez egunean soldatan dagoen aldea jaten dute.

Nichelinoko etxebizitzaren ezaugarriak Zerbitzu falta ia erabatekoa. Etxejabeen xantaia etengabeak familia handik botatzeko mehatxupear. Ume askoko familien zailtasun izugarriak etxea aurkitzeko batez ere Hegoaldeko familiak baziren. Hamahiru egun irau zuen okupazioan egunkariak plazako horma-irudiek egunero-egunero eman zuten Fiateko borroken berri eta populazio guztia joan zen udaletxe okupatura

eztabaidetara. Borroka-batzordeak sortu ziren beste fabrika batzuetan eta eskakizunen plataformak Mirafiorikoaren jarraibideen arabera bateratu ziren. Fabrikako problemak fabrikatik kanpokoekin lotzen ziren eta helburuen batasuna borroken arteko lokarri bihurtu zen.

Borrokaren helburu zehatz hauek material hauek hiri guztira zabaldu ziren jende guztiari interesatzen zitzaizkielako denengan zuzeneko eragina zutelako. Eta horregatik guztiagatik lehertu zen egoera piztu zen borroka uztailaren 3an eta sekulako bataila izan zen langileriaren eta Estatuaren polizia-banden artean. Uztailaren 3ko bataila izugarri hura honako honen ondorio izan zen Jende guztiak kaleetan eta etxeetan berehala ulertzen zuen langileek zergatik egiten zituzten manifestazioak zergatik egiten zioten kontra poliziarri. Manifestazioak ez zituzten egiten iraultzaileak zirelako eta horregatik ezinbestean manifestazioak egin behar zituztelako. Langileriaren helburuen aldeko borroka zen Mirafiorin azkeneko asteetan egiten ari ziren borroka orain kalera ere Traiano etorbidera ere ateratzen ari zena. Asteak ziren denek bazekitela zein ziren helburu horiek. Eskolako gastuak liburuak garraioko gastuak etxea gauza horiek guztiak. Fabrikan irabazten zuten dirua xahutzen zieten gauza horiek.

Eta bazekiten ez zela deus konponduko sindikatuen grebekin sindikatuek eskatzen zituzten moldaketekin Estatuak adeitasunez onartu behar baitzituen eta egia esan onartu egiten zituen onuragarriak zirelako bere interesetarako bistan zen greba haiekin moldaketa horiekin ez zela inola ere deus konpontzen. Gauzak beti indarka erdietsi behar baitira bortxan. Eta beti izorratzen zituen Estatua zuten parez pare eta Es-

tatuari eraso nahi zioten Estatua baitzen beren egiazko etsaia suntsitu beharreko etsaia. Ongi baitzekiten etxea izaten ahal zutela beren beharrak asetzen ahal zituztela baina hori ez zen posible horretarako Estatua behin betiko txikitzen ez bazuten bortxako lanean oinarritutako errepublika suntsitzen ez zuten. Horregatik ezin da inondik inora pentsatu jendearen haserrea edo uztailaren 3ko beroa izan zenik han izandako bataila izugarriaren kausa.

8

AUTONOMIA

Ekainaren 5a osteguna. Mirafiorin muntaketa-kateetako langileak tarteka berriz lanari lotzen ari zaizkion bitartean Fundizioetako langileak hasi dira borrokan. 2. lantegikoek txanda bakoitzean 8 orduko greba egiten jarraitzen dute. Borroka 3. eta 4. lantegietara hedatu da. Lantegi horietako langileek 2. lantegikoaren eskakizun berberak eginez erabaki dute greba egitea: 2200 lirako igoera oinarrizko soldataren gaintik eta siderurgiako kategoriara pasatzea. Zuzendaritzak 3 liratik 21era bitartean eskaini du lanpostuaren lansariaren gaintik. Langileek ezezkoa eman diote eskaintzari. Eskatzen dugun den-dena lortu arte borrokan jarraituko dugu. Kateetan txanda bakoitzean 2 orduko grebarako deia egin dute sindikatuek. Arrakasta aski partziala izan da. Ostiralaz geroztik kateetako langileek mobilizazioak egin dituzte soldata-igoeren alde eta kategoria-igoeraren alde. Sindikatuetatik aparte ari dira borrokan.

Sindikatuaren eskakizunak hau da kateko delegatu bat izateak ezin ditu konpondu problema hauek.

Egun hauetako borroka ezin da mugatu delegatu baten hautaketara. Motorren muntaketa-kateetan eta abiadura-aldagailuen muntaketa-kateetan langileek bi orduko greba egiten dute txanda bakoitzean asteartez geroztik. Den-denak bigarren kategoriara pasatzeko borroka egitea erabaki dute. Prestaketa-lanetako langile batzuk bildu zaizkie. Prentsetan sindikatuek emaitza irriarriekin eman diote bukaera grebari. Langileak ez daude konforme eta produkzioa ez da normalizatu. Langileek ez dute itzuli nahi lehengo lan-erritmoetara eta nagusia beldurrez dago. Fiateko zuzendaritzak kosta ahala kosta lortu nahi du produkzioa normaltasunera itzultzea haren premia handia baitu izan ere dozenaka mila milioi galdu ditu noiz eta merkatuan eskaera handiena dagoen momentuan.

Sindikatuak borrokak banaka-banaka abiarazten dituzte bat bukatuta bestea irekitzen da borroka ez zabaltzeko eta fabrikan antolatutako langileek beren borondate autonomoa adieraz ez dezaten. Baina langileen borrokak iskintxo egiten die kontrolatzeko saiakera horiei. Ia egunero pizten da borroka berri bat eta langileek berek hartzen dute erabakia. Langileriaren indarraren erakusgarria da hori. Baina ez da aski. Arrisku bat dago hauxe alegia borroka berriak pizten diren bitartean emaitza txarrekin ixtea lehenago hasitakoak zeren eta horrela zailagoa da langileen antolamendu sendo eta iraunkorra sortzea egunero-egunero nagusiak erabakitako lan-baldintzei gogor egiten dakiena. Gatazkaren ondoren langileak batasunik gabe eta antolatu gabe gelditzen badira hori porrota da nahiz eta zertxobait lortu borrokan. Gatazkatik langileak bat eginik eta hobeki antolatuak ateratzen badira hori garaipena da nahiz eta eskakizun batzuk lortu ez eta ase gabe gelditu.

Ekainaren 6a ostirala. 8 orduko greba txanda ba-koitzean 2. eta 3. lantegietan ez ezik baita Hegoaldeko Fundizioetan ere. 4. lantegian ere aurrera jarraitzen du borrokak. Ekainaren 7a larunbata: zuzendaritzak 3 egunez lanik eta soldatarik gabe utzi du 13. lantegiko langile bat. Ekainaren 7a astelehena. 8 orduko greba 13. lantegiko bi txandetan. Hauek arrazoiak Zuzendaritzak langilea lanik eta soldatarik gabe uzteko arrazoi falta izatea eta sindikatuek erantzunik ez ematea langileen eskaerari alegia langile guztiak bigarren kategoriarantz pasatzeko eskaerari. Osasungarritasunik ezaren kalte-ordain berbera denentzat. Lan-erritmoen kontrola langileen esku uztea. Superminimo berberak denentzat. Atsedernaldia luzatzea. Lantokiko giroa hobetzea. Soldata ez xurgagarria handitzea.

Iparraldeko eta Hegoaldeko Fundizioak. Zortzi orduko greba bi txandetan. Zuzendaritzak langileen batasuna hausteko 67 lirako igoera eskaini du lanpostuaren lansarian mailu mekanikoa ibiltzen duten langileei. 890 langiletik 100ek onartu dute ez gehiagok. Karrozerien kateetan lehenbiziko txandan 10etan lanuztea egin dute bernizatze eta leuntze lanetako langileek nahiz eta lehendik prestatua ez egon. Eskakizunak Soldata kategoriak denborak. Barne-batzordeak esana zuen 8etan emanen zuela erantzuna baina ez da azaldu ez da inon ageri. Heldu den astelehenean emanen dutela diote orain. Bigarren txandan nagusiak azaldu dira eta langileen batasuna hausten saiatu dira haietako bakar batzuei eskainiz kategoria. Fiat estutasunetan dago. Auto gutxi produzitzen dira hornidurak falta dira Rivalentarako eta lanaren antolamendua hankaz gora dago. Hori da gure borrokaren lehenbiziko fruitua. Orain aste erabakigarria hasiko da.

Eta nagusia zertan ari da? Gure borrokaren antolamenduaren kontra nagusia sindikatuen konplizitatearekin eginahalak egiten ari da esplotazioan parte har dezagun eta harekin bat etor gaitezen. Hori da funtsean kateko delegatuaren esanahia. Langileok borroka zabaldu nahi dugun honetan nagusiak zera nahi du edo 1962an bezala Fiateko hitzarmen baten bidez langileriaren borrokatik gu bereizi edo gero-ko kontratua aurreratuz gu ongi lotu eta hori azken batean gauza bera da. Eta sindikatua zertan ari da? Lantegi bakoitzean borroka itzali eta itxi nahi du fabrikara etortzen da guri esatera nagusiak zer proposamen egin dituen zer proposamen egiten dizkion nagusiari eta gure bizkar eta gure nahia eta helburuak aintzat hartu gabe negoziatzen ditu proposamenak.

Eta guk langileok zer nahi dugu? Mirafioriko Iparraldeko eta Hegoaldeko Fundizioetan behin eta berri-erri esan dugu erabateko greba eginez. Orain 200 lira gehiago nahi ditugu oinarrizko soldataren gainetik edo siderurgiako langileen soldatarekiko parekotasuna. Eta horrek zera esan nahi du 30.000 lira gehiago hilean oinarrizko soldataren gainetik eta ez nagusiak eskaini duen huskeria. Kateetan 50 lira gehiago nahi ditugu oinarrizko soldataren gainetik. Bigarren kategoria langile guztientzat fabrikari hasi eta handik sei hilabetera. Hori dena orain nahi dugu. Hori ez da negoziatzeko modukoa. Hori dena ez da hitzarmenerako aurrerakin bat. Ez ditugu onartzen nagusien erritmoak. Nagusiari eta sindikatuei hauxe esaten diegu Kateko delegatuak ez digu balio. Sektorekako batzarrek balio digute baita lantegiko batzordeak ere nagusiaren eta bere lan-erritmoen eta haien zerbitzarien kontrako borroka iraunkorra antolatzeke. Gure antolamendua eratuz denok bihurtzen gara delegatu. Langileok bo-

rroka egiten dugunean nagusia ahula da hau da eraso egiteko unea. Lantegiz lantegi antolamendua behar dugu eta gure borroka zabaldu orokortu.

Ekainaren 10a asteartea. Sindikatuek langileen batasuna hausteko duten politikak alegia bakar batzuei kategoriatu emateak eta soldata-igoera desberdinak emateak lehenbiziko fruituak eman ditu. Izan ere bukatu da Fundizioetako borroka eta langileak berriz hasi dira lanean. Kate mekanikoetan greban jarraitzen dute bi orduz. Bitartean Karrozerietako 54. lantegiko langile batzuk berriz antolatzen hasiak dira eta laguntza eskatu diete lankideei ateetan egoteko eta biharamunean eskakizunen berri ematen duen panfletoa banatzeko. Labeetako 25. lantegiko langileek ere panfleto bat nahi dute biharamunerako.

Ekainaren 11 asteazkena. 54. lantegiko arratsaldeko txandako langileek erabaki dute ostirala baino lehen beren eskakizunei buruzko erantzunik jaso ez badute greban hasiko direla. Zabaltzen ari da sindikatua tartean egon gabe eta haren bitartekaritzaz baliatu gabe modu autonomoan antolatzeko joera. Panfletoak nahi dituzte langileek 13. lantegian 85. lantegian 14. lantegiko beste sektore batzuetan Karrozerietako kateetan eta Fundizioetan. Ondorioz gogortu egin da Fiaten errepresio politika. Atzo bi langile kaleratu zituzten 13. lantegian. Greba-orduen deskontuengatik gutxienez sei mila lira gutxiago jaso dutela ikusi dute gaur langileek.

Fundizioetako langileak. Zuzendaritza estatusunetan dago. Erdira murriztutako produkzioak behera egin du berriz langileen inizatibari esker nazkatuak baitaude itxoiten noiz beteko ote diren nagusiaren konpromisoak. Fundizioetako borroka beste egun batzuk iraun balu erabat geldiaraziko zatekeen Fiaten

produkzioa Lantegi Mekanikoetan eta Rivalentan. Oraingoan ordea enpresak erreserbak zituen zeren eta beste toki batzuetan moteldua baitzegoen produkzioa eta horri esker langileek baino luzeago aguantatzeko modua izan du. Nolanahi ere gure borrokak emaitza eskasak izanagatik garbi erakutsi du nolako indarra dugun. Indar horretatik abiatu behar dugu zuzendaritza behin betiko makurrarazteko. Egia esan Fundizioetan izan da borroka latzena eta langileen batasunak han aguantatu du luzean eta nagusiak soldata-igoerak eman behar izan ditu gogoz kontra bada ere. Nahiz eta desberdinak eman eta guk eskatu baino askoz txikiagoak. Hori ez da gertatu ordea langileek soldata-eskaerak eginak zituzten kateetan.

Baina nolako igoerak onartu ditu zuzendaritzak? Hauek ziren gure eskakizunak: 200 lira gehiago oinarritzko soldataren gainetik edo siderurgiako langileen soldata eta araudi bera hau da 30.000 gehiago hilabetean. Lana gogorra eta osasungaitza delako eta gu ez garelako zama-abereak lana dohainik egiteko. Sindikatuak uko egin dio eskakizun horiek defendatzeari baina lasai ederrean eman du behin eta berriz zuzendaritzaren eskaintzen berri. Nagusiak proposatzen duen igoera ez dago oinarritzko soldatari lotua baizik eta lanpostuari. Horrek esan nahi du edozein lekualdatze dela-eta galtzen ahal dituzula hobekuntza horiek eta ederki dakigu zeinen erraz aldatzen gaituen nagusiak lanpostu batetik bestera. 200 lirak ordea berdin dira denentzat horrek langileen batasuna eta borroka indartzen ditu eta gure kontra diskriminazioaz baliatzeko tresna kentzen dio.

Aitzitik zuzendaritzaren eskaintzak sindikatuak azken panfletoan hain ongi azaldu dituenak oso bestelakoak dira eta kategoriaren arabera diskrimina-

tzen gaituzte. Espresuki eginak dira abantailaren bat jasotzen duten langileek banaka-banaka borroka utz dezaten bultzatzeko. Hortaz alferrikakoa da guk elkar zapaltzea zuzendaritzak horixe nahi baitu gure antolamendua eraikitzeko eginahalak trabatzeko. Zeren eta borroka-lagunok guk nagusiari ateratako sosa urrietatik haratago zera dugu borroka honen garaipen handiena lehenbiziko aldiz lortu dugu gure helburuekin eta guk gerok erabakitako momentuan antolatzea eta gidatzea borroka. Dena dela hori ez da aski sindikatuak gure borroka ez bateratzea nahi du eta horrek Fundizioetako langileei grebaren ardura harrarazi die Mirafioriko langile guztiak borrokarako prest zeudenean.

Orain ulertu dugu. Sortu dugun antolamenduak lantegian borroka bideratzeko aukera eman digu barne-batzordeak eta sindikatuak ezarri ziguten isolamendua gainditzeko zeren eta uko egiten baitzieten gure eskakizunak defendatzeari zeren eta Iparraldeko Fundizioetako borroka Hegoaldeko Fundizioetakotik bereizten baitzuten zeren ez baitzieten informaziorik ematen Fiatego beste sekzio batzuetako langileei. Baina mobilizatzeko izan ditugun arrazoiek bizirik diraute. Lantegian antolatu ginen modu berean asmatu behar dugu antolatzen Mirafiori osoan. Nola? Beste lantegietako langileekin batera antolatuz bai zik ez dugu lortuko borroka egitea guretzako kalterik txikienarekin eta nagusientzako kalte handienarekin. Gure indar antolatu guztia erakutsiz baizik ez dugu behartuko nagusia amore ematera.

Ekainaren 12a osteguna. Mirafiorin 13. lantegiko langileek berek murriztua dago oraindik produkzioa. Fiat 850aren eta 124aren eta 125aren kateetan maiz falta dira ateak. Une honetan zuzendaritza sobera izutua dago langile askoren kontrako errepresaliak hartzeko.

Horregatik borrokaren puntu gorienetan langile jakin batzuen kontra jotzen du lanetik bidaliz edo lantokiz aldatuz. Gainerako guztiak beldurtzea espero du horrela. Baina trikimailu horrek ez luke fruiturik eman behar. Gogor erantzun behar da lana blokeatuz lankide bat zigortzen duten aldiro. Errepresioa eraginik gabea bihurtzeko tresna indartsuena batasuna da eta langile guztiak bat eginik egotea. Fiateko langileen borroka beste lantoki batzuetara hedatu da Mirafioritik. Settimoko Grandi Motori garabien gidariak eta enbrageetako langileak. Grandi Motoriko erdialdea P eta B sektoreak. Sima leuntzaileak. Spa erdialdea 3. sektorea.

Egun hauetan greban hasi ziren Fiateko Mirafioriko langile guztien eskakizuna Soldata-igoerak. Beste kategoria baterako pasatzeko eskakizunen funtsa ere hori zen Soldata handiagoa. Eta berdin-berdin gertatzen da soldataren beste kontzeptu batzuen igoerarekin. Baina eskakizun hauek guztiek ezaugarri bera zuten denek ezaugarri zehatz bat igoerak berdinak ziren denentzat eta beste kategoria batera pasatzea ere automatikoa denentzat. Beste kontzeptu batzuen gaineko igoerek ere denentzat berdinak izatera egiten zuten. Horrek funtsezko gauza bat esan nahi du Denentzat soldata bera izatea da gure helburua. Langileak ohartu baitira soldatetan diren desberdintasunak superminimoak kategoriak lanpostuaren osagarriak eta abar zuzendaritzaren tresnak direla langileen batasuna hausteko asmoa dutenak.

Izan ere nagusia produkzioan milioika eta milioika lirako galera ebitatu nahian igoera bereizien bidez baliatu da borroka geldiarazteko. Langile batzuei kategoria-igoera eman die eta ez beste batzuei ez adibidez kateetako arduradun postua edo Lantegi Laguntzailetara aldatzea. Soldatan igoera desberdinak eman ditu

adibidez makinen buruei eta Fundizioetako mailuen arduradunei. Eta gehienetan gehiago produzitzeko pizgarri den soldata-atalaren gainean edo osasun-gaiztasuna onartzearen esate baterako Prentsetako destajuko lana edo Fundizioetako lanpostuaren osagarria. Sindikatuek ez dute gure eskakizunen bozeramaile izan nahi alegia denentzako berehalako soldata-igoera berdinarene eta denentzako kategoria-igoeraren eskakizunen bozeramaile.

Printzipio bati eusten diote hau da oinarrizko soldataren gaineko igoera hiru urtean behin egiten dela lan-hitzarmenaren indarraldiaren bukaeran. Nagusiak soldataren bidez kategorien bidez eta lantegi eta sekzioen arteko desberdintasunen bidez sortzen dituen desadostasun-elementuak onartzen dituzte sindikatuek. Horregatik langileen eskakizunen multzoa zatikatu dute eta horrela borroka ahuldu eta langileen artean nahasmena sortu. Baina langileek denentzako soldata-berdintasunera ailegatu nahi dute. Horrela zatiketa baztertzen baita eta borrokak bateratu eta indartu. Fabrika barrenean denak baitira ezinbestekoak bai teknikaria bai langilea bai espezialista bai makinetako adituak berdin katean dagoena edo peoia. Orain denak baikara gauza zernahi egiteko. Gastuak kostuak berdinak baitira denentzat.

Hori dela-eta ez du inolako zentzurik bulegoariak bajaran dagoenean soldata osorik jasotzeak eta langileak berriz soldataren parte bat galtzeak. Ez du inolako zentzurik bulegoariak 4 asteko oporraldia eta asteen 40 orduko lanaldia izateak eta langileak berriz 3 asteko oporraldia eta 44 orduko lanaldia. Ez du inolako zentzurik langile batzuei gehiago ordaintzeak eta beste batzuei gutxiago. Horregatik gu Mirafioriko langileok ez gaude konforme delegatuekin edo lira gutxiko igoera

bereziekin eta garbi diogu Borrokak aurrera jarraituko du. Gure borrokara Spa Erdialdeko langileak bildu dira Grandi Motoriko eta Spa Sturako sektoreetako 1.000 langileko manifestazio bat eta guregana biltzekotan dira Lingottoko langileak ere.

Ekainaren 16a astelehena. 54. lantegian arratsaldeko 5etan gelditu egin dira Fiat 124aren eta 125aren eta 125 bereziaren kateak. Sekzioko buruak lantegiko buruak eta Fiateko zuzendariak azaldu dira eta eginahalak egin dituzte langileak lanera itzul daitezten. Barne-batzordeko kideak ere ailegatu dira eta esan dute asteazkenerako emanen duela erantzuna. Oraingoan ordea langileen jokabidea bestelakoa da eta honela diote Zuek eztabaidan ari zareten bitartean guk lana utzi eta greba egingen dugu. Afaldu ondoko denbora-tartean Fiat 850aren katea ere bildu da lanuztera eta erabat blokeatu da 84. lantegiko produkzioa. Nagusiek greba zergatik dagoen galdetu dute eta langileek erantzuna eman diete Ongi dakizue zergatik. Orduan enkargatuek 850aren kateko langileei eskatu diete geldituak ziren 22 txasis egin ditzatela aitzakia hartuta bestela herdoilduko direla. Langileek ezetz esan diete eta enkargatuek berek jarri behar izan dute katean txasisak egiten.

Badirudi bihar greba hasiko dela berriz Prentsa Handi eta Ertainetako 1. eta 3. lantegietan eta ibilgai-luak garraiatzeko 85. lantegian. Arratsaldeko seietan auto bukatuak kateetatik garraiobideetara eramaten dituzten langileak sindikatuen erantzuna jasotzera joanen dira. Sindikatuek erantzun negatiboa ematen badiete eskakizunei hau da kategoriari dagokionez jarraitzen badute zuzendaritzan nahi duen bezala materialen garraiolaritzat hartzen eta ez gidaritzat orduan protestan hasiko dira eta autoak gidatu beharrean es-

kuz bultzatuko dituzte. Horrek kateen blokeoa ekar lezake zabaldia ordu erdian autoz betetzen baita. Bitartean okupatua dago oraindik Nichelinoko udaletxea. Lau aste hauetan Fiatek milaka milioi lirako galera izan du produkzioan eta galtzen jarraitzen du. Azkeneko egunetan Mirafiorik produkzioaren ehuneko berrogeita hamarrera baizik ez da ailegatu tonetan neurturik.

Ekainaren 17a asteartea. Mirafioriko borrokak puntu gorenara iritsi du puntu suharrena. Fiatek beste jokabide bat hartu du ikusirik bigarren txandakoek segida eman diotela grebari eta horrek kateen produkzioa eten duela. Zuzendaritzak ulertu du langileek ez dutela deus jakin nahi sindikatuekin. Eta borrokan diren langileei zuzenean deitzera behartua ikusi du bere burua. Sindikatuekin kontsultatu eta gero zera proposatu diete grebalariei alegia ordezkarri batzuk eramatea Turingo Unione Industrialera. Itxaropenez daude ohituak baitaude nahi dutena egiten eta desegiten eta lau hitz merkerekin langileak nahasten. Han 17 lira eskaini dizkiete eta hori gutxi balitz ez denentzat eta soldataren kontzeptu desberdinetan. Baina langileek ez dute beren burua saltzen lau sosen truke.

Eta orduan nagusiei hain heziera oneko eta dotore diren nagusi horiei langileen kontrako irain eta juramentu zakarrenak eskapatu zaizkie ahotik. Zuek Hegoaldeko jomalari zikin zoldazu halakoak atzo goizera arte aitzurrean eta lurra lantzen ari zineten eta orain ttentte heldu zarete oilarturik. Langileek berehala argi eta garbi erantzun diete irain horiei eta batez ere fabrikara sartu eta haserre bizian biziagotu dute borroka. Milaka langileko manifestazio batek blokeatu du fabrikako zoko oro baita emakumeen lanpostuak ere. Kanpora kanpora esanez oihuka lanean jarraitzen zuten postu apurrak geldiarazi dituzte. Horrela Fiat

125 bereziaren katea gelditu da eta baita 500arena ere berriz. Fiat belauniko dago. Egoera deseroso horretan azkeneko jokaldi batekin saiatu da. Unione Industri- lera joanak ziren hamabi langileei bilera batera deitu diete Marcianoren bulegora joateko hau da Mirafioriko zuzendariordearen bulegora baina sindikatuak aparte utzita jokoz kanpo baitaude.

Zuzendariordeak gonbidapena egin die greban diren lankideak lanera itzultzeko konbentzitu ditza- ten eta ulertarazi die bestela neurri latzak hartuko dituztela. Gaua baino lehenago itzuli ezean jendea kanporatzera behartuak egonen gara diete nagusiek. Greban diren langileetako bakar bat ere kaleratzen baduzue fabrika guztiak gogor helduko dio borrokari erantzun dute hamabi ordezkariak. Baldintza hauetan Fiat ez dago negoziatzeko prest dio gogor Marcianok. Eta gu ez gaude lan egiteko prest. Eta hala gertatu. Kateetako bigarren txandakoak gaueko 11etan atera dira fabrikatik pieza bakar bat ere ukitu gabe. Fabri- kako atean sekulako tentsioa dago eta badirudi Turin lehertzeko zorian dagoela. Ez da inor ageri sindikalista bakar bat ere.

Ekainaren 18a asteazkena. Lankideok Goizeko seietan 54. lantegiko lehenbiziko txandako langileek fabrikara sartzean jakin dute aurreko arratsean zer gertatu den bigarren txandako lankideek nola eman dioten segida borroka paregabeari nola zabaldu duten. Atzo bultzaka bezala egin genuen borroka gaur oldar bizian egingen dugu. Eta halaxe gertatu. Fiat 124aren muntaketa-kate batetik auto bakar bat atera da bes- te batetik hiru-lau auto. 500aren kateetan ere erritmo motelean aritu eta gero azkenean erabat geldiarazi dituzte. Bi txandak daude orain greban kate guztiak geldirik. 13:30ean lehenbiziko txandako langileak be-

soa eta ukabila goraturik atera dira fabrikatik. Eta keinu berarekin agurtu dituzte fabrikara sartzen ari diren bigarren txandakoek hau da Mirafioriko lanuztea abiarazi zuten langileek.

Bigarren txandako langileek bat eginik jarraitzen dute greban. Langileei lan eginarazi nahian Fiatek kateak martxan jarri ditu hutsik badaude ere. Baina handik denbora puska batera garbi dago nagusiarentzat ere langileek irri egiten diotela amarru horri eta horregatik kateak itxi ditu. 54. lantegitik barne-manifestazio bat abiatu eta 52. 53. 55. 56. lantegiak blokeatu ditu. Kateetatik arratsalde guztian ez da auto bat bera ere atera. Grebari esker muntaketa-kateak langileen kontrol erabatekoan egonik manifestazioa abiatu da zuzendaritzaren jauregitxo aldera. Han sindikalistekin egin du topo eta haiek ukatu nahian dabilta aurreko egunetan langileen grebaren kontra esandako guztia. Inork ez die kasurik egiten. Manifestazioa fabrikaren atera joan da eta kamioien irteera itxi. Eta berriz kateetara itzuli da eta han-hemenka sortutako batzarretan langileek hitza hartu dute.

Ekainaren 19a osteguna. Lankideok Rivalentako langileek ordubeteko lanuztea egin zuten atzo 72. lantegian. Lanjantzien eskakizuna aitzakia bat besterik ez zen eta benetan langileek esplotazioaren eta fabrika barreneko eta fabrikatik kanpoko bizi-baldintza negargarri eta izugarrien kontra protestatu dute. Barreanean zeren nagusia segi eta segi ari baita produkzio denborak murrizten eta lana gero eta jasanezinagoa bihurtzen. Lan-erritmo horiekin ez baitago jateko edo komunera joateko denborarik ere eta ahotik odola dariela dabilta langileak. Kanpoan gose-soldatak ez baitira aski gero eta alokairu garestiagoak ordaintzeko ez eta bizitzeko gauza oinarrizkoenak lortzeko. Horregatik langileak

behartuak daude logela bakar batean zortzi pertsona elkarrekin bizitzeko edo tren-geltokiaren bankuetan lo egiteko. Horregatik Fiatego langileak diru-gosez daude eta lan gutxiago egin nahi dute.

Rivalta da garapen teknologiaren gailurra automatizazioaren eredia nagusiaren harribitxia. Hara eraman ziren ibilgailu berezien muntaketa-kate guztiak. Han egiten da 128a eta 130a Fiaten azken modeloak. Fiat gaur egun Rivalentz baliatzen da Mirafioriko borrokak dakartzkion kalte gero eta handiagoen gutxienez parte bat berreskuratzeko. Langileak esplotatzen saiatzen da egunero-egunero produkzioa handitu dezatela eskatuz eta muga-mugaraino eramanez langileen erresistentzia. 128aren kateak lau auto gehiago egiten ditu egunean. Baina 72. lantegiak borrokaren hasiera finkatu du. Nagusiak hari aurrea hartzeko eginahalak egin ditu eskuzabaltasunez kualifikazio batzuk emanenez beldur baita Mirafioriko borroka Fiat oso-osora zabalduko ote den. Eta guk ederki dakigu Fiat oso-osoa borrokan hasiz gero nagusia garaitu eta makurraraziko dugula langileek lantegiz lantegi antolatutako eta aukeratutako helburuetan.

Ekainaren 20a ostirala. Lankideok Laugarren egunez segidan Karrozerietako bigarren txandako langileek produkzio guztia geldiarazi dute. Langileen manifestazioak direla-eta alferrikakoa izan da jendea lanera itzularazteko eginahal oro. Lehenbiziko txandakoek ere jarraitu dute borrokan. Asteazkenean lanaldi osoan 30 auto besterik ez dira atera borroka hasi aurretik produkzio normala 400dik gora bazen ere. Atzo ere arras murriztua egon zen produkzioa. Baina hori ez da aski. Lehenbiziko txandako langileek bigarren txandako lankideen indarra eskuratu behar dute. Garatzen ari den borrokaren batasunaren edozein arrakalaz

baliatzen dira nagusiak eta haien morroiak langileok elkarren kontra jartzeko. Arrisku oro errotik kentze aldera erantzun bakarra dago bat eginik egotea borrokan.

Produkzio oso-osoa geldiarazi behar dugu. Hilabete honetan ohartu gara alimaleko indarra dugula aski dela lantegi bat ixtea fabrika guztia blokeatzeko. Gure antolamendua zabaltzen ari da eta lantegi guztiak lotzen ditu elkarrekin eta bide ematen digu arma paregabe hau erabatean baliatzeko. Horrek esan nahi du gaur leunketako eta bernizatzetarako 54. lantegiari baldin badagokio borroka aurrera ateratzea orduan beste lantegi batzuk egonen direla prest erreleboa hartzeko eta ahalik lasterrena hartu behar dutela 54. lantegiko borroka agortu baino lehenago. Langile askok 54. lantegiko lankideen alde egiteko asmoa dute idazki bat sinatuz haiek baitaramate grebaren zama guztia. Ongi da baina ez da aski. Borrokan dagokigun postua hartzeko prest egon behar dugu lantegi guztietan. Elkartu gaitezen 54ko langileekin eta koordinatu ditzagun lanuzteak. Horrela borroka geldiezin izanen da.

Normalean sindikatuak ez dira lasai ibiltzen fabrika aurrean baina gaur zuzendaritzak baimena eman die panfletoak fabrika barrenean banatzeko eta berri faltsuak zabaltzeko. Hori esan nahi du sindikatuak fabrikan. Atzo esan ziguten 12 lira lortu dituztela. Baina guk 50 lira eskatu ditugu oinarritzko soldataren gainetik berdin denentzat. Eta kategoria-igoera denentzat. Atsedendia denentzat produkzioa berreskuratu beharrik gabe.

85. lantegiak borrokan jarraitzen du. Atzo Rivaltako langileak bildu ziren borrokara eta Fiat 128aren katea geldiarazi zuten. Gure ekintzari herenegunez geroztik kontrol elektronikoaren eta mekanografikoaren teknikarien greba gehitu behar zaio. Borroka-mugi-

mendu ezin hobea da hau. Horrek ematen die beldurra irratuari eta egunkariei bai Stampari isilik baitago edo deus gutxi esaten baitu bai Unitari gezurretan ari baita. Kontaktatzeko informazioa eman edo lortzeko eta borrokaren bilakabideari buruz eztabaidatu eta erabakitzeko batzar irekia denentzat larunbatean ekainak 21 arratsaldeko lauretan Unibertsitateko Jauregi Berrian.

Ekainaren 21a larunbata. Mirafiorin 54. 85. 13. lantegiez gain 25. eta 33. lantegiek ere lanuzteak egin dituzte. Grebak hasi dira Rivalentan. Lingotton ere lanuzteak izan dira geroagoko borroka gogorragoen atari. Spa Sturan 29. eta 25. lantegiek bi orduko lanuztea egin dute aste guztian. Mirafioriko kateetan 54. lantegiko langileei beste batzuetakoek hartu behar diete erreleboa borrokan. Eskakizunak aurkeztu diren tokietan zuzendaritzak behin eta berriz bidalitako mezu eta erantzunen zain egon beharrean berehala hasten dira borrokan. Lantegi Mekanikoetan askok diote ez dela komeni orain borrokatzea Fiatek erreserba handiak metatu dituelako. Baina grebak kalte egingen lioke Rivalentako eta Lingottoko produkzioari ere.

Ekainaren 23a astelehena. 85. lantegiko langileok astebete daramagu borrokan guretzat egokienak eta Agnellirentzat kaltegarrienak iruditu zaizkigun bideak erabiliz eta eskakizun argi batekin alegia bigarren kategoria denentzat 54. lantegiko lankideek egin duten bezala. Kateak berriz hasi dira lanean baina denentzako bigarren kategoria lortzeko eskakizuna baztertu gabe. Kateak geldiarazi ditugun arte ez dituzte aintzat hartu gure eskakizunak. Sei kategoria ziren eta orain hirurogei eskaini dituzte. Horretan ere batasuna haus-tan saiatzen dira promesen bidez baten bat erosten. Garbi gelditu dadila ez dugula asmorik gure eskakizuna negoziatzeko. Atzo ere behin-behineko langileei lan

eginarazten saiatu ziren egia esan demonio eskiriolak dira eta horrek gure erantzun zuzena eragin du. Hegoaldeko fabrika guri iheska atera behar izan dute. Iparraldekoan erabat gelditu dugu lana 21. 22. eta 23. lantegietako kateak trabatuz. Gogoratu dezagun denok Borrokak aurrera jarraituko du. Edo bigarren kategoria denentzat edo zabaldiak ere blokeatuko ditugu.

Ekainaren 24a asteartea. 25. lantegia erabat geldirik dago hiru txandak daude greban zortzi orduz. Ohartarazpen batzuk egin nahi dizkiegu gure nagusiei Alferrik ari zarete presioa egiten labeak hustu ditza-gun alferrik ari zarete guri esaten zenbat balio duten labeetan dauden piezek. Sartu nahi izan badituzue zuena da errua ederki baitzenekiten lehenbiziko txandako langileek greba egiteko asmoa zutela. Zuek aldiz ez zenuten sinesten gure indarrean eta horregatik grebak ustekabeen harrapatu zaituzte. Orain nahi baldin baduzue Fundizioek funtzionatzea eta nahi baduzue kalte gehiago ez izatea ordaindu besterik ez duzue. Lehenbiziko txandako langileei beldurra sartzeko bidali dizkiezuen gutunak inor izutzen ez duen probokazio bat dira. Adizue 25. lantegiko langileok guk dugu giderra eskuetan. Gure grebak Fiaten produkzio osoan ditu ondorioak. Atzo bertan zortzi orduko lanuztearen ondoren Lantegi Mekanikoetan larri zebiltzan. Hasiak dira piezak faltatzen Rivalentarako eta Spa Sturarako eta Milango Autobianchirako. Jarrai dezagun borrokan.

Ekainaren 25a asteazkena. Mirafiorin gaur 52. eta 53. lantegiak prestaketa-lanetan ari dira greban 54. lantegiari erreleboa hartzeko eta produkzio guztia geldiarazteko. Bi txandetan egingen da greba. Manifestazio batek produkzio guztia geldiarazi du. Taldeburuak lanari heltzen ikusi ditugu. 52. lantegiko Bruno taldeburuarena da marka bakar-bakarrik hamahiru txasis

egin baititu. 25. lantegiak tinko dirau zortzi orduko greba eginez txanda bakoitzean. Fundizioetako 4. lantegiko 42. sektorean 4 orduko lanuztea egiten ari dira. Bere horretan dirau 16. lantegiaren produkzioaren autolimitazioa. Lanuztea 51. Lantegian. Lanuzteak Lingotton Materferron eta Carmagnolan. Piztu da borroka Rivalentan. Lehenbiziko txandan bi orduko greba 64. lantegian. Lanuztea Fiat 128an bernizatze-lanetan 72. lantegian. Lanuztea Fiat 128aren 75. eta 76. kateetan. Bigarren txandan greba bederatziaik laurden gutxitatik lanaldia bukatu arte. 64. lantegian hiru langile talde geldirik. Ordubeteko geldialdia Fiat 128aren bi berri-kuspen-kateetan eta ordu erdikoa 72. lantegiko hiru muntaketa-katetan. Lehertu da egoera eta nagusia ez da hura kontrolatzeko gauza.

Ekainaren 26a osteguna. Lantegi bakar batzuek denak batera bost asteke greba egin eta gero Fiatek 30.000 auto galdu ditu ia-ia 40 mila milioi lira. Produkzioa arrunt urritua dago. Ibilgailu mota batzuk pieza batzuk falta zaizkiela ailegaten dira katearen bukaerara. Esportazioak blokeatuak daude. Horregatik zuzendaritza eta sindikatuak 60.000 langileri eragiten dien akordio global batera ailegatu dira. Akordioan soldata-igoera diferenteak jasoak daude 5 liratik 84ra oinarritzko soldata ez diren kontzeptu desberdinetan. Baina nork izanen du 5 lirako igoera eta nork 84koa? Langileek ordea ehun lirako igoera eskatzen dute denentzat berdina. Akordioak kategorien araberako banaketari eusten dio eta haiei beste bat gaineratu die hirugarren kategoria super. Baina langileek bigarren kategoria eskatzen dute denentzat kategoriak desagerrarazteko lehenbiziko urrats modura. Soldata eta kategoria desberdinak izatea nagusiek langileen batasuna hausteko izan duten tresna bat izan da beti.

Borrokak aurrera jarraituko du langileen erreklama-zioei kasu egin ez zaielako.

85. lantegian greba beste zortzi orduz. 52. eta 53. lantegietan prestakuntza-lanetan eta Karrozerietako kateetan zortzi orduko greba eta fabrika barreneko manifestazioa lehenbiziko eta bigarren txandetan. Kate guztiak geldirik materialik ezagatik. Motorrik gabe muntatutako 700 ibilgailu desmuntatu beharko dira eta berriz katean sartu. Fundizioetako 4. lantegian 4 orduko greba. Produzioaren borondatezko murrizketa egiten ari dira 13. lantegian. 26. Lantegi Mekanikoa bi orduz geldirik egon da motorren muntaketa-katean piezak falta baitira 25. lantegiko greba dela-eta. 25. lantegian 8 orduko lanuztea hiru txandetan eta langileen piketeak pieza bukatuen ondoan zuzendaritzakoek piezak lapurtu nahi baitituzte. Lingotton 15 minutuko lanuztea 10. lantegian. Rivalentako langileek ezezkoa eman diote 17 lira lortu dituen akordio ziztrinari. Lehenbiziko txandan langileek Fiat 124aren eta 500aren eta 850aren hiru kate blokeatu dituzte eta ez nagusiek ez barne-batzordeak ezin izan dute ebitatu. Bigarren txandan 64. lantegi osoak egin du greba lau orduz Fiat 128aren kateak ordu bakar batez. Lanuzteak Spa Sturan Grandi Motorin Carmagnolan. Geldirik daude fabrika hornitzaile asko ere.

Ekainaren 27a ostirala. 23. 24. 25. 26. 28. 41. lantegietako langileok Fiatek inolako abisurik gabe 25. lantegiko gure 12 lankide kaleratu ditu modu autonomoan borrokan ari zirelako denentzako 50 lirako soldata-igoera eta bigarren kategoria lortu nahian. 25. lantegiko borroka zapuzteko eta sindikaturik gabe borrokatzea arriskutsua dela erakusteko bota ditu Fiatek langile hauek borrokak Lantegi Mekanikoak geldiaraziak baitzituen. 25. lantegiko langileek tinko arbuizatzen

dute xantaita hau eta borrokari segida emanaz erantzunen dute. Orain arteko eskakizunei lehentasunezko baldintza bat gehitu diete alegia berehala berriz onartu ditzatela kalera bidalitako lankideak. 25. lantegiko langileek gainera zera eskatu diete 23. 24. 26. 28. 41. lantegietakoei berehala erantzuteko Fiaten probokazioari lanuzteak geldialdiak eginez jantokian batzarrak eginez zuzendaritzari kaleratutakoak onartzeko gutunak bidaliz manifestazioak eginez 25. lantegiko sarreraraino eta borrokari eta kaleratutako langileei laguntzeko diru-bilketak eginez.

Ekainaren 28a larunbata. Mirafiorin blokeatua dago produkzioa. Rivalentan sektore asko geldirik Mirafioriko 25. lantegiko grebagatik eta Rivalentako bertako 64. lantegikoagatik. Aurrera jarraitzen du Carmagnolako grebak. Lingotton lanuzteak egiten ari dira bata bestearen ondotik eta gero eta indar handigoz. Turindik haratago zabaldu da borroka. Modenako Fiatera. Motorrak enbalatzeko kutxetan Turingo langileek sartutako panfletoei esker berriak bazter guztietara ailegatu dira. Pisako Fiatera. Napoliko Fiatera. Florentziako Fiatera. Triesteko Fiatera. Pontedera Piaggiora. Toki guztietara modu berean eta helburu berekin. Grebak eragina du enpresa hornitzaileetan ere. Gatazka gogortuz doa egunetik egunera. Langileen antolamendua gero eta sendoagoa. Nagusiaren erantzuna proposamen ziztrin bat izan da eta horregatik langileek ezezkoa eman diote. Langile batzuk kanporatu ditu eta halere sindikatuek ez dute txintik esan Beste bi langile kanporatu dituzte Alluminio Carmagnolan. Mehatxuekin erantzun du Zuzendaritzak nagusiei agindua eman die langileei ohartarazpenak egiteko eta zigorrak jartzeko gero horrela legalki kanporatu ahal izateko.

Agnelli brigada faxistez baliatu da erantzuteko. Bart arratsean soldatapeko talde batek sekulako jipoi eta zafraldia eman dio Emilio burkideari Rivalentako 5. atean panfletoak banatzen ari zen bitartean. Bost lagunek berebiziko astindua eman diote basatiki lurrean ostikoka piririka saiatu dira pasatzen ari ziren autoen azpietara botatzen. Halarik ere langileen amorrua nagusien kontra borrokatzeko duten gogoa eta borondatea handituz doa Turingo langileen artean. Borrokarako bulkada eta lidergoa berreskuratu nahian sindikatuek greba orokorrerako deia egin dute ostegunerako hau da uztailaren 3rako alokairuen prezioa izozteko eskariarekin. Larunbatean ekainak 28 arratsaldeko lau eta erdietan batzar orokorra Unibertsitateko Jauregi Berrian Sant'Ottavio kalean San Maurizio kalearekiko izkinan La Moleren azpian Vittorio plazaren ondoan.

9

BATZARRA

Borroka-lagunok Fiateko borrokak lezio bat eman digu fruitu bat langileen autonomia hau da langileek sindikatuen bitartekaritza oro baztertu dute. Modu autonomoan antolatu dituzte borrokabideak modu autonomoan ezarri dituzte helburuak. Eta horrela erakunde autonomoa eraiki dute eta horri esker aurrera eraman dute borroka. Izan dezagun gogoan hau dela Fiateko borrokaren bosgarren astea. Borroka honen fruitua batik bat langileak berdintzeko eskaera da alegia denentzat soldata-igoera berdinak izateko eskaera. Nagusiak eta sindikatuek soldataren egituraren finkatutakoa gainditzea bai kategorien arabera bakanaketa bai lanpostuaren arabera lansaria.

Sindikatuak etengabeaen saiatu dira gure borroka itzaltzen ahultzen mugatzen bakartzen. Lehenbizi sektorekako eta lantegiko negoziazioetan eta gero azkenean Fiat guztia hartzen duen akordio ziztrin horretan lehengo eguneko akordioan. Akordio ziztrin horrek enpresa osoaren mailara goratu ditu lantegietan egingadako eginahalak. Beste modu batean esanda aparteko

igoerak baina soldataren egitura batere aldatu gabe. Beste modu batean esanda igoera gehienak soldataren parte aldakorrean eginak postuaren osagarrian eta abarretan. Denontzat bigarren kategoria jartzea zen langileen eskaera eta horren ordez berriz sindikatuak hirugarren kategoria berezia sortu dute. Kategoria faltsu bat 17 lirako igoera bat besterik ez dena kategoriaren kontzeptuan mozorrotua eta horrela lehenago 5 kategoria baldin bazeuden orain 6 daude.

Borroka-lagunok begi bistakoa da Fiateko langileriak erabateko ezezkoa esan diola sindikatuaren akordio ezin ziztrinagoari. Borrokak aurrera egingen du borrokarako gai berriak piztu dira eta bizirik diraute lehenago hasitakoek. Orain aurreikuspenerako gaitasun handi samarra izan behar dugu aztertzerakoan nagusiak zer tresna erabiliko dituen gure borroka hau itzaltzeko eta batez ere haren edukia faltsutzeko. Aipa ditzagun hemen neurri horietako batzuk Errepresaliak Fiat ixtea oporrak aurreratzea negoziazioak eta hitzarmenatarako akordioak aurreratzea eta halakoak. Eta batzar honetan beste egiteko bat izanen dugu alegia aztertzea nolako eragina duten borroka hauek hitzarmen nazionaleri dagokienez. Eta azken puntua zera izanen da aztertzea zer egin sindikatuak heldu den ostegunerako deitutako greba dela-eta. Oraintxe berean has daiteke eztabaida.

Nik zera esan nahi nuke 45 borroka-egunen ondoren 17 lira lortu ditugu. Ez dakigu zer egin haiekin baina lortu ditugu. Greban 45 egun eman izan ez bagenu ez genituen lortuko horiek ere. Horrela segituz gero eragin inportantea lortzen ahalko genuke hitzarmen nazionaletan ere. Zeren orain sortuko dugun erakundeak hitzarmenerako grebak egiten ditugunean izanen baitu egiazko inportantzia. Eta beste gauza bat

ere esan nahi dut. Inportantea da egun hauetan borroka gogortzea borroka Agnelli ustekabeen harrapatu duelako eta ez duelako oraindik denborarik izan erre-serbak gordetzeko. Ergelenak ere badaki urrian greba eginen dugula. Astebete beharbada 15 egun 20 egun. Eta Agnellik ere badaki ez baita ergela eta seguru nago erreserbak gordeko dituela.

Sokatik gehiegi tiraturik gu langabeziara bidaltzeko mehatxua egin badigu ere ez gaitu bidali baina urrian berriz ateak itxi eta etxera bidaliko gaitu bost pito inporta zaiolako gu nola gauden. Merkatuak orain eskatzen du produkzio parte handiena. Agnellik gehienbat orain behar gaitu eta beraz orain da kolpea jotzeko momentua. Elkartu gaitzen lagunok ez dakit hemen ba ote dagoen inor nire lantegikoa bost axola hemen salatari ipurdi-miazkatzailearen bat baldin badago ere. Baina nik gaur arratsean aldageletako paretak manifestuz josiak utzi ditut. Inork oraindik irakurri ez baditu doala eta irakur ditzala. Fiateko borroka Vietman bihurtu behar du Italiako nagusientzat. Txaloak.

Entzun ezazue lagunok. Atzo guri gutunak eman zizkiguten hau da kaleratze-gutunak. Gaur goizean jakin dugu hamabi kaleratu gaituztela nik sakelan dut gutuna irakurriko dizuet. Hil honetako 24an zure erantzukizunpean izandako eta zuri jakinarazitako gertakari larriak direla-eta honako honen bitartez aditzera ematen dizugu kanporatua zaudela Lan Hitzarmen Nazional indardunaren 38. artikuluko b letran ezarritakoari jarraikiz. Beraz 1969ko uztailaren 9tik aurrera gure Administrazio Bulegoetara etor zaitezke zure lan agiriak eta dagozkizun diru zenbatekoak jasotzera. Adeitasunez. Orain guk 25. lantegiko guztiok zera erabaki dugu den-denok lanera itzultzen ez bagara alegia hamabi kaleratuak ere bai begira orain sartzen ari dira

kaleratze-gutuna jaso duten beste lankideak ba orduan grebak aurrera jarraituko duela.

Baina badago beste kontu bat. Hor kanpoan hemen unibertsitatean sindikalista batekin egin dut topo eta handik laster besteak etorri dira ni kanporatu nahian liskarrean hasiak ginelako zera esan baitiot Zuregana heldu naiz zu sindikalista zara eta ongi da hola. Guk gure eskakizunak aurkeztu dizkizuegu 50 lira. Baina hark esan dit Kosta ahala kosta egin duzue greba denok eta orduan ez didazue deitu. Nik Ez genuen zuri zertan deitu bakarrik ongi moldatzen garelako. Hark Hanka sartu duzue. Nik Zer egingen dugu orain kaleratutakoak berriz onar gaitzaten? Ez zekiela esan du berak orduan. Nik esanen dizut nola jokatu Zu sindikalista zara orduan egiezu grebarako deia Fiateko langile guztiei gure helburua lortu arte kosta ahala kosta. Zeren jendea kaleratzen dutenean grebarako deia egiten duzue ezta? Bestela zer? Ez dit erantzun.

Diot nik nire lantegi osoko borrokaren erantzukizuna neure gain hartzen badut orduan beste lantegiek ere lagundu behar dute gurekin batera greba eginez. 24. lantegira joan nintzen grebara bildu zitezten. Eta esan zidaten PSIUPek⁵ ez egiteko agintzen digu. Orduan pikutara PSIUPeko nazkagarri horiek. Nolanahi ere akordio honetara ailegatu gara kaleratutakoak ezin bagara itzuli lanera orduan ni lanean aritzen naizen lantegian ez da lanik egingen. Txalo zaparrada luzea. Lagunok Agnelli jaunak orain hamabi langile botatzeko askatasuna hartu badu bihar ez dira hamar izanen bostehun baizik. Mila izanen dira bi mila eta denak bidaliko gaitu. Baina ez da bera nagusia. Gu langileok gara nagusiak. Guk fabrika hilabetean ehun mila lira

5 Partito Socialista Italiano Unità Proletaria. Italiako Alderdi Sozialistaren eszisio bat.

irabazten badugu Agnelli jaunak hilabetero berrehun mila milioi irabazten ditu gure izerdiari esker eta izerdia guk botatzen dugu. Egin dezagun greba bai barenean bai kanpoan. Txaloak.

Nik osteguneko grebaz hitz egin nahi nuke. Badakigu sindikatuak gure borroken indarraz jabetzeko egin dutela greba honetarako deia. Baina etxegabetzeengatik edo dena delakoagatik egiten den greba honetaz gure modura baliatu behar dugu ez diegu utzi behar inizatiba sindikatuei. Gure greba gure borroka kanpora atera behar dugu eta horretarako antolatu. Falta diren hiru egun hauetan egin ditzagun antolatzeko eginahalak taldez talde sektorez sektore lantegiz lantegi. Eta saia gaitezen manifestazio handi bat egiten nahi dugun hori elkarrizketaren bidez ez bada indarrez lortzeko. Txaloak.

Borroka-lagunok langileak ez dira kalera aterako han uneoro alderdiak eta sindikatuak menderatutako sumindura adierazteko. Aterako dira bai baina egoerak nazkaturik daudelako eta zer nahi duten adierazi nahi dutelako. Eta kontra egin nahi diete Agnelliri ez ezik alderdi sasi-iraultzaileei eta haien jokamolde faltsutzaileei ere. Sekulako txalo-zaparrada. Borroka-lagunok baten batek zalantza izan lezake arriskurik ba ote dagoen manifestazioan liskar larririk gertatuko ote den. Guk garbi diogu manifestazioa ez dela probokazio bat baina baduela eginkizun bat alegia hiriarri ematea fabrikako borrokaren berri. Hilabete-eta luze honetan fabrika zer eta zergatik gertatu den azaltzea. Eta azaltzea egunkariak denetik egin dutela horretaz ez hitz egiteko. Honen bitartez Turin osoari adierazi behar diogu ez garela konformatuko ez hogeitahirarekin ez hogeita hamarrekin. Eskatu duguna nahi dugu eta eman egin behar digute. Txaloak.

Batzarraren iritzia Greba egiteko asmoa duten langileei proposatu nahi diet eskakizunen artean kaleratutako langileak berriz onartzeko eskaera sartzeko. Lehenbizi Agnelliri erakutsi behar zaio Fiateko borroka ez dutela 17 lirako igoera batekin geldiaraziko. Bigarrenik ez dutela geldiaraziko langileen abangoardiak lanetik kaleratuz ere. Une honetan langile guztiek jakin behar dute errepresalia-ekintza hauei emandako batasuneko erantzuna ez dela gehienbat eraso jasotako langilea defendatzeko modu bat. Baizik eta nagusia bere boterearen muinean jotzea. Bestela esanda gure borrokaren muina gehienbat ez da kaleratutako langilearen alde egitea baizik eta gaur egun Turingo fabrika dagoen sistema oso-osoaren kontra egitea. Guk garbi esaten dugu ez ditugula onartzen kaleratzeak. Txalozaparrada.

Burkideok nik besterik gabe jakinarazi nahiko nieke hemen dauden lagunei Mirafiorin borrokak jarraituko duela eta asteartean bost eta erdietan greban hasiko dela 56. lantegia 54.ak eta beste lantegi batzuek eskatutako gauza berberak lortu nahian 50 lira gehiago 50 lira eta kategoria. Guk astelehen goizean aurkeztu genituen gure eskakizunak eta 24 ordu besterik ez genien eman erantzuteko. Probetako lantegiak eta 19.ak ere greba egin behar dutenez gu greba egun berean hasten saiatuko gara. Ez dakienarentzat hemen baldin bada 56. lantegiko inor ba besteengana jo dezala gu ere egiten ari baikara. Ergeltzat hartu gaituzte sekula grebarik egin ez dugulako orain ordea guk ere zerbait egiten ahalko dugu. Bukatu dut.

Burkideok badirudi uztailaren lehenetik aurrera ogia hogeit hamar lira gehiago kostatuko dela tabakoa berrogeita hamar. Egunkariak garestituak dira etxejabeek alokairuak garestitu nahi dituzte eta kalean uzten gai-

tuzte. Dena garestitzen ari da edozein produktu baita Fiateko autoak ere. Eta guk 17 lira orduko. Guretzat ordea 17 lira horiek ez dira ezertarako konponbidea den-dena garestitzen ari bada. Guri ez digu deus ere konpontzen produktibitate sariaren igoerak. Aditu dut orain gutxiago ordainduko digutela produkzioak behera egin duelako. Egunean ez delako produzitzen zuzendaritzak nahi adina auto. Eta arrazoia galdetu dut. Hauxe esan didate Zuek destajuan ari zaretelako. Baina destajua nork proposatu dit niri? Inork ez. Nik horretaz ez dakit ezer eta nik bezala langile bakar batek ere ez. Langileen eta nagusien arteko bitartekariak proposatu zuten hau da sindikatuek. Guk indarrak baliatuz eskatu duguna nahi dugu.

Esan didate guk orain kontent egon behar dugula 17 lirekin baldin eta nahi badugu lan-hitzarmenaren negoziazioan helbururen bat lortu. Urrian sinatu beharko den lan-hitzarmen ospetsuaren negoziazioan. Paper bustia guk ez baitugu sinatuko. Lasai egoteko esaten digute baina ez da posible premia batzuk aste behar ditugu dirua behar dugu. Eta lortu behar ditugu eta inork ez digu makilarik sartu behar gurpiletan. Esan dute langileei ezin zaiela eman bigarren kategoria kontratatu eta handik sei hilabetera horrela eginez gero enpresak kiebra joko lukeelako. Baina horixe nahi dugu nori axola zaio nagusiak eta bere fabrika nazkagarriak kiebra jotzen badute. Txaloak.

Burkideok Turingo eta probintziako egoera umiliazioa da nagusiarentzat. Fiatek bizibidea ematen digu Fiatek hil egiten gaitu kateetan. Fabrikatik kanpora etxe bat nahi duzu gero Fiaten lan egiten duzu logela eta jantokia 30.000 lira dira hilabetean gehi erosketak-eta. Esplotatuak fabrikan eta fabrikatik kanpora. 25. lantegian egiten dut lan eta kartzela bat ematen du mota

guztietako zolda eta zikinkeria topatzen dugun ziega bat. Fiatego produkzioa hamar langile falta badira ere azkenean produkzio bera egiten da. Nork sufritzen du hori? Guk. Garraioa gero eta garestiago. Nork sufritzen du hori? Guk. Ez zaio inori inporta guk sufritzea nagusiaren esklaboak gara demokratikoki bada ere.

Onean edo txarrean borrokatzen gara baina inolako borroka biderik baztertu gabe. Ehuneko 10etik 12ra bitarteko atxikipenak ditugu. Nola da posible? Borroka borroka eta borroka da bidea diru gehiago eta lan gutxiago izateko. Kapitalismoa abolitu behar dugu eta gizaki gisara tratatuak izan eta ez zama-abere gisa. Kapitalismoa sistema ustela da sistema frakasatua. Inork ezin du jasan. Gazteek errefusatzen dute baita gure artean ikusten ditugun gazte ikasle burgesek ere. Eta langile guztiek dakite nola gizendu den kapitalismoa sufrimenduei eta injustiziei esker. Bildu bildu zaitezte borrokara burkideok ez sinetsi nagusiaren engainuak ez sinetsi sindikatuen engainuak. Txaloak.

Lagunok lehenago aditu dut gure burkide Emilio jipoitu dutela. Nire andrearekin lan egiten duen faxista bati aditu nion atzo Agnelli jaunak milioiak eskaini dituela faxistek ateetara hurbiltzen diren talde guztiak probokatu ditzaten. Uste nuen zurrumurru bat besterik ez zela baina Emilio jipoitu dutela jakinda orain uste dut ari ari direla. Badakigu Emilio jipoitu dutela eta beste batzuk ere jipoituko dituztela. Dena dela interesgarriena zera da Agnellik alde batera utzi duela bere taktika taktika moderno eta demokratiko deitua. Lehenago sindikatuetako lausengariak zituen baina orain haien gainetik pasatu da haien aintzat hartu gabe batera. Orain ez daude tartean ez dakite zer egin haiekin ez diete balio.

Orduan bortizkeriaz baliatzen da hau da kapitalaren azken etaparen bideez. Alegia zartako bat jaso edo porrota izaten duenean lehenbizi onez onean saiatzen da. Gero ohartzten denean horrela ere ezin duela orduan diren ekintza-metodo desberdinez baliatzen da. Tira ba erabil ditzala. Ikusiko da zer gertatzen den. Guk Agnelliri erantzunen diogu esanez egiten ari garen borrokak gure borondatea sendotzen duela baina gainera berak erakutsi digula larri-larri dabilela kinka larrian. Horregatik diot berak edozer eginik ere ez duela geldiaraziko langileen borondatea. Ez dadila ameskerietan ibili ederki daki hala dela. Langileak bestelako pentsamoldea garatzen ari dira ongi ulertu dute zer egin behar duten. Gutxi izanen dira abangoardia bat izanen da dena dela inportantea da hori. Nire burutik ari naiz ez beste batzuen esperientzian oinarriturik. Lau urtean erabat aldatu naiz lehenago nire pentsamoldea zera zen burges-txikia deitzen dena uste nuen onez onean dena erdiesten ahal zela.

Gaur egun nola esanen dut ni iraultzailea naiz. Horrela edo txinoak deitzen digute ez dakite nola deitu ere. Nolanahi ere esan nahi nuen probokazioak izanen direla manifestazioan baina manifestazioa berdinberdin eginen dugu. Esan nahi dut ez gaituela inork ere geldiaraziko. Eta bestetik badago beste gauza bat ere. Alderdi Komunista ez dugu kritikatzeko kritikatze aldera. Logikoa da pentsatzea iraultza ez dela lortuko ez bihar ez etzi baina zera uste dut nik langilearen pentsamoldea aurreratuegi dagoela eta alderdia hori moteltzen saiatzen dela. Egia da pausoz pauso egin behar direla gauzak baina azken batean baldin badago oinarri bat baldin badago masa bat bizkor eta indartsu bultzatzen duena eta esaten duena dena kaka zaharra

dela ba alderdia dena moteldu eta ahuldu nahian dabil sindikatua berdin.

Gainera lehenago lagun batek aipatu duen bezala sindikatua apolitikoa dela esaten dute. Baina hau diot nik Adarra jo nahi diguzue? Benetan uste duzue ergelak garela eta sinesten dugula sindikatua apolitikoa izan daitekeela? Baina orain ederki izorratuak daude haiek ere. Mertzenarioak dira eta mertzenarioei zor zaien tratua emanen diegu. Horregatik sindikatuak zuek segi horrela segi. Ahal duzuen bitartean segi ezazue nagusien sosak jasotzen. Ikusiko da gero gehienez ere zerraldoa eginen dizuegu. Txaloak. Agnelli kinka larrian dago kapitalismoa ere antzaldatzen eta kinka larrian dago gure etsai guztiak daude kinka larrian. Horregatik segi dezagun borrokan eta ez gaitezen sekula santan gelditu. Jakin dezatela hori Agnellik eta bere morroi satellite guztiek. Txalo zaparrada luzea.

Burkideak zuek denek dakizuen bezala Fiaten gaur egun absentismoaren portzentajea izugarri altua da. Bada jendea gauza ez dena nagusiek ezarritako lan-erritmo lehergarriak jasateko. Bada jendea etxean gelditzen dena existentzia fisikoa bera arriskuan ez jartzeko. Produkzio lanetik ihes egitea ohikoa izaten da. Osasunerako eskubidea eta borrokak hizketagai izaten dira. Baina inork ez du esaten lana ez dela osasungarria hori da kontu bakarra. Hondarreko hilabeteetan gero eta gazte gehiagok emigratzen dute Hegoaldetik Fiatera lanera etortzeko. Langile mordoak uzten ari baita lana Fiaten erritmoak ez jasateagatik eta langile franko lanetik bota baitituzte absentismoa dela-eta. Hori dena mesedegarria da Fiatentzat kontratatu berriek soldata txikiagoa baitute fabrikako lehenbiziko lau esplotaziourteetan.

Eskuetatik ia soldata osoa kentzen digun gupil zoroa gehitu behar zaio horri. Gazte immigranteak ostatutik gela alokatuta ibiltzen dira egunero joan-etorrian. Orain sei edo zazpi urte posible zen dirua aurrezteko Iparraldera aldatzeko zorrak ordaintzeko eta Hegoaldera posta bidezko igorpena egiteko. Azkeneko urteetan berriz egiazko soldatak behera egin du Fiaten. Horregatik Hegoaldean Battipaglia Demokrazia Kristauaren eta PCIren eta Estatuaren eta monopolioen politika meridionalistaren bukaera izan da Battipagliaren alde egindako greba aukera bat izan da Fiaten eta Estatuaren plangintzaren kontrako greba politikoa egiteko.

Heldu den osteguneko grebari dagokionez ez dira sindikatuak izan ohartu direnak langileek ezin dietela aurre egin etxearen alokairuei. Inongo ildo sindikal edo politikotik aparte langileek berek erakutsi dute matxinada-ekintza hauen bitartez nazka-nazka eginda daudela bizitzaren eta alokairuen kostuaren garestitzeaz. Eta behin honetara ezker ezin direla konforme egon gaur egun irabazten den gose-soldataz. Soldata bat bermatua eskatzen dugu gure beharren arabera ordaintzea eskatzen dugu bai lanean ari garenen bai lanik gabe gaudenean ere. Txaloak.

Borroka-lagunok orain greba-aste hauetan nagusia belauniko jarrarazi ondoren ez esajeratzeko esaten digute denek. Fabrikan sindikalistek esaten digute kanpoan egunkariak esaten digute. Horrela segituz gero krisia etorriko dela eta kontuz ibili behar dugula produkzioaren jaitsiera honek Italiako ekonomikoa hondoratzen duela. Eta gero guztiak egonen garela okerrago langabezia eta gosea izanen direla. Baina niri ez zait iruditzen gauzak hola daudenik. Azaldu dezagun bestalde arestian burkideak esan duen bezala

Bost axola guri nagusien ekonomiak lur jotzen badu. Are gehiago poztu egiten gara.

Egia borobila da hori baina bada beste gauza bat. Kontua da guri ez zaigula deusik inporta ederki baitakigu dena aldatu arte gu egonen garela okerren. Ez al dugu beti guk ordaindu borroka guztien prezio altuena? Burkideok ni Salernokoa naiz mota guztietako lanak egin ditut Hegoaldean zein Iparraldean eta gauza bat ikasi dut langileak bakarrik bi aukera dituela edo lehertzen duen lan bat gauzak ongi dabiltzanean edo langabezia eta gosea gauzak gaizki dabiltzanean. Ez dut garbi bi gauzetatik zein den okerragoa. Edozein modutan ere langileak ezin du erabaki nagusiak erabakitzen du beti.

Gehiago ezin dugula-eta sutzen garenean alferrik da guri erregutzea lanera itzultzeko. Alferrikakoa da guri lezioak ematen hastea esanez denok nazio bat garela interes orokor bat dagoela bakoitzak bere egin-kizuna eta bere betebeharra duela eta halako mezu moralistak. Talaka zahar horrekin heldu baitzaizkigu alegia besoek lan egin ezean tripa ezin dela bete eta orduan gorputz guztia hiltzen ahal dela. Eta erregutzen digute mehatxu egiten digute lanera itzul gaitetzen bestela okerrago izanen delakoan guretzat ere. Baina gauzak ez dira hala zeren lehenago esan dudan bezala boterea haien esku dagoen bitartean galduan aterako baikara beti guk lan egin edo ez egin.

Eta ez gaitzen tranpan erori haiek eta gu ez baikara gorputz beraren atal. Ez dugu deus komunik bi mundu desberdin gara elkarren etsaiak gara kitto. Gure indarrak handiena zera da azkenean sinetsi dugula nagusien lanak eta nagusien Estatuak ez dutela inondik inora interesik guretzat. Are gehiago haien kontrakoak direla gure interesak. Gure helburu material guztiek

kontra egiten diote ekonomia honi aurrerabide honi interes orokorrari nagusien Estatuari alegia. Orain esan digute Fiatek fabrika bat eginen duela Errusian Togliattigraden eta denok hara joan beharko dugula ikas dezagun nola egiten den lan komunismoan.

Eta guri bost pito baldin eta Errusian ere langileak esplotatuak badaude kasu honetan nagusi kapitalistek esplotatuak ez baizik eta Estatuak esplotatuak. Horrek esan nahi du hori ez dela komunismoa eta zerbait gaizki dabilela. Izan ere iruditzen zait gehiago kezkatzen direla produkzioaz eta Ilargira joateaz jendearen ongizateaz baino. Ongizatea gehienbat lan gutxiago egitearen ondorio baita. Horregatik guk ezetz esaten diegu nagusi izutuei produkzioan laguntzeko eskatzen baitigute. Esaten baitigute parte hartu behar dugula geure mesederako ere badelako.

Ezetz esaten diegu alderdiaren eta sindikatua-
ren borroka-proposamenen helburu diren erreformei. Ulertu baitugu nagusiek gu esplotatzeko erabiltzen duten sistema hobetzeko baizik ez dutela balio erreforma horiek. Ez dugula hobeki esplotatuak izan nahi etxearen edo botiken edo eskolaren kontuetan hobekuntza ttiki batzuen truke. Horrek guztiak Estatu hobetzen du interes orokorra hobetzen du aurrerabidea. Baina gure helburuak hau da langileriaren interes materialak kapitalismoaren eta haren interesen etsai handienak dira.

Diru gehiago eta lan gutxiago eskatuz hasi dugu borroka handi hau. Diru gehiago eta lan gutxiago. Orain badakigu kontsigna horrek nagusien proiektu guztiak kapitalaren proiektu guztia lehertzen dituela. Eta orain soldataren aldeko borrokatik boterearen aldeko borrokara egin behar dugu salto. Borroka-lagunok arbuia dezagun lana. Botere guztia nahi dugu

aberastasun guztia nahi dugu. Borroka luzea izanen da urtetakoa arrakastekin eta frakasoekin garaipenekin eta porrotekin. Baina borroka hori hasi behar dugu orain bete-beteko borroka latz eta bortitza. Berriz lana existitu ez dadin borrokatu behar dugu. Kapitala indarkeriaz suntzitzeko desagerrarazteko egin behar da borroka. Lana oinarri duen Estatuaren kontra egin behar dugu borroka. Esan dezagun garbi Bai langileon biolentziari.

Guri esker gertatu baita kapitalaren eta bere Estatuaren garapena hau da Hegoaldeko langileei esker langileriarri esker Fiateko ehun eta berrogeita hamar mila langileei esker. Guk sortu dugu dagoen aberastasun guztia baina apur batzuk besterik ez digute uzten. Fiaten astolana eginez edo Hegoaldean goseak amorratzen sortu dugu Hegoaldeko aberastasun hau guztia. Baina langilerian gehiengoak garenez ez dugu gehiago lan egin nahi ez dugu bizia utzi nahi kapitalaren edo bere Estatu honen mesedetan. Nazkatuak gaude zerri hauetaz eta ez dugu nahi haiek gure bizkar bizitzerik.

Eta orduan esan dezagun badela garaia zerri nazkagarri horiek pikutara bidaltzeko guk hemen eta mundu guztian produzitzen dugun aberastasun izugarri handia alferrik galtzen eta suntsitzen baitute ez dakite besterik egiten. Alferrik galtzen dute milaka bonba atomiko eginez eta Ilargira joanez. Fruta ere botatzen dute tona mordoak melokotoi eta udare botatzen dituzte gehiegi dagoelakoan eta horrela gutxi balio duelakoan. Den-denak prezio bat izan behar baitu denak balio bat izan behar baitu hori besterik ez zaie interesatzen eta haientzat baliorik ez duenak ez baitu merezi existitzerik ere. Haien ustez ez dute balio ahora zer eraman ez dutenentzat. Baina aberastasun horrekin guztiarekin jendeak ez luke gosez hil beharko ez

luke lan gehiago egin behar. Orduan har dezagun aberastasan hori guztia har dezagun dena guretzat.

Baina erotzen ari gara? Nagusiek astoen gisan lan eginarazten digute eta gero suntsitu egiten dute guk sortutako aberastasuna. Baina bada garaia jendilaje hau geldiarazteko. Bada garaia zerri hauei guztiak izorratzeko eta pikutara bidaltzeko eta haiengandik libratzeko betiko. Estatua eta nagusiak zabiltzate erne hau gerra da azkeneko bataila da hau. Lagunok egin dezagun aurrera Battipaglian bezala erre dezagun dena bidal ditzagun bazterrera lekutara pikutara gizatar hauek suntsitu dezagun errepublika hau. Txalo zaparrada luzea.

Uztailaren 1a asteartea. Rivalentako langile lankideak aurreko asteko lanuzteen ondoren atzo langile asko lanera itzuli dira. Horrek ez du esan nahi dena bukatua denik eta normaltasuna itzuli denik. Borrokaren etenaldi honen arrazoi nagusia sindikatuek egindako greba deialdia da ostegunerako greba orokorra. Izan ere langile askok borroka alde batera utzi dute indarrak ostegunerako utziz bezala. Hori arriskutsua da langileak indartsuen diren fabrikan antolatzen ari baitira eta osteguneko grebak berriz antolamendu hori ahultzea du helburu eta den-dena egun bakarrean bukatzea. Baina sindikatuak ameskerian ari dira uste badute lortuko dutela zeren langileek ongi jakinen baitute aukera honetaz ere baliatzen beren borroka eta beren helburuak sendotzeko eta azkartzeko. Greba hori eginen dugu bai baina Fiateko langileek azken 45 egun hauetan aurrera eramandako borroka eredugarriaren jarraipen gisara.

Grebak ez du balio behar borroka ahultzeko hori nahi baitu sindikatuak kostatuta ahala kostatuta gero akordio ziztrin bat onarrazteko aitzitik beren betiko helburuak lortzeko borroka sendotzeko erabili behar dute

langileek greba. Osteguneko grebarako deia etxearen problemagatik egin dute sindikatuek eta ez beste edozerengatik. Baina alokairuen problema ez da bereizi behar fabrikako borrokaren aferatik. Eta borroka hauekin lortzen da langileen egiazko indarra eta ez gobernadorearengana joz negar-muzinka. Langile burkideok ostegun goizean goazen denok fabrikaren aurrera eztabaidatzera nola eman segida borrokari hurrengo egunetan. Arratsaldean Fiateko langile guztien manifestazioa Mirafioritik abiatuta 15:00etan 2. atetik hau da Tazzoli etorbidean.

Uztailaren 2a asteazkena. Borrokak aurrera jarraitzen du Rivaltako eta Lingottoko 13. lantegiko lanuzteekin eta kateetan berriz hasiko dira greban. Sindikatuek mehatxu egin dute ez dutela sinatuko akordioa alegia langileek arbuiaututako akordio ziztrina arbuia egin baitute eta borrokan jarraitu harik eta aurreko astean kaleratutako langileak berriz onartzen dituzten arte. Zuzendaritzak berehala onartu ditu langileak sindikatuei berriz jokoan sartzeko aukera bat emateagatik ordurako erabat jokoz kanpo baitzeuden. Eta hala gertatu da ordu bakar baterako grebarako deia ere egin gabe sekula gertatu gabeko gauza azken hogeitertean.

Guri beldurra sartzeko saiakerari zera gehitu behar zaio ustekabeen Mirafioriko ate aurrean poliziak eta karabineroak azaldu dira. Haiek ikusteak gure borroka geldiarazten ahalko balu bezala. Bihar ere manifestazioan ez diogu utziko poliziarri gu beldurtzen kokiltzen. Uste baldin badu nagusiak poliziaz baliatzen ahal dela gure borroka geldiarazteko ba sar dezala polizia fabrika guk noizean behin greba egitea erabakitzen dugun lantegietan eta saiatu dadila guri lan eginarazten.

10

ALTXAMENDUA

Aurreko arratsean kartelak itsasten ibiliak ginen hiri guztian auzo guztietan. Irudia ukabil itxi bat zen. Haren gainean gure borroka-egunaren helburuak zeuden idatzita baita elkarretaratzerako hitzordua ere. Hiruretan Mirafioriko 2. atean. Goizeko bostetan megafonoarekin joan ginen Mirafiorira. Ordurako poliziaz josia zegoen atea. Polizien eta karabineroen jeepak furgoiak patruilak guztira gutxienez berrehun hirurehun agente. Ate bakoitzaren aurrean bi polizia zeuden eta bulegoen eraikinaren parean gutxienez berrogeita hamar. Gu goizeko bostetan joan ginen megafonoarekin ate bakoitzaren parera lehenbiziko txandako langileei azaltzeko ez zutela sartu behar baina dena dela premia handirik ez zegoen ez baitzen bat bakarra ere sartzten.

Piketeen beharrik ere ez zegoen. Polizia jakina guk piketeak egiteko zain zegoen probokatzeko eta gure kontra egiteko. Noizbehinka polizia molestatzera etortzen zitzaigun esanez ez genuela hitz egin behar megafonoz ezin ginela egon ateen ondoan. Guk esaten genien Megafonoz ari gara greba dagoelako ez gara

inor pistolapean mehatxatzen ari lanera sar ez dadin. Nahi badute sartu egiten dira konforme eta ez badute nahi ez dira sartzen. Propaganda politikoa egiten ari gara kitto. Gehienez ere lauzpabost eskirol saiatu ziren sartzen eta orduan polizia hara oldartu zen sartzen utz geniezaien. Baina gaueko txandatik ateratzen ari ziren langileek haiek aterarazi eta kanpora bota zituzten.

Ez zen inortxo ere sartu alerik ere ez. Langile guztiak etorriak ziren baina kaleaz bestaldean zeuden. Inork sartu nahi ote zuen kontrolatzen. Baina inor sartu ez eta handik laster etxera itzuli ziren denak. Arratsaldean berriz ateetara joan ginen megafonoarekin bigarren txandakoei hitz egiteko. Hiruretan genuen hitzordua 2. atearen parean. Zelaigunera ailegatu ginenerako langile asko zeuden han esperoan. Sartu ez ziren bigarren txandako langileez gainera lehenbiziko txandako asko zeuden hara itzuliak Mirafiorira elkarretaratzean parte hartzeko.

Hiruretarako hiru milatik gora zeuden Mirafioriaren aurrean. Poliziak Mirafiorira sartzeko bide guztiak hartuak zituen baita ate guztiak bulegoen eraikina eta abar ere. Errefortzuak ailegatuak ziren. Sindikatuaren goizeko manifestazioan ez zen gertatu inolako gorabeherarik. Sindikatuak etxeari buruzko mitina egin zuten fabrika txiki eta ertainetako langileekin haietan indartsuak baitziren baina Fiaten ez zuen ia-ia indar izpirik ere. Han 2. atearen aurrean bandera gorri asko zeuden baita kartelak eta pankartak ere. Manifestazioa abiatzeko zain ginela poliziaren probokazioak hasi ziren.

Baina pentsatu ez zutena ez poliziek ez polizia-buruak ez barne-arazoetarako ministroak ez Agnellik zera zen hura ez zela ikasleen ohiko manifestazio bat hau da orduan estremisten manifestazio bat deitzen

zutena. Hori esaten baitzuten burgesen egunkariak hau da iraultza egin behar balute bezala jostetan aritzen ziren aberaskume batzuk zirela.

Mirofioriko 2. atearen aurrean zeuden langileak aste haietan guztietan Fiateko borroketan aritutakoak ziren. Borroka latzak egindakoak borroketatik irabazle ateratakoak. Manifestazioa abiatzeko prestatzen ari ginenean polizia bere maniobrak egiten hasi zen. Alde batean karabinero lerro bikoitza besotik helduak manifestariei bultzaka atzera eginarazi nahian. Beste karabinero talde batzuk lauko lerrotan jarriak ziren eta poliki-poliki egiten zuten aurrera manifestariengana.

Voria poliziaburuordeak karabineroei aginduak ematen zizkien ezker eta eskuin gu inguratzeko eta bitartean alde egiteko esan zion bere ondoan zegoen langile bati. Langile horrek ordea muturreko bat eman eta lurrean luze utzi zuen. Orduan maniobrak egiten ari ziren karabineroen pelotoiak trostan hasi ziren manifestarien erdian ia lasterka infanteriako soldaduen gisara. Eta mosketoia hartu zuten borra balitz bezala garrote bat balitz bezala. Halako batean tiro egiteko agindua jo baina nork arraio aditu behar zuen.

Eta ke-potoak erortzen hasi ziren negarra eragiteko euri eta laino ezin itxiagoa senari jarraikiz handik ihes eginarazten ziguna. Denak iheska hasi eta karabineroak batera eta bestera mosketoien ipurdiarekin joka hasi ziren. Tinko gu inguratzeko asmotan zeuden karabinero lerroen kontra bultzatzen gintuzten. Ni karabinero lerro horren ondo-ondoan nintzen eta aurpegia zuri edo berde zuten beldurragatik. Gure pareparean baitzeuden bekoz beko. Lehentxeago haietako bati adarra jo eta esana nion Kasu eman bestela pistola kendu eta tiro eginen diat. Hark ez zidan deus esan.

Gero borroka-lagun bat harrapatu zuten eta handik eraman nahi zuten baina ez zuten lortu guk indarka haien eskuetatik atera genuelako mehatxuka. Bizkitartean negarra eragiteko gas euri ustekabeko horri esker Mirafioriko atletik aldenarazi eta barreiatu gintuzten. Mirafioriko atletik ihesean atera eta lerroa osatzen zuten karabinero haiek soinean gurutzaturik zeramaten mosketoia borra gisa hartu eta gure atzetik atera ziren. Zafraalditxoa izan zen hura fusilen ipurdiarekin ero moduanitsu-itsuan joka hasi baitziren edozeinen kontra atertu gabe. Eta orduan hamar bat lagun atxilotu zituzten. Ez baikenuen ezer ere ez makilarik ez harririk. Lasterka bixi atera eta hara non topo egin nuen lurtean botata zegoen borroka-lagun bat jipoitzen ari ziren hamar bat karabineroekin. Oihu egin nion haietako bati Baina zer arraio ari haiz hil nahi duzue ala?

Hark orduan mutur niri begiratu berriz niri bizkarra eman eta beste poliziekin batera borroka-lagun hori jotzera jiratu zen. Gero hola nengoen bitartean hiruzpalau metrora beste borroka-lagun bat ikasle bat ikusi nuen eta hari segika lau-bost karabinero. Batek harrapatu eta mosketoia bota eta burua lehertu zion. Ni eta beste batzuk ziztuan joan ginen hara eta karabineroek hanka egin zuten. Konortea galdurik lurtean zerraldo zegoen borroka-lagun hori hartu eta handik atera genuen. Ate ondoan zeuden emakume batzuekin utzi genuen. Inguruko etxeetatik denak jaitsiak baitziren edo bestela emakumeak neska-mutilak haurrak balkoietan zeuden gertatzen ari zena ikusi nahian.

Lortua zuten bai gu barreiatzea baina ez ziren jabetu nolako kemena eta gogoa genuen langileok borrokarako. Hamar mila jende elkartu ziren Agnelli etorbidearen eta Unione Sovietica etorbidearen artean. Han ziren tranbiaren errailak eta erdian harriak. He-

gan hasi ziren poliziaren eta karabineroen kontra. Eta horrela haiek ere kolpeak jasotzen hasi ziren. Hasieran desegindako manifestazioa berregin genuen. Polizia bat desarmatua gelditu zen ezkutua eta kaskoa kendu zizkieten eta trofeo gisara jaso. Baziren pankartak ere honako mezuokin Botere guztia langileentzat. Borrokan etenik ez. Ustekabean poliziaren anbulantzia bat sekulako ziztuan oldartu zen manifestazioaren kontra. Jendearen kontra oldartu zen sirena pizturik horretarako inolako arrazoirik gabe. Gero lasai-lasai jo baitzuen beste alde batera. Poliziaren beste probokazio bat. Baina manifestazioa abiatu eta gero Traiano etorbidera hartu zuen.

Traiano etorbidea Fiaten bulegoen eraikinarren parez pare dago. Traiano etorbideak bi errei ditu baita beste bat ere erdian errailekin eta harriekin. Gu eskuinaldetik gindoazen behera eta kontrako bidean guregana polizia. Gero han gelditu eta gure zain gelditu ziren zirkulazioa moztuta. Bidea moztu nahi ziguten nahi zuten gu handik ez mugitzea. Hau da borroka Fia-tera mugatu nahi zuten Fiaten inguruetara baina ez zuten nahi borroka hirira zabaltzerik. Uste zuten guk erdialdera joan nahi genuela eta halaxe zen bai hori zen gure asmoa.

Jendeak Traiano etorbideko leihoetatik begiratzen zigun manifestazioak aurrera egiten zuen bitartean. Balkoietara ateratzen ziren kalera jaisten ziren eta aditzen zuten esaten genuena. Konforme zeuden han bizi ziren guztiak langileak zirelako. Gero bat-batean parez pare genituen polizia taldeetatik ke-potoak atera ziren guregana. Ke-poto mordoa ez sinestekoa oraingoan zuzenean jendearen kontra bazter guztietara. Ke-poto batzuk etxeetako lehenbiziko solairuko balkoietara joan ziren eta gasak berehala gela

guztiak bete zituen uda izanik leiho guztiak irekiak baitzeuden. Beste batzuk auto aparkatuen gainera erori ziren eta horrela hautsi eta erre. Eta horrek haserre bizian jarri zuen han bizi zen jendea.

Halako batean Traiano etorbidean Fiat 500ez betetako kamioi bat azaldu zen guk hegazkin-ontzi deitzen genuen horietako bat. Kabinari harrika hasi eta gidaria jaitsi egin zen. Harrika auto guztiak txikitu genituen gero gasolinaren deposituan trapu bat sartu. Eta su eman genion kamioiak eztanda egin zezan baina gasolinak ez zuen surik hartzen. Orduan kamioia loka-puntuan jarri eta bultzaka kalearen erdian utzi genuen trabeska. Suhiltzaileei deitu zieten eta ailegatu zirenean haiek ere harri-erauntsia jasan behar izan zuten. Ez genien kamioia mugitzen utzi eta azkenean bertan gelditu zen.

Laurak ziren eta hura izan zen gerora hamabi ordutik gora iraunen zuen batailaren hasiera. Poliziek ilaratan egiten zuten aurrera gure kontra jotzen eta beste aldetik karabineroak aurreratzen ziren guri bidea ixteko eta harrapatzeko. Gu ez ginen barreiatu eta berehalaxe hasi ginen harrika erantzuten non-nahi baitzeuden harriak. Gehienok Traiano etorbidearen ondoko zelaigune batera mugitu ginen etxeak egiten ari ziren zelaigune batera. Han oholtzarrak makilak eta materialak bildu genituen barrikadak egiteko. Eta harri mordoak genuen han eskura.

Orube edo zelaigune horretan ginela poliziak ailegatu ziren beren furgoiekin eta karabineroak beren kamioiekin. Karabineroek harri-jasa ederra jasan behar izan zuten ageri-agerian baitzeuden eta horrela aise egiten ahal baikenien harrika. Kamioien ondo-ondora ailegatu ginen makilakadaka jotzeko baina haiek metrailadoreak eskuan tiro egiteko mehatxua egin

ziguten horrela gelditu egin ginen. Eta haiek orduan ospa egin. Poliziek bitartean beren furgoi blindatuetan sarturik gainera erortzen zitzaien harri zaparrada ikaragarriaren etengabeko soinu eta tarrapata aditzen zuten eta eroturik ere ez ziren aterako barrenetik. Egin ahala guztian haiek inguratu genituen eta segika gindoazkien harrika. Atera izan balira makilazoka xehatuko genituen. Furgoi batzuk iraultzen ere saiatu ginen. Haiek barrenean izu-laborrian alde egiteko esaten zioten gidariari eta egin ere hala egin zuten denek.

Handik ordu laurden batera erasoari ekiten saiatu ziren berriz oinez orubera jaisten gugana. Kasakoak jantzirik ezkutuak eta fusilak eskuan ke-potoak jaurtitzen negarra eragiteko. Gu han ginen esperoan zelaigunean orubean. Gugandik hamabost-hogei metrora hurbildu ziren. Adarra jotzen hasi gintzaizkien esaka Zergatik ez zarete saiatzen orain guri astindua ematen lehenago 2. atean egin duzuen bezala? Hemen *porkulo* emanen dizuegu. Haietako bakar batek erantzuten zuen Hator hi bakarrik eta ausartu parez pare eta emanen diat hiri *porkulo* eta abar eta halakoak. Baina ez ziren bertatik mugitzen eta beldurrez zeuden.

Harriak eskuan geunden eta gure ondoan lurrean beste harri anitz eta makilak eta borrak. Ez aurrera ez atzera gelditu ziren denbora pixka batean gero ke-potoak botatzeko eta tiro egiteko agindua eman zieten. Baina ez zuten aintzat hartu zelaigune batean zeudela aire zabalean. Hau da ikusi egiten genituen ke-potoak ailegatzen zirenean. Eta guk bueltan hartu eta eskuz haiei botatzen genizkien eta orduan kez inguratuak zeuden gu bezalaxe. Guk haiei harrika egin eta haiek lasterka babesik ez zutenez jo eta jo egiten genituen. Ohartu zirenean ez gintuztela menderatuko orduan

ihesi atera ziren deabruak hartuta bezala eta gu maki-lak eskuan haien atzetik.

Bitartean Traiano etorbideko jendea nardatua zegoen negarra eragiteko gasengatik ke-poto batzuk leihoetara eta balkoietara ailegatzen baitziren eta gasa etxeetara ere sartzen baitzen. Poliziak atarrietan ziren guztiak jipoitzen zituen. Emakumeak zaharrak umeak harrapatzen zuten edonor. Batez ere gaztetxoei ematen zieten egurra baita hamar-hamaika urtekoei ere. Den-denak ari baitziren borrokan langileekin batera. Gazteak harriak botatzen emakumeak musuzapi bustiak banatzen gasak kalterik ez egiteko. Poliziek jazarritako borroka-lagunek etxeetan aurkitzen zuten gordelekua. Denek denetik botatzen zieten poliziei leihoetatik eta balkoietatik behera.

Poliziak toki guztietara jarraitzen zigun eta barreiatu gintuen eta talde txiki askotan banatu. Kea zela-eta etorbidearen ondoko karriketan ere ez zegoen modurik arnasa hartzeko. Ni ikasle batzuekin nengoen erabakia baitzuten Arkitekturako Faktultate okupatura joatea batzar bat egiteko eta barreiatutako taldeekin elkartzeko. Handik alde egiteko mugitzen hasi orduko furgoi blindatuen ilara bat azaldu zen sirena piztua zutela. Eta gu bi taldetan banatu ginen batzuk Arkitekturako Fakultatera joan behar genuenak eta beste batzuk han geldituko zirenak borrokan jarraitzeko.

Jendea Arkitekturara ailegatzen ari zen bitartean bandera gorria jarri berria zen fatxadako hagan eta orduantxe karabineroak bertaratu ziren. Kargarekin hasi ziren ke-potoak botatzen eta dozena bat borroka-lagun atxilotu zituzten. Gu harrika defendatu ginen. Nolanahi dela ere ez zuten lortu unibertsitateara sartzerik. Ke-potoak bota zituzten leihoetara baina gutako batzuek harrika defendatu zuten unibertsitatea eta haiei

sartzen utzi ez eta hola bitartean gu bildu egin ginen barrenean. Hainbat borroka-lagun iritsi ziren eta esan ziguten hedatu eta biziagotu egin zirela Traiano etorbideko liskarrak. Eta Nichelinon ere sekulako liskarrak gertatzen ari zirela.

Borgata San Pietron eta Moncalierin eta Turingo hegoaldeko beste udalerrri batzuetan ere ba omen ziren iskanbila eta liskarrak. Langile auzo guztietan egiten ari omen zen borroka. Unibertsitatetik kanpo anar-tean gero eta bortitzagoak ziren kargak eta harri-jasak. Liskarra etorbidera eta ondoko kaleetara eta etxe eta eraikinen atarrietara zabaldu zen. Ke-potoak harriak tinko buruz buru. Esku hartzeko taldetan banatzea erabaki genuen eta hirian borrokan ari ziren auzoetara abiatzea. Jakite aldera zenbateraino zeuden hedatuak liskarguneak. Ni Nichelinora joatekoa zen lagun talde batekin nengoen. Eta Nichelinora joateko Traiano etorbidea gurutzatu behar genuen.

Sei eta erdiak inguruan ailegatu ginen berriz Traiano etorbidera eta alimaleko gudu-zelai bat ikusi genuen. Kontua da alde hartan bizi ziren eraikuntzako langileak etxera itzultzen hasiak zirela. Ez ziren parte hartzen ari greba hartan arrastorik ere ez zekitelako hartaz. Etxera itzuli eta hara non ikusi zuten ke laino tzar hura guztia polizia mordoa karridak harriz eta tras-tez beteak. Orduan berehala bildu ziren borrokara eta hasi ziren bai eraikuntzako obretako materialak kale erdira botatzen bai barrikadak egiten. Inguru haietan obra asko baitzeuden eta baziren adreiluak karretilak oholak eskorgak porlana eta kare-orea egiteko ura zuten burdinazko bidoiak.

Den-dena kale erdian jarri eta autoekin barrikadak egiten genituen eta gero denari su eman. Polizia urruti zegoen Traiano etorbidean han atzealdean Ag-

neli etorbidearen aldera. Noizbehinka polizia ilara batzuk oldartzen ziren erasoka. Barrikadak desegiten zituzten baina jendeak bitartean harrika egiten zien eta gero ondoko orubeetara alde egin. Gero poliziak ospa egiten zuenean jendea berriz hara. Materialak kale erdira eraman berriz eta barrikadak berregiten zituen egurrezko oholekin eta beste guztiarekin. Egurrari gasolina bota eta polizia berriz hurbiltzen zenean su ematen zioten barrikadari. Eta su ematen zieten pneumatikoei ere eta poliziaren kontra pirritaka ibilarazten zieten sutan. Eta gero eta molotov koktel gehiago ikusten hasi ziren.

Barrikaden gainean bandera gorriak zeuden eta haietako batean kartel bat idazki honekin Zer nahi dugu? Den-dena. Jendea etorri eta etorri ari zen bazter guztietatik. Soinu ilun etengabe bat aditzen zen baita harriek kable elektrikoen posteen kontra jotzean sortzen zen kanka-kanka erritmikoa. Etengabeko soinu ilun izugarria egiten zuten. Polizia ez zen gauza obraz lantegiz etxe xumez eta orubez betetako zona hura guztia inguratzeko. Jendeak erasoan jarraitzen zuen populazio guztia ari zen borrokan. Taldeak berriz antolatu eta toki jakinen batean egiten zuten eraso gero barreiatu eta berriz eraso egiten zuten beste nonbait. Baina amorruek baino gehiago pozak mugiarazten zituen. Poza bai azkenean indartsuak zirelako. Ohartuak baitziren beren eskakizunak eta egiten ari ziren borroka denen eskakizunak eta denen borroka zirela.

Beren indarra sentitzen zuten eta herri eztanda bat zegoen hiri guztian. Egiaz sentitzen zuten batasuna egiaz sentitzen zuten indarra. Horregatik poliziak jasotzen zuen harrikada bakoitza poza zen ez amorrua. Azken finean indartsuak ziren denak. Eta jabetuak ginen hura zela gure etsaia makurrarazteko modu ba-

karra zuzenean harrika eta makilazoka jotzea. Errotulu argidunak eta publizitateko hesiak txikitzen genituen. Txikitu eta kalearen erdira botatzen genituen semaforoak eta han barna zeuden zutoin guztiak. Barrikadak non-nahi eta edozerekin egitea zen helburua. Zapalgailu bat iraulia unitate elektrogeno mugikorrek erreak. Noizbait ere iluntzen hasi zuen eta bazter guztietan suak ikusten ziren ke-potoen gasaren erdian baita molotov koktelak ere hegan eta sugarrak.

Ez nuen lortzen polizien kontrako iskanbilaren eta zalapartaren muinera ailegatzerik. Borroka-lagun asko eta asko ni baino lehen ailegatuak ziren toki guztietatik joanak. Ez zen deus ere ikusten kea zela eta eta sekulako nahasmendua eta burrunba zeuden. Berehalakoan atzera eginarazi genien poliziei Traiano etorbidearen hasieraraino eta gutako asko segika gindoazkien. Gu eta poliziak han ari ginen borrokan elkarren kontra ari ginen zelaigunearen hasieran. Polizia bat lurrean zegoen noiz edo noiz mugitzen zena. Gutako askok poliziei jarraitzen genien tranbiaren errailen bidean aurrera eta ke laino egin beltzagoa igotzen zen erretako autoetatik. Borborrean ari ginen denok borroka-lagunak ke lainoan sartu eta atera ari ziren eta eztanda-hotsak aditzen genituen.

Sekulako nahas-mahasa zegoen han eta jende guztia oihuka eta lasterka zebilen harat-honat. Etorbidearen muturrera ailegatu ginenerako denbora luzea zen han ere ari zirela jo eta su borrokan batera eta bestera. Sudurretik sorbaldaraino odola xirripaka zerion borroka-lagun batekin egin genuen topo. Aurrerago odoletan zen beste batekin egin genuen topo eta gixajoa ez zen gauza zutik egoteko. Altxatzeko eginahalak egin eta berriz erortzen zen lurrera. Etorbidearen ia burura ailegatu ginen arte ez nuen lortu polizia ikusterik.

Furgoietatik jaitسيak ziren eta samalda batean zeuden kaskoak buruan eta ezkutuak eskuan.

Gure esperoan zeuden eta ke-potoak botatzen zituzten. Ordurako gure lagunek erabat inguratuak zituzten. Aditzen nuen gutako batzuek esaten zutela oihuka Badoaz. Eta ikusi nuen polizia asko beldurtuak zeudela eta ihesi zihozela. Gure kidekoak oihuka hasi ziren Ho Chi Minh. Aurrera aurrera. Aurrera zihozen lasterka eta airea ilunduz zihozan hautsa eta kea zirela-eta. Zenbait gorputz mugitzen ziren nire inguruan baina itzal gisara ikusten nituen eta berebiziko burrun-da zegoen eztanda-hotsak sirena-hotsak eta oihu eta garrasiak. Bat-batean polizia bat ikusi nuen nire aurrean parez pare orduan makurtu eta makilarekin jo nuen. Polizia zerraldo erori eta lasterka zihozazenen hankek haren kontra egin zuten behaztopa.

Azkenean karrikan behera itzuli ginen eta han ere zauritu franko zeuden. Polizia guztiak handik alde eginak ziren izaturik. Pozez txoratzen geunden denok. Denbora pixka batean gelditu ginen zain eta tupustean trebeseko kale batetik heldu zen kamioi ilara bat ikusi genuen. Oihuka hasi ginen denak Aurrera aurrera. Eta poliziei buruz joan ginen haiei eraso egitera eta etorri ziren bidetik alde egin zuten lasterrean berriz. Bat zauritua zegoen eta han gelditu zen eta guk hari astintuka jarraitu genuen. Gero berriz atzera eginarazi genien poliziei etorriak ziren trebeseko kaleraino.

Gas-potoak jaurtitzen jarraitu zuten haiek airea ezin arnastuzkoa zegoen toki guztietan eta handik atera behar izan genuen. Poliziak pixkanaka Traiano etorbidea berreskuratu zuen baina beste aldean behin eta berriz barrikadak egiten ziren. Harrapatzen zuten jendeari amorrus zafraldia eman eta patruila-autoetan sartzen zuten. Polizia askok ere astindu ederrak har-

tu zituzten. Errefortzuak ailegatu zitzaizkien poliziaiei. Alessandriatik Astitik Genovatik iritsi ziren. Goizean Paduatik hara joandako batailoia ez baitzen aski izan haientzat. Baina liskarrak gero eta gehiago zabaldu ziren. Liskar bortitzagoak izan ziren Fiaten eraikinaren parean Traiano etorbidean Agnelli etorbidean trebeseko eta ondoko kaleetan. Bengasi plazan poliziak alimaleko karga burugabeak egin zituen indarkeria zentzugabeko kargak. Baina poliziari bi aldetatik egin zitzaion eraso eta juxtutik lortu zuten jendeak ez inguratzea erabat. Ia-ia Voria poliziaburuordea harrapatu genuen. Poliziaren irratia aditzen zuten borroka-lagunek ziotenez tiro egiteko baimena eskatu zuten.

Borroka-lagunek ke eta su artean barrikadak jarri erantzun zieten kargei behin eta berriz. Talde txiki batzuek molotov koktelak jaurtiz egiten zieten eraso poliziaiei gero ihes egiten zuten orube ilunetara. Etengabea zen elektrizitate-zutoinen emandako kolpeen soinu ilun erritmikoa. Auto batzuk sutan. Kaleek galtzada-harri mordoa galdua zuten eta non-nahi harri pila zeuden barreiatuak. Denbora pasa ahala gero eta basatiagoa zen poliziaren jokaera. Ke-potoak parez pare botatzen zizkioten jendeari baita etxeetara ere jendea ez ateratzeko ez kalera ez leiho edo balkoietara. Voria poliziaburuordea ere ikusi zuten gas-potoak botatzeko fusila eskuan zuela jendeari mehatxuka leihoetan egon ez zedin. Gero errefortzu gehiago ailegatuta zona kontrolpean izaten hasi ziren. Ondotik etxeetara sartzen ere hasi ziren etxe barrenera jendea atxilotzeko ehunka lagun atxilotzeko. Polizieiei ergelak deitu zien atso bat ere atxilotu zuten.

Bengasi plazan han ari ziren oraindik ere erasoka eta harrika. Poliziak errefortzuak jasota ez zuen huts-hutsik Mirafiori kontrolatu behar ordura arte ari

zen bezala noiz edo noiz kargak eginez presioa kentzeko. Orain ordea zona guztia kontrolatzen ahal zuen. Bengasi plaza inguratuz atarietan eta etxeetan sartu eta jendea atxilotzen zuten. Gau erdian beren horretan zirauten liskarrek oraindik ere. Traiano etorbide aldean etxeetatik jendea arrastaka ateratzen ari ziren poliziaei oihu egiten zieten Zakur faxista nazkagarriak. Leihoetatik ere bai Zerri nazi zoldazuen moduan ari zarete sarekadak egiten.

Orduan Nichelinora joatea erabaki genuen han bizirik baitzegoen bataila arratsaldeaz geroztik. Nahiko lan genuen Nichelinora joateko zeren betiko bidetik ezin baitzen joan suak hartutako auto-barrikada bat baitzegoen traban. Auzora sartzeko zubia ere blokeatua zegoen. Bazter bateko beste bide batetik sartu ginen auzora. Nichelinon bizi ziren etorkin horiek guztiek langile horiek guztiek barrikadak eginak zituzten non-nahi zementuzko hodiak erabiliz. Semaforoak okertuak zituzten eta han kalearen erdian botata utziak. Eraikuntzako material pila ikaragarriak jarriak zeuden kalearen erdian barrikada modura eta gero su ematen zieten.

Sestriere kaleak gurutzatzen du Nichelino eta erabat blokeatua zegoen hamar barrikadatik gora baitzeuden sutan autoekin eta atoekin eta trafiko-seinaleekin harriekin egurrarekin egindako barrikadak. Gauean su handiak egin ziren pneumatikoekin eta zurarekin. Eraikitzen ari ziren etxe bateko zurarekin su bat egin zen ikaragarria. Obra guztia sugarrek hartua. Kaleko farolak harrika itzali zituzten eta iluntasunean ez zen ikusten garrak besterik. Polizia denbora irabazten saiatzen ari zen hau da eginahalak egiten zituen gu ez haserrearazteko eta ez zuen eraso egiten. Eta eraso egin goizaldeko lauretan egin zuten errefortzuak aile-

gatu zirenean. Langile gehienak leher eginak zeuden arras nekatuak hamabi ordutik gora baitzeramaten borrokan. Poliziak berriz txandatu egiten ziren.

Han egonak ziren bai barrikaden atzean goiza noiz iritsiko zain txanda hartuko zieten errefortzu freskoen esperoan. Gu atzerago joanak ginen sutan ziren autoek itxitako zubia defendatzera handik sartzekoak baitziren errefortzuak. Baina ordurako gutxi ginen zubia defendatzeko hogeit bat lagun. Gainera errefortzuko jeepak eta kamioiak beste bide batetik sartu ziren hain zuzen ere gu iritsiak ginen bidetik eta korrika eta presaka alde egin behar izan genuen inguratu ez gintzaten. Kamioi batetik karabineroak jaitsi ziren eta gure atzetik zebiltzan gas-potoak jaurtiz.

Ihesi gindoazen denok eta karabineroak guri segika. Halako batean gure parean zuzen guregana heldu zen jeep ilara bat ikusi genuen. Ez dakit nola egina zuten hara ailegatzeko beharbada ikuskatzeko jira batetik heldu ziren. Gauzak okertzen hasiak ziren guretzat. Orduan denak oihuka egurrean hasi ginen lasterka polizien kontra harrika eta jeepetan joka harik eta alde egin zuten arte. Gero ikusi genuen karabineeroak atzean genituela eta orduan gu jiratu eta haien kontra hasi ginen erasoan. Baina karabineroen atzetik polizia asko heldu ziren. Horregatik ihes egin behar izan genuen gutxixko baikinengatik.

Ordurako leher egina nengoen nekearen nekez eta deabruak hartua bezala atera nintzen ihesean. Zela batera ailegatu harri batean estropezu egin eta ia-ia zapata bat galdu nuen. Zapatari begiratu bat emateko gelditu nintzenean karabinero bat azaldu zen niri segika etorria. Orduan ikusi nuen nirekin batera ihesi zihon borroka-lagun batek salto egin zuela karabineeroaren gainera. Buruz buruka aritu ziren borrokan eta

karabineroa lurrera erori zen. Bat-batean kea ikusi genuen kale baten bukaeran. Kale-bukaerara ailegatu eta handik etorbide luze bat ikusi genuen eta han oraindik ere liskarra bizi-bizirik. Ez zegoen garbi nor ari zen nagusitzen. Sekulako nahas-mahasa baitzegoen. Nik nonbait gelditu besterik ez nuen nahi kaka egiteko ezin bainion eutsi gogoari.

Karabinero batzuek eraso egin ziguten eta nik ez nuen lortu behin ere liskarraren minera sartzea borroka bete-betean ari ziren lekuraino ailegatzea. Orduantxe bati aditu genion oihuka esanez Hemen dituk hemen dituk! Ke-hodei bat sekulakoa altxatu zen etorbidearen erdian eta denak lasterrean zihozen oihuka batera eta bestera. Une hartan ke artetik poliziak eta furgoi blindatuak agertu ziren beren faroekin inguru guztiari argi ematen. Indartsuak eta mardulak ziruditen eta denak ke-potoak bota eta bota ari ziren. Etorbidearen bazter batean obra bat zegoen eta gutako batzuk han biltzen ari ziren. Nirekin zegoen laguna obra hartara abiatu zen eta ni atzetik joan nintzaion.

Asko elkarrekin zihozen ihesean etorbidean behera. Atzera begiratu eta ikusi nuen denak zihozela lasterka eta inguruko kaleetan barreiatzen ari zirela. Obrara ailegatu ginenerako gutako dezente zeuden han. Poliziek ke-potoak jaurtikitzen zizkiguten gain-gainera eta zur eta adreilu puskak erorarazten zituzten. Ezin genuen ikusi zer gertatzen ari zen etorbidean. Kea eta garrasiak eta leherketak besterik ez zen han. Etorbidea keak eta hautsak ilundua zegoen eta itzalak eta oihuen eta sirenen eta leherketen sekulako burrunba baizik ez zegoen. Nire ezkerretara etorbidera itzultzen ari ziren furgoiak durundia eta sirenak aditzen nituen. Bi molotov koktekek eztanda egin zuten kalearen erdian.

Kea eta gasa zeuden toki guztietan eta ez zegoen modurik arnasa hartzeko. Gero poliziak furgoietatik jaitsi eta gure aldera etorri ziren lasterka. Keak inguraturik egiten zuten lasterka maskarak aurpegian eta ezkutuak eskuan. Gutako asko batera eta bestera zihoazen eta ondoko kaleetan barreiatzen ari ziren eta ni haien guztien erdian. Poliziek zitzu bizian jazartzen ziguten eta han denak nahasian ginen suek argituta-ko ilunpe hartan sekulako zalapartak inguraturik. Ezin nuen askorik ikusi baina instant batean ikusi nuen gu-reetako bat bakarrik gelditutako polizia bati oldartu zitzaiola makila batekin eta zenbait aldiz jo zuela.

Ondoko kale batetik ezkerraldetik arrapaladan heldu zitzaizkigun polizia batzuk ikusi genituen. Guk guztiok makilak altxatu eta gainera bota genizkien inguratzen gintuen ilunpe hartan. Kaskoa zeraman polizia batekin egin nuen topo eta jo egin nuen. Hark oihu egin eta zerraldo erori zen muturrez aurrera. Gero etorbidera itzuli ginen denok. Ikusi genuen kalearen beste aldean gure kideko batzuk furgoietara bueltan zihoazen polizia batzuei oldartu zitzaizkiela. Poliziak ziztuan atera ziren ihesi eta gu haien atzetik joan eta atzera eginarazi genien etorbidearen goiko aldera han baitzituzten furgoiak motorra martxan eta faroak piztuta kaleari argi emateko. Polizia batek besoak goratu eta intzirika ari zen. Gutako batzuk mutil bati zutitzen laguntzen ari zitzaizkion. Ikusi nuen zauritua zegoela burua odoletan.

Errefortzu gehiagori esker polizia pixkanaka tokia irabaziz zihoan. Metodo anker eta basatiez balia-tuz etxez etxe arakatu zuten dena. Baina jendeak han jarraitzen zuen. Langileak eta auzokideak txandatu egiten ziren ordurako guztiak ohituak zeuden negarra eragiteko gasetara eta barrikadak egiten segitu zuten.

Ni lauzpabost borroka-lagunekin hogei bat karabinero segika genituela etxe bateko atarira ailegatu eta itxi egin genuen. Patioko pareta igo eta lantegi batean azaldu nintzen. Lantegi hartan eskailera bat zegoen. Hartaz baliatuz lantegiaren gaineko teilatura azaldu nintzen. Eskailera ere igo nuen teilatura. Eta ikusi nuen borroka-lagun batzuk gu sartuak ginen ondoko etxe baten teilatura igoak zirela.

Karabineroek bitartean lortua zuten kanpoko atea eraistea eta hasiak ziren etxebizitza guztietan sartzen. Ni nengoen teilatutik ikusten nuen balkoietara ateratzen ari zirela eskaileretan gora ikusten nituen kaskoak jantzita eta ikusten nuen fusilak eskuan igotzen ari zirela eta handik laster beste etxebizitza batzuetako balkoietara ateratzen ari zirela gure bila. Jendea ohetik aterarazi eta identifikatu egiten zituzten. Gu denbora puska luzean han gelditu ginen ezin baikin seguru egon karabineroak joanak ote ziren. Gero gu ikusiak gintuzten etxekoandreek keinua egin ziguten alde eginak zirela jakin genezan eta jaits gintezen esateko deitzen ziguten. Egunsentia zen ia eguzki gorri-gorria eta ezin ederragoa ateratzen ari zen. Izugarri nekatuak ginen akituak. Aski egun horretarako. Jaitsi eta etxera itzuli ginen.

AVETE PAGATO CARD...
NON AVETE PAGATO TUTTO!

Liburu hau 2019ko azaroaren 7an bidali genuen
inprimategira. 102 urte lehenago hasi zuten Urriko
iraultza Petrograden 10.000 marinelek,
25.000 guardiek eta langileek.
Vladimir Maiakovskik idatzi zuen:

Komunismoa!
Nork edanen du bere ibaien esnea?
Nork dastatuko du bere bazterretako izotza?
Nolako ideiak izanen dituzte?
Nolako amodioak?
Nolako sentimenduak?
Nolako gurariak?

